



Blitz
Colección
Bibliotecas
Escolares
Serie
amarilla



**Ikasleak irakurzaletzen
ahotsa, sentimendua
eta sormena erabiliz**

VÍCTOR MORENO



Nafarroako
Gobernua



8 **Blitz** sorta horia

.....

**Ikasleak irakurzaletzen ahotsa,
sentimendua eta sormena erabiliz**

ARGITARATZAILEA
Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

EGILEA
Victor Moreno


EUSKARARAKO MOLDATZAILEA
Juanxo Urdiroz

BILDUMAREN ZUZENDARITZA
Diseinu eta Curriculum Garapenerako Unitate Teknikoa

DISEINUA
Asis Bastida

INPRIMAKETA
XXXXXX

L.G. NA - X.XXX/2007
ISBN 84 - XXX - XXXX - X



.....

**Ikasleak irakurzaletzen ahotsa,
sentimendua eta sormena erabiliz**

.....

VÍCTOR MORENO

AURKEZPENA

2002. urteaz geroztik Hezkuntza Departamentuak biziki defendatu du ezinbestekoa dela gure irakasleek irakurriaren ulermena gara dezaten lehen eskola urteetatik hasita, ikasketa hori gabe ezin izanen baitute arrakastarik izan ez ikasketetan ez bititza profesionalean.

Konbikzio hori uneoro gidari izan da curriculumak, hobekuntza planak eta abar itxuratzerakoan. Ildo horretatik, Blitz liburutegiko sagua bildumak, Blitz irakurtzearen alde sorta horiaren bidez, aholku eman nahi die arlo guztietako irakasleei, jakin dezaten nola irakatsi ikasleei beren gaian erabiltzen diren testuak ulertzen. Hizkuntza baldin bada arlo guztietako komunikazio-bidea, bistan da irakasle guztiek izan behar dutela irakurketa ikasgelan lantzeko ardura.

Eskolak, bestalde, ikasleei behar adinako eta behar bezalako prestakuntza emateko ardura du, ikasketetan zein bititza profesionalean arrakasta segurtatzeko moduan. Horretarako, ezinbestekoa da ikasketaren oinarritzko estrategiak barrenduta edukitzea, hots, hizkuntza gaitasunak.

Gaur aurkezten dugun liburu hau Victor Moreno irakasleak Blitz sorta horian argitaratzen duen bigarren lana da (lehenbizikoa Irakurri zertarako? Ulertzeko izan zen). Berriro laguntzan datozkie arlo guztietako irakasleei bere gogoeta teoriko eta jarduera proposamenekin, denak helburu bat berekoak: ahotsa, sentimendua eta sormena lantzea testuen bidez, uneoro irakurmen gaitasuna garatu eta sendotu beharrez.

“Segur gaude –dio egileak- irakasleak gehiago ohartuko balira zergatik eta zertarako agintzen dieten ikasleei irakurtzeko, ikasgelako irakurketa praktikak aberasgarriago izango liritekeela bai intelektualki bai afektiboki, irakasle zein ikasleentzat.”

Lagungarri izanen ahal da lan hau eskolak irakurle trebatuak sor ditzan, hau da, gaitasun horren bitartez arlo beren bititza pertsonaleko, ikasketako nahiz lanbideko edozein egoerari aurre egiteko gaiago diren pertsonak.

Luis Campoy Zueco
HEZKUNTZA KONTSEILARIA



7 Irakurri, zertarako

9 1. AHOTSA

- 10 1.1 Arnasketa lantzeko
- 11 1.2 Artikulazioa lantzeko
- 12 1.3 Ebakera lantzeko
- 13 1.4 Linea melodikoa lantzeko
- 14 1.5 Erritmoa lantzeko
- 15 1.6 Intentsitatea lantzeko
- 16 1.7 Intentsitatea distantziari egokitze
- 17 1.8 Erregistro ezberdinekin irakurtzeko
- 17 1.9 Era ezberdin batez irakurtzeko
- 23 1.10 Irakurri hartzaile ezberdinentzat
- 23 1.11 Soinuak eta letrak manipulatzuz irakurtzeko

29 2. SENTIMENDUA

- 37 2.1 Adierazgarri egiten zaizkidan eta nire buruarekin identifikatzeko balio zaizkidan hitzak berreskuratzea
- 37 2.2 Ni identifikatzen naizeneko pertsonaien abstrakzioa egin
- 38 2.3 Pertsonaia negatibo baten portaera aztertzea
- 38 2.4 Egoera sexistak juzgatzea
- 40 2.5 Pertsonaia bati eskutitz bat idaztea
- 42 2.6 Pertsonaia bat errefusatztea
- 43 2.7 Bereizkeriako egitateak aztertzea
- 45 2.8 Pertsonaia baten bihotzean azterka
- 45 2.9 Gaiztoaren jokabidean balioak identifikatzea
- 46 2.10 Onaren jokabidean kontrabaliok identifikatzea
- 48 2.11 Aldaketak proposatzea pertsonaien arteko harremanetan
- 49 2.12 Jokabidean aldaketak iradokitzea
- 53 2.13 Sentimendu jakin bat sorraraztea
- 54 2.14 Testuan presente dauden jokabideak bizitako egoerekin lortzea
- 54 2.15 Sentimenduetako analogiak aurkitzea
- 55 2.16 Testuak koloreekin elkartzea
- 55 2.17 Pertsonaia koloreekin identifikatzea
- 55 2.18 Pertsonaien afektuak aurrez ikustea
- 56 2.19 Adieraztea zein sentimendu imitatu edo errefusatu nahiko zenukeen
- 56 2.20 Irudika dezagun abentura bat hautaturiko pertsonaia batekin
- 57 2.21 Sentimendu bati buruz hitz egitea
- 58 2.22 Egoera zuzengabeak kritikatztea
- 58 2.23 Nolakoa izanen litzateke zuretzat istorio triste bat? Eta istorio alai bat?

- 61 **3.1** Soinu efektuak bilatzea
- 61 **3.2** Musika iradokizunak sortzea
- 62 **3.3** Testuko leku- nahiz denbora-kategoriak aldatzea
- 62 **3.4** Pertsonaien izaera eraldatzea
- 64 **3.5** Beste pertsonaia, egoera eta ideia batzuk gehitzea
- 64 **3.6** Autoreak jaso ez dituen xehetasunak gehitzea
- 66 **3.7** Testuari ezer ere gehitzen ez dioten xehetasunak kentzea
- 68 **3.8** Hasiera berriak, korapilo berriak, amaiera berriak asmatzea
- 69 **3.9** Testua beste kode bat erabiliz idaztea
- 70 **3.10** Testuan absurduak eta akatsak sartzea
- 70 **3.11** Gurutzegramak bihurtzea
- 71 **3.12** Letren zopa bihurtzea
- 72 **3.13** Puzzle bat egitea
- 74 **3.14** Xedea aldatzea
- 74 **3.15** Testua luzatzea
- 75 **3.16** Ahal den guztian laburtu
- 77 **3.17** Aditzak aldatzea
- 77 **3.18** Jakin nola idatzita dagoen
- 78 **3.19** Testuak dioena ukatzea
- 79 **3.20** Testuaren tonua identifikatzea
- 79 **3.21** Testuaren edertasuna epaitzea
- 80 **3.22** Estiloa imitatzea edo atzerakotzea



IRAKURRI, ZERTARAKO

Irakurtzea, beste ezer baino lehen, testu batetik elementu adierazleak, zentzu apurrak, ateratzea da, nabarmentzen, alderatzen, aurkitzen ditugun hitz gakoak balira bezala... Hitz gako horiek hitzak izan daitezke, baina baita soinuak (erri-mak), orrialdea antolatzeko moduak, esaerak, berezitasun tipografikoak edo are sekuentzia narratibo osoak ere.

G. Perec. *Pensar y clasificar*, «Leer: esbozo sociofisiológico», Bartzelona, Gedisa, 1986

Baldintza erraz hori betetze hutsarekin, alegia, irakurtzeko zertarako agintzen dugun jakitea, aurrerapauso handi bat emanen genuke ikasleen irakurtzeko gaitasunaren garapena arrazoizkoagoa eta kontzientzagoa egiteko prozesuan.

Irakurketarako askotariko helburuak badaudela jakitea, eta hori inongo arazorik gabe onartzea, garrantzi handiko printzipio didaktikoa da irakurtzeko gaitasuna berariak garatzea bideratuko duten jarduerak eta ariketak prestatzeko.

Pertsona batek irakurtzen duenean, irakurtzeko ekintzan bere barneko bateriaren zati bat jartzen du: ahotsa, aurpegiara, afektibitatea, juizioa eta amaierarik gabeko elementuen multzo bat, zein baino zein garrantzitsuagoa, guztiak norberaren baitatik eta pertsonaren autonomiatik heldu baitira.

Baldintza horiek egiazkoak badira, halakotzat jotzen baditugu, orduan ados egonen gara esaterakoan ahotsa, aurpegiara, mundu afektiboa, pertsona bakoitzaren aztertzeko eta sortzeko ahalmenak askotarikoak direla, eta, horrenbestez, ezin direla erabili modu homogeneo batean edo norbanakoaren arabera xehetasunik gabe.

Erlazio horretan, esanahien munduaren aurrean gizabanakoak izanen duen irakurtzeko gaitasuna jartzen da jokoan. Ez dugu ahaztu behar irakurtzea, idaztea bezala, esanahiak sortzea dela, eta haiak geure egitea. Eta, azken batean, gauzei zentzua ematea. Horretarako, gaitasuna eduki behar da materialen multzo oso bat afektiboki eta eraginkortasunez unitate koherente eta esanahidunetan antolatzeko: horiexei, tradizioan, «testuaren edukia» esan izan zaie, baina hori baino gehiago dira.

Jardueretarako proposatzen ditugun abiapuntuak eta helmugak subjektuaren alderdi garrantzitsu batzuk dituzte aitzakia, hain zuzen ere subjektu hori testu baten aurrean suertatzen denean jokoan jartzen direnak: ahotsa, sentimendua eta sormena¹.

¹ Juizioari buruz, zeina beste funtsezko elementu bat baita irakurtzeko gaitasuna garatzeko, proposamen zehatz batzuk egin genituen *Zertarako irakurri? Ulertzeko* (Nafarroako Gobernua) eta *Lectores competentes* (Anaya argitaletxea) liburuetan.


.....

Zergatik alderdi hauek eta ez beste batzuk? Epigrafe bakoitzaren sarreran kasuan kasuko hautapenaren arrazoiak eman baditugu ere, esan dezagun hemen eta orain irakurmenaren aldagai oso garrantzitsuak direla testuetan barneratzeko eta testu horiengatik interesari eusteko. Ahotsak –barnekoa nahiz kanpokoak– soinu ezberdina du irakurlearen arabera. Ahotsak bizitasuna, intentsitatea eta esanahiaren sintaxi osoa markatzen ditu. Idatzitako hitzari ahotsa nola jartzen zaion ikuste hutsarekin irakurtzeari ekin dion horrexen sintoma intelektual eta afektibo batzuk ondorioztatu ahal ditugu. Irakurtzeko gaitasuna hezten lan egiten dutenentzat, ezinbesteko baldintza da aditzea eta entzutea nola ahoskatzen den idatzitakoa ozenki irakurtzen dugunean nola ahoskatzen den.

Batzuen esanetan sentimendua arrazionaltasunik ez duen arren, gure argumentua da sentimendua ekintza bihurturiko pentsamendu bat dela, eta, aldi berean, pentsamendua hunkipen antolatu bat dela. Hori dela eta, gure aburuz, hunkiberatasuna eta sentimendua oso garrantzitsuak dira testuetara positiboki hurbiltzeko. Hunkipenik gabe ezin da irakurketarik egon. Irakurtzen dugunak ez baldin bagaitu hunkitzen, ez da gure sentimenduetara iritsiko eta nekez sartuko gara liburu baten orrietan. Ahoskatzen dugun hitzak ez badigu barruan zirrararik egiten, ez badu gugan oroitzapen eta irudien multzo bat eragiten, irakurketaren promesa ez da gauzatuko.

Sormenak ixten du orain arte esandakoaren zikloa. Irakurtzerakoan liburuetan eginiko interbentzio dibergente bat da gure ustez. Harekin testuak hobeki irakurtzea eta ulertzea bilatzen dugu, manipulazioaren eta eraldaketaren jolasa tarteko. Oso litekeena da horixe izatea asmatu-rik sistemarik onena testuak ulertzeko, zeren eta testu horiek eraldatu ahal izateko ezinbestekoa baita haiek ulertzea, edo gutxienez ere manipulatuta eta eraldatu nahi den testu-zatia ulertzea. Irakurtzen diren testuak sormenez berri-daztea haiek ulertzeko metodorik onena da. Horri dagokionez, on da gogoratzea nola Marxek berak ere behin eta berriz idazten zituen Spinozaren testuak haiek ulertzeko.

Kontzeptu horien inguruan sortu ditugu jarduera guztiak, uneoro bilatuko baitugu irakurtzeko gaitasuna garatzea eta sendotzea.



AHOTSA





Irakurtzea arnastea da. Irakurtzen irakastea ahotsa erabiltzen irakastea da. Hori, halere, egungo eskola alorretan zaharkiturik geratu den jarduera da. Nerabeek gero eta gehiago oihukatzen dute, eta irakasleek ere bai. Zaratari egokitzea sentiberatasunaren gainbehera nabarmenaren erakusgarri tamalgarrienetako bat da. Schopenhauerrek esanen zuen jada hilotzak garena, zeren eta beste inork ez baitu zarata jasaten hilotzek baino hobeki.

Gure egitekoa da testu jakin batzuk lantzea, ahotsarekin –eta, horrenbestez, irakurketarekin– erdietsitako helburu batzuk garatzea bilatuz; izan ere, irakurketa sentiberatasunaren agerkaria da.

1.1 Arnasketa lantzeko

Edozein testu izanen da baliagarria honetarako, geure buruari irizpide eta helburu batzuk jartzen badizkiogu. Adibidez, eta hasteko, irakur dezagun testu bat inongo murriztapenik gabe, irakurle senak esaten digun moduan. Behin jarduera hori eginik, gogoeta egin dezagun testua irakurri dugun moduari buruz.

Oinarrizko jarduera erraz bat da hau, beraz, baina hura nola garatzen dugun arretaz begiratzen badugu, diagnosi oso zehatza emanen digu subjektuaren irakurtzeko egoerari buruz.

Atxagak honela jarraitzen du Ricardo Arregiren hileta elizkizunen kontakizunarekin: «Aurreneko aldiz nire bizitzan, eta orduko jende gehienaren bizitzan, txalaparta jo zen elizan, eta benetan hori ere izan zen oso harrigarria, ze ez baikenekien hura zer zen ea adierazi ziguten hau zela eta bestea zela. Baita nire bizitzan lehenengoz, nire aurrean poeta bat poema bat errezitatzan ikusi nuen, eta hori Gabriel Aresti zen...Hain inpresio bizia egin zidan, nik ia, esango nuke poema hura, ez noski hitzez hitz, baina bere ardatz nagusia, aurrena tximeletak aipatzen zirela eta gero azaltzen zela istripua, gero zapatak, han karreteran botata, eta abar, nik zehatz eta mehatz, bizi-bizi gogoan daukat. Gogoan daukat Gabriel Aresti bera aldarera igo oso modu zalapartatsuan, oso urduri irudititu zitzaidan, ahots marrantatu batekin poema hori errezitatzan».

Pedro Alberdi, *Satorrak baino lurperago*, Alberdania, 2000

Era berean, eta lehenengo eta behin, testua komarik eta punturik gabe irakur daiteke: irakurlea bera izanen da beharrezkotzat jotzen dituen pausak eginen dituena, berak testuari aurkitzen dion esanahiaren arabera. Batzuetan, zeinu horiek propio aldatzeak egoera

barregarriak sorrarazten ditu, eta halakoetan, jatorrizko testua hobetu gabe ere, diberti-garriagoa izatea lortu izanen dugu.

Atxagak honela jarraitzen du Ricardo Arregiren hileta elizkizunen kontakizuna-
rekin Aurreneko aldiz nire bizitzan eta orduko jende gehienaren bizitzan txala-
parta jo zen elizan eta benetan hori ere izan zen oso harrigarria ze ez
baikenekien hura zer zen ea adierazi ziguten hau zela eta bestea zela Baita nire
bizitzan lehenengoz nire aurrean poeta bat poema bat errezitatzen ikusi nuen
eta hori Gabriel Aresti zen Hain inpresio bizia egin zidan nik ia esango nuke
poema hura ez noski hitzez hitz baina bere ardatz nagusia aurrena tximeletak
aipatzen zirela eta gero azaltzen zela istripua gero zapatak han karreteran bota-
ta eta abar nik zehatz eta mehatz bizi-bizi, gogoan daukat Gogoan daukat
Gabriel Aresti bera aldarera igo oso modu zalapartatsuan oso urduri iruditu
zitzaidan ahots marrantatu batekin poema hori errezitatzen.

Pedro Alberdi, *Satorrak baino lurperago*, Alberdania, 2000

1.2 Artikulazioa lantzeko

Fonemak, letrak, silabak, azken batean, hitzak ongi artikulatuz mintzatzea, hizketan eta irakurketan galtzen ari den beste ohitura bat da, berdin erregistro formalean zein lagu-nartekoan ere. Hitzezko adierazpen txarraren arazoetako asko xehetasun horietan topa daitezke, hain zuzen ere seguruenik ergeltzat edo baliogabetzat jo ohi diren xehe-tasun horietan. Gaur egun ia gaizki ikusita dago hitzak zuzen eta zehatz ahoskatzea. Alabaina, zenbakiak erabiltzerakoan erabateko zehaztasuna eskatzen den bezalaxe jar-dun beharko litzateke hitzekin.

Hemen, «elkar ulertzen dugu» esatearekin dena esanda dago. Baina ez dago ez dena, ez eta esanda ere. Hitzezko zehaztasun falta guztiek, alderdi fonikoan, sintaktikoan nahiz semantikoan, komunikazio eza dakarte, eta, are okerragoa dena, gaizki ulertuak ere sortzen dituzte, eta horiek liskar eta borroka ergel ugariren abiapuntua dira.

Artikulazio egokia lantzeko, ez dago ezer hobea dauden «hitz jolas» ugarietara jotzea baino. Horietako batzuk kopiautuko ditugu, baina nahiago baduzue, ikasleekin sortu ahal dituzue.

Chingurri gorriac sartu dira
Harri beroen azpira,
Negar malcotan bildu erleac
Erlauntzetaco eztira,
Negu atarira erori da
Usteldutaco mizpira.
(...)

.....

Pippit gorriac hosto azpitan
Bidertzean zuhandorra,
Garro orriec estali dute
Itturri xulo agorra,
Moco lucea zacar tartean
Xomorrotan oillagorra.
(...)

Urbasa gaiñeco bazca
Hidoi hecean ur asca:
Basahateac murguiltzen dira
Butzuan plisti ta plasta!
(...)

Elur-haicea lurra leuntzen
Larre zuritan lausaro,
Elurrondoco belar murrizac
Basabereen uztaro,
Hillargui printzac izotz gaiñean
Etzaten dira luzaro.
(...)

Xacur xarpaxu habilla
Xaunca ta jauçi dabilla,
Artzaiac bidea seiñalatuz
Alchatzen dio maquilla.
(...)

Binbili ta bonboloca
Gure motico potoca,
Atarico larraiñean dabill
Soca lodian saltoca!
(...)

Ttuncurrucuttuna
Ene matte cuttuna,
Han, olatuac itsas baz-
terrean
Hausten du ixiltasuna,
Ttuncurrucuttuna
Hausten du ixiltasuna.
(...)

Ai ei oi ene Pepita
Cer hago nesca etsita
Ai ei oi ene Pepita
Etzanda gusto ez badun
Yar hadi ba eserita
Ai ei oi ene Pepita
Yar hadi ba eserita!
(...)

Laren loren luren
Izarrac gaur gauen
Laren loren luren
Izarrac gaur gauen
Ixillic ari dira
Cerua iruten!
(...)

Patziku Perurena, *Iraingo apaiz gaztearen kantutegi zaharra*, Iruña, Pamiela, 1988

1.3 Ebakera lantzeko

Ebakera lantzen sakontzeko, oso jarduera errazak erabil daitezke. Ezaugarri fonetiko eta sintaktiko jakin batzuk dauzkaten testu-bildumak erabil ditzakegu. Testu horiek zentzugabekeria handiak badira ere –koherentziari edo gaien garapenari eta edukien estilistikari dagokienez behinik behin, batzuetan oso behartuta baitaude–, ez dugu kezkatu behar. Bestalde, ez zaigu bereziki interesatzen testu horiek irakurtzen duenak irakurtzen duena ulertzea, hala gerta baitaiteke, irakurketa askotan ikus daitekeen bezala.

Askotan, ohikoena izaten da zuzen irakurtzea eta ez ulertzea. Garrantzitsuena, une honetan, ongi ahoskatzea da, alde batera utzita irakurtzen duguna ulertzen dugun edo ez dugun ulertzen.

ONOMATOPEIAK

Plataforman nindoala, pla pla pla, S (suge sasikoen miztoen ziztua) lineako autobus batean (burrun-barran burrun-barran), eguerdian, tan-tan tan-tan, efebo irrigarri bat, tirulirula, buru-gaineko horietako batekin zihoana, pffff, jiratu zen (jira eta bira) bat-batean aldamenekoarengana haserre, erre-erre-erre, eta esan zion: Um, um: «Nahita ari zara bultzaka, jauna». Eta ttak. Hortaz, dapa, leku bat hutsik ikusi, eta han eseri da ziztuan joanda, zanbla.

Handik pixka batera, egun berean, tan-tan tan-tan tan-tan, berriro ikusi nuen beste efebo batekin, tirulirula, tiruliruli, soingainekoaren botoiaz berbetan (brr; brr; ez zuen bada halako berorik egiten).

Eta ttak.

Raymond Queneau, *Estilo-arietak*, Xabier Olarrak itzulia, Iruña, Igela, 2005

Baina litekeena da askoz ere interesgarriagoa izatea ikasleek sortzea testu horiek, aipaturiko irizpideari jarraituz, eta, ondoren, gainerako ikasleei irakurgai gisa eskaintzea.

1.4 Linea melodikoa lantzeko

Fonetika eta fonologia ikasten ari ginenean, esaten ziguten soinu oroien ekoizpenaren jatorria bibrazio mugimendu bat dela, pausatze posizioan dagoen gorputz batean eragileren batek sortutakoa. Hartara sorturiko soinua airearen bidez transmititzen da segundoko 340 metroko abiaduran, uhinen moduan.

Gizakiaren ahoskuntza sistema horrek soinua sor dezake ahots-kordak dardaritzen hasten direnean; airea artikulazio organoetan barna bultzatzen denean, eta, azkenik, bi bide horiek konbinatuta.

Are gehiago, erakusten ziguten soinu artikulatuaren osagaiak zirela —eta oraindik ere badira— tonua, tinbrea, intentsitatea eta iraupena (soinu bat igortzen emandako denbora).

Hitz egiterakoan eta irakurtzerakoan, gure ahotsa marrazten dugu airearen orri gutxi-asko uherrean. Linea melodikoak idatziz egiten dugu hori, eta haietan tonua, tinbrea intentsitatea eta iraupena gure asmoaren eta xedearen menpe daude.

Hori esanik, galde genezake: zein da gure ahotsaren linea melodiko nagusia? Hitz egiterakoan eta ozenki erabiltzean linea melodiko bera erabiltzen ote dugu?

Saia gaitezen deskribapen horiek praktikan jartzen olerki hau irakurriz:

.....

MAISUA ETA IKASLEA
«Zoriontsu bizi nahi baduzu
ikas ezazu musika jotzen
eta irakurtzen»

«Zergatik, maisu?»

«Itsu gelditzen bazara
musikarekin poztuko duzu
bihotza,
eta artritidak
eskuak harrapatzen badizkizu
irakurriz gozatuko duzu
etsipena»

«Eta bi gaitzak batera
etorritz gero, maisu?»

«Zorte txarra litzateke, ezta?»

Pako Aristi, *Oherako hitzak*, Donostia, Erein, 1998

1.5 Erritmoa lantzeko

Erritmoa hertsiki lotuta dago gure izaerarekin eta pertsona bakoitzean oso bereizgarria da: ahotsa da jendaurrera agertzen dugun lehenbiziko elementua. Hitz egiten dugunean, ezer esaten ez badugu ere, hauxe esaten ari gara: «Hauxe naiz ni». Hain dira ahotsa eta haren erritmoa garrantzitsuak non beraiek bakarrik sor dezaketen pertsona baten erre-fusa ala onarpena, eta hori askotan oso ere zuzengabea da, zeren eta abusu metonimiko bat bai baita: zatia –ahotsa– hartzen dugu osotasunaren –pertonaren– ordeiz.

Ezin uka daiteke gure hitz egiteko moduak askotan salatzen duela nolako aldartea daukagun. Haserre nahiz alaitasun egoeretan, esaldien erritmoa guztiz ezberdina da. Subjektibotasunaren kontrola eta kontrol eza ahots-erritmo horren zirrikituetan barna sartzen zaizkigu.

Hartara, zehaztu beharreko lehenbiziko gauza da, hurrengo testua irakurtzen hasi baino lehen, nolako erritmoarekin irakurri nahi dugun: mantso, arrapaladan, zorrotz, leun, bare-bare eta abar.

METENPSIKOSIA

Afaldu eta gero Miren eta Kattalin berriketan ari dira. Hamaika gai ukitu eta gero, Mirenek zera galdetu dio Kattalini:

.....

- Kattalin! Eta hik, sinesten al dun metenpsikosian?
- Metenpsikosia? Eta zer dun hori?
- Ez al dakin? Oraintxe esplikatuko dinat. Pentsa ezan hil egiten haizela eta hilerrian lurperatzen hautela.
- Konforme.
- Pentsa ezan orain hire arima, hire gorputzetik atera eta estaltzen hauen lurrean jaiotako lorera pasatzen dela.
- Bai polita ideia!
- Imajina ezan orain, behiren batek lore hori jan egiten duela. Orduan hire arima behiaren barruan egongo huke orain.
- Bai noski.
- Eta azkenik pentsa ezan behiak lorea hausnartu eta plasta eder bat egin duela bidean. Orduan ni agertuko ninduken bide horretatik eta plastari begira, zera esango ninake: ai, Kattalin, igual-iguala hago.

Kike Amonariz. Xabier Telleria. *Txorakikeriak*. Lasarte. Zeruko Argia. 1998

1.6 Intentsitatea lantzeko

Elkarrizketan, probetxu izugarria atera ohi diogu intentsitateari, batzuetan propio eta beste batzuetan konturatu gabe. Hitz bat gure hartzailearengan bereziki eragitea bilatzen badugu, halako intentsitate batez inguratzen dugu, oharkabean pasa ez dadin. Gauza bera gertatzen da idazten dugunean, nahiz eta erabiltzen ditugun sistemak bes-telakoak izan.

Intentsitatea intentzio baten emaitza da. Eta hartaz zenbat eta kontzienteago izan, orduan eta hobeki, zeren eta kontzienteago izanen baikara erabiltzen dugunean. Intentsitatea ironiaz tindatu daiteke, edo sarkasmoz eta, praktikak erakusten duen bezala, era guztietako zolitasunez.

Jarduera oso erraza da. Esaldi batetik abiatuko gara. Esate baterako:

Hitza zilarrezkoa bada, isiltasuna urrezkoa da.

Ondoren, ahotsaren intentsitatea aldatuz errexitatu behar da, isil-isilka hasi eta oihuka bukatu arte, bitarteko aukera guztietatik pasaz: xuxurlaka, murmurioka, ahots apalez, hizketa normalez, ozenki, oihuka.

Olerkiak boz goran irakurtzen dituztenak itxurakerian eta pedantekearian erori ohi dira, halako «pedantekearia foniko batean» alegia. Litekeena da hori zor izatea, agian, lehen-dik ahotsaren intentsitatea ez lantzeari, kasuan kasuko olerkiaren izaera formalari eta edukiari egokitzeko. Are gehiago: olerkariak berek ere, beren olerkiak irakurtzen dituztenean, ez dituzte zuzen irakurtzen. Batzuetan, olerkian jarri nahi dute olerkiak berez

.....

ez duena, ahotsean tonu, erritmo eta intentsitate behartu eta faltsuak jarritz. Eta ohar-tarazpen honekin ez gara esaten ari musikaltasuna ez denik olerkiaren indarraren hirurogeita hamarra edo.

Eta olerkiez ari garela, ea nola irakurtzen dugun hurrengo, azpimarra jarritz intentsitateari buruz esan berri dugun horretan.

NIK BADITUT MORTUETAN

Nik baditut mortuetan²
Ardiak artzan orekin³,
Katalonian ehun mando
Zilar bulunbarekin⁴,
Itsasoan hamar ontzi
Ehun marinelekin;
Ahal baduzue emaezue
Frantziakoa Errege;
Frantziakoa ezpada ere
Espainiakoa bederen.

R. M. Azkue, *Cancionero Popular Vasco*, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca, 1968,
Urrotz herrian jaso, Jose Antonio Arrietari

1.7 Intentsitatea distantziari egokitzeko

Batzuek, konturatu gabe, oihu egiten dute hitz egiten dutenean, haien mintzakidea gorra balitz bezala edo ahots-bolumenaren irismenetik kanpo balego bezala. Argi dago pertsona horiek ez dutela sekula gogoetarik egin ahots-intentsitatearen eta distantziaren arteko erlazioaz. Ez legoke gaizki, beraz, pertsona horiek hurrengo ariketa egitea, zerikusi handia baitu inteligentzia soziala deitu dezakegun horrekin.

Paretatik distantzia jakin batera jarri behar da. Arreta handiz begiratu behar zaio norberaren ahoaren parean dagoen puntu bati. Hatz-mamiekin puntu horretan laztan egiten dugu gero. Arnasarekin puntu hori dagoen aldea leuntzen saiatuko gara. Arnas kolpeak gero eta ozenagoak eta etenagoak izanen dira. Orduan, hasi *a* bokala ahoskatzen ia ez entzuteko moduan. Gero eta ozenago jarraitu harik eta potentzia handiko, paretan zuloa egiteko moduko oihua egin arte.

Pareta haustea lortuko ez duzunez, hasi prozesua alderantziz, eta jarraitu hatz-mamiekin paretako puntuan laztan egin arte.

- ²Basamortu.

- ³Artzakur.

- ⁴zintzarri.

1.8 Erregistro ezberdinekin irakurtzeko

Kontuan izan proposatzen dugun testua bakarriketa bat dela. Horrenbestez, irakurri aurretik hobe da pertsonaia ezagutzea, haren ezaugarriak eta haren balizko adierazpi-deak aztertzea, betiere gehiegikeriatan hasi gabe. Ziur egon pertsona urduri batek bel-dur antzean irakurriko duela testua, bere bizitzako egunak ate-joka dituela ongi dakien beste batek eginen ez lukeen bezala. Baina auskalo. Ez baita bakarrik Chejoven ipuine-tan gertatzen jendeak bere buruaz beste egitea loteria tokatu eta ondoren.

Nik pentsatu izan diat adiskidetasuna bizkien batasun halabeharrezkoaren antzeko lotura dela. Bokazioen, sinpatien, gustuen, ikasbideen, zirraren berdintasan bitxi horrek lotu egiten ditik bi pertsonak, eta patu berdina ezartzen ziek. Bestearen aurka eginak egin, atarramendu berdina izanen ditek. Noranahi ihes eginda ere, garrantzizkoak jakinen ditzitez elkarri buruz. Adiskide edo mai-tale berriren bat hautatzen dutela, ez dituk elkarrekiko loturez askatuko, ez bada bestearen baimen ezkutuko eta isilbidezkoaz. Horien patua hori duk, elkarren parean ibiltzea, bat bidetik baztertu eta oso urrun joanagatik ere, tro-pikora esate baterako. Hori guztia ibili nian buruan, arretarik gabe, hire gelan, ihes egin huen egunean. Une hura garbi-garbi diat, begien aurrean ditiat etxe-ko argiak, tabako ingelesaren usain lodia aditzen diat, altzariak ikusten ditiat, sortaldeko tapizez estalitako dibana, paretetako zaldizkoen irudi apaingarriak. Ardo koloreko besaulki batez oroitzen nauk, erretzailen gelan egoten baitzen. Diban hura handia zuan, nabari zian neurrira egina zela, inguruotan ez baita horrelakorik egiten. Zabaltzean birentzako ohe bihurtzen zuan, frantses estilora.

Sándor Márai, *Azken hitzordua*, Xabier Olarraren itzulpena, Iruña, Igela

1.9 Era ezberdin batez irakurtzeko

Testu bat irakurtzeko modu ohikoena eta arruntena da zutik edo eserita egotea testua begietatik 40 cm-tara edukita.

Dramatizazio egoeretan, askotan, keinuak, mugimenduak eta jarrera bereziak behar dira, zerikusirik batere ez dutenak irakurtzeko modu ohiko eta arruntekin.

Hori aprobeztatuta, irakurketa neutroa proposatuko dugu, hau da, ahal den intonazio konnotatibo gutxiena erabiliz, baina keinu eta gorputz-jarrera ez ohikoekin.

Egia da jarduera hauek guztiak jokotzat har daitezkeela, eta artifizioso samarrak ere badirela. Hala eta guztiz, nolabait pertinenteak direla ere esan daiteke. Horietako baka-rra ere ez dago atal honen asmoetatik urrun: ahotsa eta haren intentsitatea eta erri-tmoa espazioaren eta egoeraren arabera konjugatzea. Arlo horietan ahotsa menperatzea borondatez eta asmoz baizik ez dugu lortuko.

.....

Ziur naiz jarduera honetan parte hartu nahi ez duenak barregarri gelditzeko beldurra duela. Eta barregarri sentitzea, askotan ederki entenditutako apaltasun batetik heldu bada ere, ez da bateraezin suertatzen norberari buruz barre egitearekin.

Irakurri testua ahoz behera dugula, alde batera

.....

Denak igo dira ontzi gainera. Hamabost gara, zenbatu egin ditut. Nire ontziak, sabela uretan hondoratua, ohi ez bezalako irudia eskaintzen du. Badirudi urpera joango dela. Badirudi lanpernaz jositako botila bat dela, uretan hara-honaka. Gehientsuenak neskatalak dira. Niri, ustez, bitxia irizten didaten neska maratzak. Lehen konplexuak eta lotsak azkar bazterturik, ontzi barranean egokitu dira, eta han-hemenka txulomiatzen dabilta, beren begirakune xarmant, xalo, sarkor eta maleziatsuearekin.

Isiluneak. Elkarren ezagutzak egiteko beharrezkoak diren minutu gutxi horiek. Laster; baina, ukalondokada eta bultzakda artean, irriño ezkutuak, imintzio labur eta urduriak, eta denok laketu egin gara. Ez dago kabinan sartzerik, baina bai atsegina hara barnera begiratzea. Hutsune eta bakardade guztiak gizatasunez bete dira, beso biribilez, esku tinkatuez, bernez, soinekoez, begiez eta alkon-darak gainezkatzen dituzten bularrez. *Monoi* usain dago, landa loreekin urrindutako koko olioaren usaina.

Irri karkailak, eta karkaila gehiago, gozotasuna, sena eta kitto: bizitza, egon, hemen dago.

Tamure, tamure, mure, mure.

Mure, ta.

Eguari, eguara.

Gauerdia da, Tapaeruri begirakune konplizea josteko ordua; neskatala liraina da, marrazten dakiena, *tiare* eta *ibiscuak* eta begi beltz handiekiko haurren begitar-teak marrazten dituen.

Gainerako guztiei *iaorana* esateko ordua da.

- *laorana...*

Patxi Zubizarreta, *Pospolo kaxa bat bezala*, Iruñea, Pamiela, 2005

Irakurri oinez goazela alde baterantz, atzerantz, poliki, azkar

.....

HAUTESKUNDE SASOIA

Hauteskunde sasoi zen eta euli ttipiak mitinera joan nahi zuen.

- Ez, inondik ere ez! –esaten zion euliamak– zer axola zaizkizu zuri politika arazoak?

- Giza ohiturak ezagutzeko, ama, eta gainera hor mitinotan jendea saldoka biltzen da, batzuk merienda eta guzti joaten dira, berotzen direnean izerditan, eta gureztat ba zer jan eta zer edan izaten da, han ogi birrina, hemen izerdi anpulu...

- Baina, umea, ez da txantxetako gauza, mitinak! Mitinak oso arriskutsuak dira gero!

- Ez, amatxo, ene lagunak ere joaten dira!
- Eta tiro batek jotzen bazaitu, gure aittiten anaia erreketek eta milizianoek batzuek batetik eta besteek beste aldetik harrapatu zutenean bezala? Makina bat euli hil da gero jendilaje horren gerla zibiletan.
- Ama, eske ez dut ulertzen, hauteskundeak dira, ez gerla, hor ez da tirorik izango.
- Beno ba, baina kontuz txaloeekin.

J.Sarrionandia, *Miopeak, bizikletak eta beste langabetu batzuk*, Donostia, Erein, 1995

Irakurri ahoz behera etzanda, ahoz gora etzanda, lo egiteko posturan

GERLA HANDIA

Bigarren Gerla Anidaren sasoia, Bronislaw Malinowski antropologoa melanesiar itsasoetako irla tipi batean indigena gizajale batekin solasean ari zen.

Indigenak, misionero eta ofizial inglesen bidez entzuna zuen gerlaren berri, bazekien hilak milioika kondatzen zirela, eta antropologoari galdetu zion ea zelan zen posible europarrek hainbeste giza haragi jatea.

Malinovskik, harriturik, europarrek ez dutela etsai hilik jaten erantzun zion. Orduan gizajale harek, are harrituago, izaturik, antropologoari galdetzen zion ea zer jende gaiztoa zen hura, gorpuak jateko asmorik gabe hiltzeko gauza zena.

Joseba Sarrionandia, *Hitzen ondoeza*, Tafalla, Txalaparta, 1997

Guztiok albokoaren testua irakurri (inork ezin izanen du bere testua irakurri)

BENETAKO ISTORIA

Gizon bati antiojuak lurrera erori zaizkio, harlauzen kontra jotzean zarata izugarria eginez. Gizona makurtu egin da, oso penaturik, antiojuen beirak gares-tiak baitira oso, baina harriturik ohartu da, mirariz, ez zaizkiola apurtu.

Orain gizonak esker on sakona sentitu eta gertatutakoa abisu lagunkoizat hartu du; beraz, optika etxe batera joan eta larruzko estutxe akoltxatu babes-garri bikoiztuna erosi du, zer gerta ere. Ordubete geroago, estutxe erori zaio, eta kezkarik gabe makurtzean ohartu da antiojuak hauts eginik geratu direla. Gizonak tartetxo bat behar du konprenitzeko Jaunaren bideak igartezinak direla eta benetako miraria orain gertatua dela.

Julio Cortázar: Benedetti, Cortázar, Galeano, Monterroso, *Istoria Hiperlaburrak*, Gerardo Markuletak itzulia, Donostia, Erein, 1995

Ahal duten guztiek testu bera irakurri

EREMU KOSMIKOETAN

Espazio sideral ia hutsetan zehar, bakardade amaigabeetan barrena oso urrun, bi astronauta nabegazio urteen ondoren...

'Zerbait aurkituko genuelakoan abiatu ginen eguratsean zehar, eta dena hutsa, eta dena hutsaren hurrengoa baino ez! Urte eta urteetan espazio mortuotan barrena eta ez dugu ezer aurkitzen'.

'Ez dugula ezer aurkitu? Lehengoan ez zenidan ba esan amaierarik gabeko espazio hauetan zeure burua tipi-tipia aurkitzen duzula...'

Joseba Sarrionandia, *Miopeak, bizikletak eta beste langabetu batzuk*, Donostia, Erein, 1995

Irakurri begi bat edo sudurra estaliz, edo begia eta sudurra aldi berean estaliz

TRIKUARENA

Zinemara sartu naiz. Eseri, eta pantailari begira gelditu naiz, isilik, iluntasunean. Ezezaguna zait oro: jendea, hezetasun sarkorra, izkinako argi gorrista hori. Batean, beste denbora batean sartu naiz; pauso bakar batez iragan ditut mugak eta geografiak; hautsi, beren baitan bizi diren irudiak; eta ez naiz ohartzen (zala-partaka edo oihuka) bakarrik utzi nautela, aretozaina garrasika dudala, eta pantailatik irten den automobila gainera datorkidala.

Karlos Linazasoro, *Ipuin Errotikoak*, Irun, Alberdania, 2001

Irakurri belarri bati buruaren atzeko aldetik heltzen diogula

KAIOLA

Haurra kexu da, kaiola tipi bat du eta zazpi txori oparitu dizkiote. Ia negarrez dago, kaiola ttipiegia delako.

- Txoriak ez dira hor kabituko.

Aittitek, betaurrekoak sudur gainean, egunkaria leituz:

- Kaiola nahiko handia iruditzen zait!

- Zazpi ditut eta ez zaizkit kabitzen, ez dut nahi!

Aittitek azkenean:

- Munduko txori guztiak kabitzen dira hor; kaiola zabalik eta txoriak libre uzten badituzu.

Joseba Sarrionandia, *Hitzen Ondoeza*, Txalaparta, Tafalla, 1997



Irakurri lurrean hiru puntutan bermatuta gaudela

SOLDADU MONGOLIARRAK
Bigarren Mundu Gerra bukatzeaz: Italia.
Soldadu mongoliarrak
Bi aldeetan borrokatu ziren;
Sobietarrekin hasi, gero alemaniarrek preso hartu
Eta hauen armadan sartzera behartu zituzten.
Orain alemaniarrek atzera egitean
Abandonatu egin dituzte mongoliarrak.
Etsaiak hartuta, kamioi baten jabe egin dira.
Biharamuneko ihesari adorez ekin baino lehen
Erabaki dute apirileko gau epela profitatzea.

Ez da erreza izango sorterrira itzultzea
Kontinentean barrena. Ezinezkoa ia.
Jopu dira galtzaileentzat,
Traidore irabazleentzat.
Ebatsitako likore botiletatik dzanga eginez
Kantuan aritu dira gau osoan.

Goizalban kamioia abantean jarri,
Atzealdera igo eta
Po ibaira amilarazi dute.

Han ito dira denak.

Kirmen Uribe, Bitartean heldu eskutik, Zarautz, Susa, 2001

Irakurri lurrean oina ez den puntu bakarra pausatua dugula

Lesion epistole	Regarien Roble
Un fraile marmote	Leraren petit
Bostan tirulete	Dugiun muxiomundiu
Viva sonete	Nabala gutti sorrostu
Bosten maridon	Munduko sorrostalik onena
Chauli Chauli	Sarako aldera
Chauli mi mairu	Sego kolunta
Chauli mi armot	Rikiti plau
Bordina sin flor	Arrete levu

*Berako erranera zaharrek, Zia taldea,
Berako Euskara Batzordea, Bera*

Irakurri lagun batekin bizkarrez bizkar jarririk

Etsi samar, nekatu antzean, baina estetikoki sendo, lehengo bizimodu lasaiari ekin zion berriz ere, bere bigarren dohaiari, umoreari, gero eta leku gehiago eginaz. Mundua aldatzerik ez bazuen, barre egingo zion behintzat, honela bederen nagusitasun intelektuala lortuko baitzuen. Nonbait irakurri zuen, eta sinistu, barrea osasun moralaren seinale zela; eta pozik egiten zuen barre, Liliaren ezkontzak poza betirako ilundu zuen arte. Italia, edertasunaren herria, itsusitu egin zen. Italiak ez zuen bertako gizaki eta gauzak aldatzeko gaitasunik izan. Italiak ere erna zitzakeen diru zalekeria, mokorkeria, ergelkeria eta, are okerrago, baita arrunkeria ere.

Edward Morgan Forster, *Aingeruak nekez ausartzen diren tokia*,
Idoia Santamariaren itzulpena, Ibaizabal, Euba, 1992

Irakurri asmatutako elementuen gainean ibiliz: harea, elurra, lohia, urak

ISPILUA

Behin batean laborari batek hiriko azokara joan behar zuen eta emazteari galdetu zion ea ze opari nahi zuen hiritik ekartzea. Emaztea zer aukeratu jakin ez eta arratseko ortzeruntz begira geratu zen eta, laborariak ilargia nahi zuela pentsatu zuen.

Biharamun iluntzean, hiriko zereginak iadanik bukatuta, denda aurreko mahaian salgai zegoen ispilu batean ilargi ikaragarri eder bat ikusi zuen. Ispilua erosi eta, laboraria pozik itzuli zen etxeruntz.

Oparia emandakoan, baina, emaztea negarrez hasi zen:

- Iadanik ez nau maite, beste andere bat ekarri du –esaten zion emazteak bere amari.

Emaztearen ama beste emakumea begiratzearekin batera lasaitu zen:

- Ez arduratu, andere hori zu baino zaharragoa eta itsusiagoa da.

(Antigualeko ipuin txinoa)

Joseba Sarrionandia, *Hitzen ondoeza*, Tafalla, Txalaparta, 1997

Ariketa horiek guztiak egin ondoren, gure buruari galdetuko diogu guztietatik zein iruditu zaigunena (erosoena, harrigarriena, politena: bakoitzak bere iritzia araberako izenondoa aurkitu beharko du).



1.10 Irakurri hartzaile ezberdinentzat

Agian ez diogu xehetasun horri erreparatu, baina argi dago ezberdin hitz egiten dugula mintzakide dugun pertsonaren funtzio edo esanahi sozialaren arabera, eta, baita ere, hitz egiten ari garen lekuaren arabera. Xehetasun horri erreparatuta, kontzientzia hartuko dugu komunikatzeko asmoaren, hartzailearen eta hitzezko transakzio horiek gertatzen direneko leku sozialaren arabera. Hori dela eta, ez dugu berdin irakurriko irakurtzen ari garen lekua ez badugu ezagutzen, eta sozialki guretzat arrotzak diren hierarkizazio baldintzak exijitzen badizkigu.

Irudika ditzagun, lehenbizi, leku sozial ezberdinak eta balizko entzule ezberdinak. Ondoren, finka ditzagun tonua, bolumena, intentsitatea eta, azken batean, asmoa. Gero, irakur dezagun ondorengo testua irudikatu dugun hartzailearen arabera.

Hazi, ume guztiak hazten dira. Denak, bat salbu. Gainera, umeek laster jakiten dute haziko direla. Wendyk, esate baterako, holaxe jakin zuen. Egun batean, urte bi baino ez zituenean, lorategian zebilen jolasean; lore bat hartu eta amarengana joan zen arineketan, lorea erakustera. Suposatzen dut Wendyk itxura xarmagarria izango zuela, ze Darling andreak eskua jarri zuen bihotzean eta esan zion: «ai! Zergatik ez ote zara hain goxo geratzen betiko...» Horixe izan zen, horixe eta besterik ez, euren artean gertatu zen guztia, baina ordutik aurrera Wendyk argi jakin zuen hazi egingo zela. Urte biren ostean, beti jakiten duzu. Bi urteak dira amaieraren hasiera.

James Matthew Barrie. *Peter Pan*. Itzulpena: Julen Gabiria. Alberdania & Elkar: 2004

1.11 Soinuak eta letrak manipulaturak irakurtzeko

Antzerkiaren edo dramatizazioaren arloan egiten diren ariketa batzuk baliagarriak izan daitezke gure helburua lortzeko, alegia, ikasleak ahalegina egin dezan ahotsa eta zerebroa, komunikatzeko asmoa eta ahoskera koordinatzeko.

Ariketa hauen alde ona da aukera ezin hobea direla azken aurreko aldiz barregarri izatearen sentipena burutik kentzeko, eta horrela hasten da bat, jakin gabe, hitza, eta horrenbestez, irakurketa, modu kontzientean menperatzen. Azken batean: bakoitzak nahi duena egin dezake irakurtzen dituen hitzekin. Hori gertatzen zaigunean, irakurriaren ulermen esanahidunaren maila gorenean egonen gara.

Aurpegiarekin ahal den keinu arraro eta berezienak egin

Azpimarra jarri behar da masailen, ezpainen, masailezurren eta, oro har, ahoaren erabileran, ariketarekin nahi genituen helburuak lortzeko. Horrelako ariketak egiteko ohi-turirik ez badute, pertsona batzuek deseroso eta, batez ere, barregarri sentituko dira.

.....

Denbora pixka bat eman behar zaie, edo bestela, bakarrik daudela saia daitezke keinu horiek egiten, jartzen dituzten ergel aurpegiak inork ere ez ikusteko.

Maskara

.....

Bikoteak egin. Batek maskara bat egin eta besteak hura imitatzen ahalegindu behar du. Aldizka, maskarak egiteko hurrenkerari buelta emanen zaio. Komenigarria da keinuei segundo batzuetan eustea (horixe baita maskara bat egitea), imitazioa errazago egin dadin.

Letrekin

.....

Lehenbizi orrialde bat aukeratuko dugu, norberaren gustua beste irizpiderik eduki gabe. Guk hauxe bilatu dugu:

Liverpool, 1814ko urriaren hamazazpia, *Acushnet* itsasuntziko marinelek ez zekiten zein zen heuren bidaiaren helburua, Afrika hegoaldetik iragan behar zutela salbu. Beltzez jantziriko agure batek, "deabruarekin itsasoratzen bahaiz berarekin egin beharko duk bidaia" esan zion grumeteari, kaian, baina mutikoak ez zion errefrauari garrantzirik eman. Eguerdirako belak zabaldu eta, haizea aldeko, abiatu ziren hegoalderantza.

Joseba Sarrionandia, *Narrazioak*, Donostia, Elkar, 1984

Ondoren, orrialde bera ondoren adierazitako aldagaien arabera irakurtzea proposatzen dugu:

- Soilik bokalak nahiz soilik kontsonanteak irakurriz. Ez letraren izena, haren soinua baizik.
- Erritmo sinkopatuarekin, hots, ligatuarekin, irakurriz. Kontua da hitz edo letra baten amaiera hurrengoarekin lotzea. Emaizta nahiko zail eta ulertezina da, baina baliogarria da irakurleak ikusizko eta entzunezko arreta jartzeko hitzak osatzen dituzten letra guztiei, eta, batez ere, haien amaierari eta hasierari.
- Elementu guztiak kontraste bidez biziagotuz: bolumena, tonua, abiadura eta tentsioa. Horietako bakoitzak ondoko ezaugarriak har ditzake: bolumena: ozena/apala; tonua: behekoa/goikoa; abiadura: azkarra/mantsoa; tentsioa: erlaxatua/tentsionatua.



Hartara, bada, testu baten lerrokada ozenki irakurriko da, eta gero behe-tonuarekin; edo, lehenbizi azkar eta gero mantso. Saia gaitezen ondoko testuarekin:

NAPOLEONEN BIDIA (Benabarreko eskuaraz)

Mintza giten azkenekotz «Napoleon'en erregebideaz».

Napoleon gizon adimendu haundikoa zela, ausarta eta kalipuduna anitz egitatetan⁵ ezagutzen da.

Espainiaren beretzeko, Orreagatik sartu zen. Bainan etzuen Luzaideko bidia hartu, zeren eta erreka hertsu hura iragan eta Ibañetako lephorat igaiteko toki egokia zelakotz etsairentzat; gain behera mehargune hartan kenka xar baten beldurrez.

Gogoratzen zaio bide zabal baten egitea Doniane Garazitik, Eiharalarren gaindi, kasik zelaia, maldarik gabe, Astobizkar mendi ondoraino. Eta horrarat helduz geroz,...«yautsi» zen Ibañetako lephoraino, eta handik behiti Orreagarat. Axeri zaharrak etsaiaren lurretan sartzeko etzuen maldarik igan nahi izan. Ez petik gora, bainan gain behiti sartu zen uholde bat bezala Auritzeko zelai nasai hartan.

Eta ze bidia harek egin ziena! Oraiko ikhusten ahal da guti andeatua.

Bere kanoi handiak, gudulari osteak eta gudu tresna guziak handik pastu ziren nekhe izpirik⁶ gabe.

Bidia, yakina, belhar eta sorhopilez, estalia da orai bainan behor, behi, eta ardiენტzat ze alhapide ederrak ze bazka goxoak han dabilzan athaldeentzat!

Bide hori ikhusten dutenek, hogoita hamar kilometra luzetasuneko, harritzen dira ze burua zuen Napoleonek eta ze gizonak zituen bere ondoan, orai ehun eta hogoi urthe, holako lan gaitz baten egiteko.

Enrike Zubiri «Manezaundi», *Artikulu bilduma*, Rosa Miren Pagolaren edizioa, Bilbo, Klasikoak, 1990

- Arestian aipaturiko elementuekin konbinazioak eginez. Esate baterako, lerrokada bat irakurri «mantso, behe-tonuarekin eta modu elaxatuan» edo «ozenki, goi-tonuarekin eta azkar».
- Konbinazio horiek pertsona batzuen hitz egiteko moduarekin ere lotu daitezke. Hartara, tropei arenga egitean militar batek ozenki, tentsio handiz, azkar eta zorrotz hitz egiten badu, nola irakurriko luke hurrengo testu-zatia?

Mapa begira nago. Hartu beharreko bidegurutzeak hemen nonbait behar du, ez urrun. Herria pasatakoan, oraindik kamioian fruta sartzen ari direnengana hurbiltzen naiz. Haurrak gerturatu zaizkit *helloka*, eta adinekoek baino ingeles hobeia izanen dutenez, euren galdetu diet. Herrira iritsi aitzin dagoen bidegurutzea hartu behar omen nuen. Haurrek adierazitako bideak ez du asfatorik, eta badaezpada ere, helduei galde eginen diet. Ongi zebiltzan haurrak. *Xie xie* erran diet emakumeei, eta grazia egin die, nonbait, nik mandarinez eskertzea.

- ⁵ **Egitatetan:** ekintzetan.

- ⁶ **Izpirik:** pitinik, apurrik.

.....

Irribarrearekin bat, mandarina bat luzatu dit emakumeak, eta eskura ematen zidan bitartean, bertze bi eskaini dizkit. Deus gehiago ez du emakumeak, baina duen hori nirekin partekatzeko prest dago.

Jon Abril. *Helloak Txinan*. Txalaparta. Tafalla, 2003

■ **Tonu monokordea erabiliz, esaldien bukaera markatu gabe. Goranzko amaierarekin nahiz beheranzko amaierarekin.**

«Entzun duzu, Lucas, 4.000 milioiko koadro bat. Alegia, tipo bati enkargua egin ziotela XVI. edo XIV. mendean. Carlos, Felipe edo Duncan erregearen ilobari erretratu egin behar ziola. Eta Carlos, Felipe edo Duncan erregearen iloba zatar-zatarra zen; edo zatarra ez, demagun ez zela fotogenikoa. Eta enkargua jaso zuen tipo hori ez zen, jakina, tipo arrunta: pintore famatua zen, are famatuagoa XXI. mendean. Baina koadroa ganorarik gabe egin zuen, zazpi egunez egon zelako beherakoak jota, edo seme bat hartu ziotelako gerrarako. Eta orain Kultur Ministerioak erosi du koadroa –telebistak esan du: 4.000 milioi–, hiru urteko ume batek ere baitaki zein inportantea den patrimonio kulturala; horrexegatik ez dizkie uzten eskolako lagunei plastilina berdez egiten dituen labezomorro abstraktuak. Horrexegatik eta ez dizkiotelako 4.000 milioi ordaintzen».

Unai Elorriaga, *SPrako tranbia*, Donostia, Elkar, 2001

Hitzak silabaz silaba moztuz

Badirudi ariketa erraza dela, baina ez da. Hura praktikara eramateko mekanika, berriz, bai da erraza, baina arretarik handiena eskatzen duenez, kontua zaildu egiten da pixka bat. Bereziki irakurtzen duenak ez duenean asmatzen silabak ongi bereizten, hiato, dip-tongo edo triptongoen kasuan. Horrenbestez, ez da itxurekin fidatu behar, engainatu egiten baitute, itxurei ongi erreparatzen ez diegunean, maiz alegia.

Isats, iz. Animalia bazarrezumaren atal bat, bere muga naturalak gainditu dituen bere mundu propioan existentzia beregaina izateko. Umegai egoera alde batera utzita, Gizakiak ez du isatsik, eta gabezia horretaz jabetzeak sortzen dion ezinegon heredatua nabaria da gizonek jaka atze-luzeak eta emakumeek soineko isastunak janzteko duen ohituran, eta baita isatsak egon beharko lukeen, eta dudarik gabe behinola egoten zen, janzkien alde hori apaingarriz betetzeko joera nabarian ere. Joera hori nabariagoa da espezieko emeagan, haren baitan arbasoekiko lotura estuagoa eta iraunkorragoa baita. Lord Monboddok deskribatutako gizon isastunak gaur egun irudimenak sortutzat hartzen dira; izan ere, orduan irudimenak gure tximino garaiko urre-aroan gertatu ziren eraginak aiseago bereganatzen zituen.

Ambrose Bierce, *Deabruaren Hiztegia*, Xabier Olarraren itzulpena, Euba, Ibaizabal, 2000

Hitzen amaierako edo hasierako silabetan azentua jarritz

.....

Aurreko jardueretan bezala, arreta eta zehaztasun handia behar da. Halakorik ez bada, nahasmenduan eroriko gara behin eta berriz.

Baina, egin ahal dut besterik? «Irten zaitez kanpora eta elkartu lagunekin eta ondo-ondo pasatu» esan ohi dit jendeak. «Ez zaitez hor eserita geratu, bakar-bakarrik, zeure burua dramatizatzen». Neure burua dramatizatzen? Baldin eta drama bat balitz bezala oinaze etengabeak....ez, «*atsekabeak, euri atergabea bialitzan*», kolpatzen didala bihotza, orduan neure burua dramatizatzen arituko nintzateke. Jende arrunt azalekoak, jende xumeak, zer ote daki oinazeak dakarren sufrimenduz? Ez ote dakite, kaiku burugabe horiek, ezin ikus ditzakedala berriro gu biok elkarrekin ikusi ohi genituen lagunak, ezin itzul naitekeela gu biok elkarrekin izandako tokietara? Hark alde egin baitu eta gure artekoa amaitu egin baita. Amaitu egin da, amaitu egin denez. Kito betiko. Eta, amaitu denez gero, atsekabetzen nauten toki horiexek baino ez zaizkit gozagarri. Eta gure zorientasunaren lekuko izandako tokietara joaten naizen oro berriro bisitan, oinaze lazgarriak erdiratzen dit bihotza.

Dorothy Parker, *Hona hemen gu biok*, Mirentxu Larrañagaren itzulpena, Alberdania& Elkar, 2005

Testuaren puntuazioa kenduz eta beste bat asmatuz

.....

Jende guztiak daki zeinen zaila den puntuazio-markak bikain erabiltzea. Gerta liteke munduan ez topatzea testu bat ongi eta patxadaz aztertu ondoren akatsen bat izanen ez duena, koma, puntu eta koma, puntua eta bereiz eta, azken batean puntuazio-marka ohikoenak oker erabilia egoteagatik. Komaren kasuistika, esate baterako, izugarri konplexua da. Gogora dezagun K. Kraus idazle austriarraren kasua, zeinak aitortzen baitzuen gau eta egun «komen aurkako gudu titanikoak» edukitzen zituela. Horrenbestez, koma soil bat erabiltzea zaila bada, zer esan esaldiaren gainerako osagaiei buruz: aurrekarien eta atzekariaren arteko komunztaduraz, esate baterako. Ez dago idazle bakar bat ere, bereziki eleberrigilea bada, gramatika araren bat urratzen ez duenik, arau oinarritzkoenak barne direla. Egia esan, gutako inor ez dago libre burugabekeriaren batean erortzetik gramatika konturen bat gaizki erabiltzeagatik, ezta Lafitte bera ere.

Emaztea Baionan hil zitzaion 1917ko uztailan: hunen azken urtheak biziki hitsak izan ziren: gaixo Marianak ezagutza galdua zuen: ez zen deusetaz orhoit; etxeakoak ere ez zakienez ziren. Aise asma ditake Piarresen bihotzmina hain zen bera goxo, maithagarri eta arthatsua.

Pierres Lafitte, *Euskal literaturaz*, Patri Urkizuren edizioa, Euskal Editoreen Elkarte, 1990

.....

Fonema jakin batzuk indar handiz ebakiz


Fonema batzuk aukeratu baino lehen, komenigarria izanzen litzateke testuari berari begiratzea eta antzematea zein diren hartan maizen erabiltzen diren fonemak. Behin haiek seinalatu ondoren, horietan ahozkatu ditugu indar handiz.

Negua hasi bezala eta lehenbiziko hotzekin batean, derbitxe alderraiak agertu ziren alde guztietan. Ikusiak omen zituzten bide nagusian, *Bi Roberten Ostatuan*, eta are urrunago, Sukarren Harkaitzean bertan ere. Ondoko printzerrietatik ailegatzen ziren bidaiariek gauza bera, haietan ere barrundatu zituztela esaten zuten, eta turkiar derbitxe horiekin aspaldiko Egnatia bidean topo egin zutela ere bazioten batzuek. Talde txikitik, binaka, baina bakarrik gehienak, bide sailak egiten zituzten, batere oinetakorik gabe, eta oinak berak lohiz estaliak zituztela.

Neronek ikusi nituen bi atzo goizean oso garaiz, bidean bakar-bakarrik, beren itxura arin horretan, bata bestearengandik bi pausotara lerroan ibiliz, eta, haien zarpa zahar negu-haizeak erantsi hautsarekin orbanduei begira barrura eginik, zera lehertu zitzaidan doi-doia oihuka: zergatik, ordea?

Derbitxe alderraiok zer dira eta zein arrazoiengatik agertu dira penintsula honetan, negua hasten eta, alde guztietan batera?

Ismail Kadare, *Hiru arkuko zubia*, J.M.Arzallusen itzulpena, Donostia, Elkar, 1994



2

SENTIMENDUA



Sentimendua nabaritzen dena da, hau da, gorputzean gertatzen den zerbaiten kontzientzia izatea. Afektuen izen arrunta da, afektuak iraunkorrak baitira (emozioak ez bezala) eta izpirituari edo adimenari baitagozkie gehiago gorputzari edo zentzumenei (ez sentsazioei) baino.

Afektu hitzaz izendatzen ditugu, bada, sentimenduak, pasioak, emozioak eta desirak; hau da, atsegina edo ezatsegina izateagatik gugan eragina duen guztia.

Hartara, bada, sentimenduak, afektuak, korrante afektiboak, identifikazioak, fobiak, zaletasunak, alegantzia, tristezia, bortxakeria, nazka, maitasuna, gorrotoa, emozioak, sentsazioak... izanen dira atal honetan irakurtzeko jaso ditudan proposamenak eraikitzeko erabiliko dudan fondoan.

Gauza jakin eta onartua da gizakiak iraultza bat sentitzen duela irakurketaren lur zabaletan sartzen denean. Hainbeste non irakurle-sentimenduz ere mintza gintezke.

Ezin dugu ahaztu subjektuaren inteligentziaren faktorearekin hertsiki lotutako sentimendu bat dela, zeren eta, niri behinik behin, ez zait batere erraza egiten zerbait sentitzea hori bera ulertu gabe. Testu bat ez baldin badut ulertzen, ez dut axolagabetasuna baizik sentitzen.

Hori dena esanda, ohartarazi nahi nuke ezen ondoren datozen ariketekin ez dudala irakurlearen afektuen mundu nahasi nahiz lasaia ezertarako ere orientatu, modelatu, orekatu edo lasaitu nahi izan. Nire helburua ez da irakurketa bihurtzea halako kabinete psikologiko bat edo psikoanalisisirako diban bat.

Lehenbizi, nire ustez irakurketak ez duelako subjektuaren inongo arazo afektibo edo sentimentalik konpontzen. Oso zabaldua dagoen uste baten arabera, irakurketaren bidez gizakiak bere gaitz guztiak senda ditzake, horien barne dela baimena eman gabe jario izanaren malefizioa. Edonola ere, guztiok gara duintasun gutxi-askorekin bizitzen jarraitzeko egia edo gezurrak onartzearen esklaboak. Nire iritziz, irakurketak konpontzen dituen arazo bakarrak irakurketatik bertatik heldutakoak dira.

Psikoliteratura engainagailu hutsa da. Merkatuari baino beste inori onura ekartzen ez dion literaturaren erabilera onbera baina engainagarria. Paradoxa bat bada ere, irakurketa nostalgia jasanezin batek edo bestek ezarritako bakardade bilatu gabekoa arintzea lor dezakeela onartzen dutenek, aldi berean errefusatuko dute literaturak helburu politikoetarako ere baliagarria izatea, aintzat hartu gabe bakardade-arazoak, batzuetan, egoera politikoetatik heldu direla. Lehenbizikoa ondradua da; bigarrena, aldiz, demagogikoa, eta literaturaren esentziarako hilgarria.

Bigarrenik, irakurketa bere edukien ustiaketa afektibo edo sentimental hutsaren mende jartzea haren askotariko helburuen murrizkeria gordina baino ez da.

Irakurtzen dugunean, ez gara pertsonaia honekin nahiz bestearekin identifikatzen. Egia esan, pertsonaiaak berak dira gu identifikatzen gaituztenak, argitzen gaituztenak eta gure izaeraren eta jokaeraren profilak marrazten dituztenak. Gehienetan, joan-etorri edo astindu intelektual eta afektibo horiek ez dira zuzenean heldu subjektuaren intimitate-tik. Horrekin iradoki nahi dut litekeena dela literatura lagungarria izatea nor bere burua ezagutzeko, baina aldi berean arazo handia bilakatu daitekeela aurkikuntza hori egiten duenarentzat. Ezagutzeak ez du ezer ere konpontzen. Heztearen sinonimoa ere ez da. Ezaguerak esanen dizu gauza bat nolakoa den, baina ez beste ezer. Gainerakoa norberaren borondatearen kontua da, eta hori jada ez da liburuetan agertzen, eta liburu gehienek ez dute horri buruzko argibiderik ematen.

Horrenbestez, zergatik hautatu dut subjektuaren nahaspila sentimentala irakurketara hurbiltzeko aitzakia gisa? Uste dudalako horixe dela urte askotan erabili ditudan bideetatik egokiena eta asebetegarriena. Juizioaren, analisiaren eta gogoeta huts eta gordinaren bidexka baino askozaz hobea.

Horrek ez du esan nahi hemen ikuspegi intelektuala baztertzen ari garenik. Ikuspegi intelektuala bigarren planoan edo bigarren mailan jarri baizik ez dut egin.

Nahi nuke ikasleak testuetan sartzea sentiberatasun afektiboaren, sentimenduaren, testuak afektuen mailan adierazten dienaren, desiren, emozioen, sentsazioen eta abarren bidetik.

Izan ere, honezkero frogatuta daukat testuetan afektibotasunaren bidetik sartzea dela, berriz diot, dauden bideetatik atsegingarriena eta asebetegarriena erabiltzea. Atsegingarria eta asebetegarria esan dut, baina inoiz ere ez dut «erraza» hitza erabili. Ez baita erraza. Izan ere, testuak ulertzeko sentimenduen eta subjektibotasun afektiboaren bidetik arakatu behar izatea gogorragoa izan daiteke testuetara planteamendu intelektual hutsetik hurbiltzea baino. Betiere, batak ez du bestea kentzen.

Hori egiterakoan, arrisku batzuk saihestu beharko dira. Jo dezagun arakatzearen bide honetatik heldu diren baieztapen gehienen ondoan kolorazio oso subjektiboak aurkituko ditugula. Komenigarria izanen da ohitura batzuk saihestea, ez bide sentimentalean berezkoak direlako edo haren ondorio eksklusiboa direlako, baizik eta ugari topa daitezkeelako testutik distantzia sentimental bat hartzeko gai ez direnengan.

Ikus ditzagun batzuk.

Gustatu zait, zeren niri ere gerta zekidakeen

Juizio afektibo bat da, mentalitate infantil batean berezkoa izan arren, beste batzuegan ere ager daitekeena. Helduaren mundu kritikoan ere maiz agertzen da, nahiz eta modu aldrebesago batez formulatu ohi den.

.....

«Autoreak hain deskribapen ona egiten du, non badirudien gertakarien agertokia ikusten ari garela» esateak mintzagai dugun esaldiaren balio bera du.

Ditxosozko esaldiak esan nahi du ezen, niri halakorik gertatu izan ezean, delako eleberria edo testua ez zitzaidala gustatuko. Eta horrekin esan nahi da egilea esaten ari dena ederki dagoela, zeren eta esaten duena nik, irakurle gisa, pentsatzen edo sentitzen dudana baita.

Horrelako ezaugarriak dituen irakurlea preso jarraitzen du bere egoismo kritikoa. Bera dena irakurtzen duen irakurle bat da, zeinak, printzipioz, agian ezin du bestela irakurri. Gauza bat da irakurketan jartzea gu garena, eta beste bat, zeharo ezberdina, testuan bertan dagoena, zeina, ia beti, ez dator bat ez hein batean, ez guztiz, norberarekin eta, inolaz ere ez, egilearen asmoarekin.

Bagarena baizik irakurtzen ez badugu, zertarako irakurri? Irakurtzea immobilismo ideologiko eta sentimentalaren guztiz kontrakoa baldin bada, horixe baita askok aho txikiarekin esaten dutena, beste arrazoi edo sentimendu ez hain murrizgarriak bilatu beharko ditugu.

Kontrakoa ere gerta daiteke, alegia, eleberri bat benetan gustatzen bazaigu, kontatzen diguna guri sekula ezin gertuko zaigun zerbait delako izanen da, bereziki kontuan hartzen badugu daramagun bizitza, zerikusirik batere ez duena eleberrietakoarekin. Baina juzku hori ere ez litzateke zuzena izanen: gustatzen zait niri sekula gertatu ez zaizkidan gauzak kontatzen dituelako. Lehengo kontu bera izanen litzateke.

Bai lehen juzku afektiboak, bai bigarrenak ez dute ezer adierazten, ez dute ezer esan nahi. Hutsalak dira guztiz.

Testu batean kontatzen dena nire interesetatik hurbil badago, eta hori izanik ere testuetatik hurbil edo urrun sentitzeko gure irizpide bakarra, ez dago ezer testua ona den edo txarra den esatea galarazten digunik. Ongi dago niregan, *a priori*, onarpen sentimendua pizten duten testuetara hurbiltzea, baina horrek ez du justifikatzen testuak onak edo txarrak izatea. Bi planoak nahastea gure joeren aurrean gauzak argi edukitzea galarazten digun akatsa da. Bi planoak identifikatzeak, berriz, berekin ekarriko luke, besteak beste, irakurtzen duen subjektu gisa eboluzionatzeari uko egitea, eta guztiok daukagu irakurle gisa eboluzionatzeko eskubidea.

Testuak gizon modernoaren gaiztakeriari, perbertsioari buruz hitz egiten du

Hau da, agian, abuztu arratsalde bateko eulitzar baten hegaldiari buruz ari izan balitz, orduan eleberria ez zitzaugun gustatuko. Galde dezagun: ba al du zerikusirik eleberri baten gaiak edo edukiak ona edo txarra izatearekin? Gaia edo edukia nahikoa eta sobra izan daiteke eleberria irakurtzen hasteko edo alde batera uzteko; baina, behin eleberrian sartu ondoren, kontua da egiaztatzea autoreak nola garatzen duen. Edonola ere, eleberri bat ezin da justifikatu, ezta ere, honako edo halako gaiari buruzkoa izateagatik.

Jarrera horrekin aurretiazko tesi bat kontakizun batekin nahasten ari gara. Justifikazio-joera komun bat da ikasleentzat eta kritika literarioaren munduarentzat. Testua baloratzeko da tesi bati buruz hitz egiten duen edo tesi bat salatzen duen neurrian, edozein dela ere horretarako arrazoia, irakurleak, bere mundu partikularrean, tesi horri garrantzi handia ematen baldin badio. Horrela jokatzeko duenak literatura pertsuasio ideologikorako bitarteko gisa ikusten du, politikari edo moralari buruzko artikulua bat izan daitekeen bezala.

Kontura gaitzean testuek beti zerbaiti edo norbaiti buruz hitz egiten dutela. Gai kritikoaren gakoa da erakustea nola gertatzen den aipatzen den hori. Esate baterako: nola perbertitzen da mintzagai dugun gizaki moderno hori? Zer egiten du gaiztakeria horren aurka errebelatzeko edo ez errebelatzeko? Nola kontaktatzen du hori testuaren egileak? Konbentzitzeko modukoa al da? Iradoki egiten du hala dogmak ezartzen ditu?

Jakina, testu batek honi edo hari buruz hitz egitea arrazoi intelektual eta afektibo bat izan daiteke hura irakurtzea ala ez irakurtzea erabakitzeko. Testu batek nire gustukoak ez diren jarrerak edo ideiak kritikatzeko ez du esan nahi testu ona denik.

Flaubertek, *Louise Coletentzako Gutunean* haxe baieztatzen zuen: «Hori dela eta, ez dago gai polit edo itsusirik, eta ia axioma gisa finka daiteke, arte puruaren ikuspuntutik planteatuta, ez dagoela inolako gairik, zeren eta estiloa, berez, gauzak ikusteko modu absolutu bat baita».

Ez irakurtzea kontakizunaren arau edo printzipioen arabera

Kontakizunaren printzipioak –hautatzea, segida, ikuspuntua eta hierarkia– gauza bat dira, eta aurrean daukagun testua beste gauza bat.

Norbaitek esaten duenean eleberria txarra dela oso konplexua delako, horrekin adierazi nahirik hasierako egitura *in medias res* gisakoa dela eta *flash back* ugari dituela, edo ikuspuntua ulertezina dela, bere desira eta errealitatea nahasten ari da. Bere desira proiektio bat da eta testua horren menpean jarri nahi du, baina ez du harekin zerikusirik. Irakurleak horrelako epai sentimentalak egiten dituenean, ezagupenetan dauzkan hutsak uzten ditu agerian. Hitzekin ez ditu testuaren ezaugarriak aipatzen, baizik eta bere buruaren ezaugarriak.

Inork ezin dizkio leporatu idazleari bere kontakizuna egituratzeko erabili dituen printzipioak. Irakurleari edo kritikoari dagokiena da kontakizunaren baliozkoa den ala ez esatea eta egileak irudikapenean norainoko gaitasuna erakutsi duen; printzipio horiek funtzionamenduan jartzeko erabili duen modu zehatza. Aldez aurretik, printzipioak ez dira ez onak, ez txarrak. Printzipio batzuk ala beste batzuk erabiltzea idazlearen beraren komunikazio-helburuen arabera egonen da. Irakurleari dagokio printzipio horien funtzionamenduari buruzko epaia ematea.

.....

Testuaren erraztasunaren ala iluntasunaren aldeko hautua egiteak ez du ezer ere esan nahi testuari buruz, bai ordea irakurlearen gustu estetikoari buruz.

Azterketa psikologiko ortodoxoa

Oso zabaldua dago idazlea gizakiaren arimaren ezagutzailerik handi bat izatearen ideia faltsua. Batzuek esanen dute inor ez dela hura bezain egokia gizateriaren bihotzaren eta inteligentziaren erradiografia psikologikoa egiteko. Baita zera ere. Segurtasun osoz esan daiteke zerbitzari batek edo okin batek, ingurukoari erreparatzeko gaitasun egokiak izanez gero, askoz ere gehiago dakitela gizakiari buruz belaunaldi bateko idazle guztiek batera baino. Azokan ordubete emanez gehiago ikasiko duzu bizitzaz Muñoz Molinaren lan guztiak irakurriz baino.

Hertsiki hartuta, literatura ez da psikologia. Soilik esaten digu pertsonaia bat nolako den, baina ez dio ezer munduari buruz. Pertsonaia ez da errealitate bat: eraikuntza bat da, munduan gertatzen denarekin nekez bat etorriko den asmakizun bat. Mundua gauza bat da eta testua beste bat. Pertsona gauza bat da; pertsonaia beste bat. Biek lotura bat dutela ezin da zalantzan jarri. Pertsonaiak batzuetan errealitate zantzu batzuk dituela, ezta ere. Baina ezin dira bata eta bestea identifikatu.

Pertsonaien azterketak –nolakoak diren, zer egiten duten, nola diharduten, zer egiten duten– ez du zerikusirik batere atsegin subjektiboarekin. Norbaitek esaten duenean eleberririk bat gustatu zaiola amaiera ona duelako, hau da, onak irabazi duelako eta gaiztoak galdu, adierazten ari da noraino iritsi daitekeen bere konplexutasun psikologikoa, baina, baita ere bere sinpletasun narratiboa ere. Onak irabazi eta gaiztoak galtzeak ez du justifikatzen kontaketa-ontasuna edo txartasuna. Era berean, ezin izanen dugu esan argudio-testu bat edo testu azaltzaile bat ona edo txarra dela soilik nire planteamenduekin bat datorren ala ez datorren begiratuta.

Doktrinamendu morala

Doktrinamendu psikologikoarekin eta estetikoarekin batera, doktrinamendu morala ere aurkituko dugu. Oso ohikoa da irakasleen artean, eta beste zenbait esparrutan ere bai, literaturaren plataforma erabiltzea jokabide batzuk goraiatzeko eta beste batzuk gaitzesteko. Gauza bera gertatzen da kritika literarioaren arloan ere. Noski, doktrinamendu batzuk ongi ikusita daude eta beste batzuk ez.

Oso litekeena da literatura plataforma perfektua izatea, filosofiarekin eta historiarekin batera, alpapa izpirituala eta morala *urbi et orbi* partitzeko. Inongo irakaslek, arlo horretan denik eta arretatsuen izanda ere, ezin izanen du tranpa hori saihestu: eskolak moralaren pulpitu bihurtzea. Ezaxolenak ere ezin izanen dira betiko joera gorrotagarri horretatik bazter geratu: beste guztiak geure buruaren kalkomania bihurtzea.

Egia da liburuak oso lagungarri izaten zaizkigula bost xentimoko moralistak izateko, zeren eta liburu guzti-guztiek izaten baitute era bateko edo besteko moralkeria. Hori dela eta, oso zorrotzak izan behar dugu arlo horretan.

Esan dezagun etika diskurtso arau-emaile bat dela, baina ez aginduzkoa, eta txarraren eta onaren arteko oposiziotik sortzen dela, betiere haiek balio erlatibo soiltzat hartuta. Ezagupenekin eta hautapenekin egina dago: gure desiren multzo hausnartu eta hierarkizatua da. Etikak honako galderari erantzuten dio: nola bizi? Betiere galdera gizabanako edo talde bati buruzkoa izaten da. Gehienetan zoriontasunerako eta jakinduriarako joera du.

Ba al du horrek guztiak zerikusirik irakurketarekin? Bai, handia. Bereziki ikusten denean nolako gaitasun harrigarriak daukan bitartekariak doktrina emateko literaturaren bide erosoaz baliatuta. Noski, ez diogu uko egiten nerabearen buruan eta bihotzean zirika ibiltzeari irakurtzen dugunaren ikuspegi etikoa erabiliz.

Gaiaren gakoa da betebeharrari buruz galdetzea edo, hobeki esan, egiaz kontsigna edo erantzunetan biltzen ez den betebeharrari buruz. Morala, eta are gutxiago etika, ezin dira parrokiako –eta gaur egun, zoritzarrez, eskolako– katekesiarekin nahastu.

Ongiari eta gaizkiari buruzko ikaskuntzak, onari eta txarrari buruzkoak, tratamendu bat, ikerketa bat, irudikapen bat dakar berekin.

Literatura, bere orrialdeetan irudikatzen dituen on eta txarra, ongia eta gaizkia, eta, batez ere, pertsonaiek kontzeptu horiekiko nola bizi diren, lagungarri gerta dakiguke gure mapa moral edo etiko propioa ikusten eta egituratzen.

Gustatu zait edo plazera sentitu dut

Goazen pixkanaka-pixkanaka.

Ederra eta itsusia dena, on eta txarra dena juzgatzeko ahalmena da gustua; egiaren irizpidearen lekua beteko lukeen plazer bat da. Gustuak gorputzean eragina du, zentzumenen bitartez, eta izpirituan ere bai, kulturaren bidez. Gustua hezi egiten da, baina ez da sortzen.

Gustuak unibertsala du xede, baina ez dago, izan, adostasunera iristeko modurik. Horrek, ezinbestez, gatazka eta auzia ekartzen ditu. Kontua ez da dena gustagarria izatea, dena miragarria; are gutxiago horren itxurak egitea. «Egiazko gustuak –zioen Auguste Comtek– higuin handia izaten du beti berekin». Eta Kantek honakoa gehitu zuen: «Gozatzeko betebeharra absurdu nabarmen bat da». Gustua ezin da inposatu, zeren era bera baita agintzen duena.

.....

Hori dela eta, plazerak beti arrazoia du, baina ez du ezer ere demostratzen. Gustuei buruz mintza daiteke, bestearen baiezkkoa, konformitatea, bila daiteke, dio Kantek, baina ezin da haiei buruz eztabaidatu (frogen bidez erabaki). Ia beti ahazten dugu hori, eta horregatik egoten gara eztabaidatzera kondenaturik.

Eta orain plazera. Ez dago pentsalari bakar bat ere hari buruz gogoeta egin ez duenik: Aristoteles hari buruz aritu zen *Etika Nikomakorentzat* lanean; eta beranduago Epikuro *Menezeorentzako gutuna* obra ospetsuan. Virgiliok *Bukolikoak* obran goraiatu zuen, baita San Agustinek, Paskalek, Montaignek eta, azkenik, Freudek ere, orrialde gehien eskaini zizkion buru pribilegiatuak. Gogora dezagun azken horrek nola bereizi zituen plazeraren printzipioa eta errealitatearen printzipioa –horri buruz Marcusek gogoeta luzeak eta oso egokiak egin zituen *Dimentsio bakarreko gizona* liburuan.

Zer da plazera? Afektu oinarrikoenetako bat da, eta, hala denez, ia definitzen ezinezkoa da. Desiraren satisfazio atsegingarria da. Ez dugu zerbait desiratzen atsegina izateagatik; izan ere, atsegina da guretzat desiratzen dugulako, edo gure desirekin bat datorrelako. Zergatik ez definitu plazera soil-soilik desiraren asetzea dela esanez? Ezin delako desira bat ase plazera sentitu gabe. Ez da nahikoa bititza desiratzea bititza atsegingarria izan dadin. Plazera da helmuga, baina ez da beti bidea⁶.

Eta, ba al du horrek guztiak zerikusirik irakurketarekin. Seguruena bai; izan ere, hari buruz hitz egiteko gehien erabiltzen diren bi hitzak dira: irakurtzearen plazera eta gustuaren garapena.

Lehenbizi ohartarazi behar dut «liburu hau gustatzen zait» esatea kolorerik gabeko esaldi bat dela, eta ez dakarrela berekin inongo epai literariorik. Ongi dago hau edo hura gustatzea, baina askoz garrantzitsuagoa da horretarako arrazoiak ematea, edo, are interesgarriagoa dena, deskribatzea nola aldatzen naizen ni atsegina edo desatsegina zaidan zerbaiti esker.

Egia esan, irakurketa batzuk gustatzen zaizkigu eta beste batzuk ez zaizkigu gustatzen. Gustua existitu egiten da. Baina esana dugu jada ez dela sortzen, hezi egiten dela. Hein batean, produktu sozial bat da. Bizi garen gizartean lekua duten gustuak dauzkagu. Gainera, gizartean ezarrita dauden gustuen aurka egiteak arazoak ekartzen ditu. Arlo guztietan.

Nire asmoa denez gustua heztea, jakin beharko dut hura nola hezi eta zein bidetatik jo behar dudan hura lantzeko. Horri dagokionez, kontua ez da eztabaidatzea, baizik eta borroka egitea. Gure gustuen oinarriak ezagutzea, haien aldeko borroka egitea, arrazoa ematea. Irakurketa baliagarri suerta daiteke borroka horretan.

Irakurlearen plazerari dagokionez, esan dezadan gutxi dakidala, edo ezer ere ez dakidala, hura eszenaratzeko moduari buruz. Zertan datza irakurtzearen plazera? Nola sor-

⁶ Kontzeptu horiei buruz, ikus A. Compte-Sponville: *Diccionario filosófico*, Paidós, Bartzelona, 2003.

tzen da? Zein balentzia afektibo eta intelektual astintzen dira subjektuaren baitan irakurtzearen plazera sentitzen duenean?

Badakit, jakin ere, irakurtzen jarraitzeko dudan arrazoietako bat dela gustura egoten naizela liburu bat eskuartearen dudala. Ez beti, noski. Halako poztasuna gertatzen denean, ez dakit, egia esan, zergatik gertatzen den. Ez dakit azaltzen irakurtzen sentitzen dudan plazeraren arrazoiak zein diren. Eta saiatzen naizenean gogoratzen liburu bat irakurtzen zeinen ongi pasatu nuen, une haiei buruz gogoratzen dudana bakarria da irakurtzeko ekintzaren inguruan zegoena eta, bereziki, orduko irakurlea nolakoa zen. Ezer ere ez dakit, ordea, irakurtzearen plazerari berari buruz.

2.1 Adierazgarri egiten zaizkidan eta nire buruarekin identifikatzeko balio zaizkidan hitzak berreskuratzea

Ariketa honen xedea ez da irakurritako testua alde literariotik ona edo txarra den juzgatzea. Bilatzen duen gauza bakarria da irakurlea hurbiltzea baliabide erraz bat, baina ez azalekoa, erabiliz. Jarduera gisa, bi atal ditu.

Lehenbizikoa da ikasleei eskatzea seinala ditzaten zein diren nire burua identifikatzeko balio duten hitz horiek eta zein diren errefusatzen ditudanak. Bigarrena da eskatzea zaletasun edo fobia hori sorrarazten diguten arrazoiak adieraz ditzaten.

Aipaturiko arrazoiak jiteak denborazko erreferente bat edukiko du, oraingoa nahiz iraganekoa. Maite dugun edo errefusatzen dugun hitz bakoitzaren atzetik istorio afektibo bat baino gehiago topatu ahalgo dugu. Bada, azken batean, bizitzan zehar erabiltzen ditugun hitzak memoriaz eta nostalgiaz betetzen joaten dira. Are gehiago: hitza memoria da, eta batzuetan nostalgia ere bai.

Hala baldin bada, testua aitzakia egokia izanen da historia pertsonal bat kontatzeko testutik berreskuraturiko hitzak erabiliz, bai onartutakoak, bai errefusatutakoak.

2.2 Ni identifikatzen naizeneko pertsonaien abstrakzioa egin

Hemen identifikazio edo errefusa maila testuan agertzen direnen ideologiak edo portaerak determinatu ahalgo dute. Identifikazioa edo errefusa adierazten diren aldi berean, arrazoiak ere azalduko dira.

Esku-hartze didaktikoak, gertatzen baldin bada, ez du helburu izanen ikasleen hautapen positiboak zuzentzea. Kontua da norberak pertsonaia bati buruz dauzkan pertzepzio subjektiboetan sakontzea. Argitzea, halako modu batez, pertsonaia batengandik halako hurbiltasun maila bat edukitzera eramaten gaituzten mekanismo psikologikoak, konplexuak bezain azaltzen ezinezkoak.

.....

Xedea da identifikazio literarioen munduan dauden prozesu afektibo edo sentimenterakoak ahal den guztian arrazionalizatzea. Edo bestela esanda: hau edo bestea hautatzeko norberak dauzkan arrazoiak deskubritzearen garrantzian sakontzea. Eta jakitea erabaki bakoitzaren, hautapen bakoitzaren atzean zergati bat, arrazoi bat edo gehiago egoten direla. Eta arrazoirik ez badago, bada ez da deus gertatzen.

2.3 Pertsonaia negatibo baten portaera aztertzea

Agian, zehaztu behar den lehenbiziko gauza da zer den portaera negatibo bat. Horretarako, galdetu behar da zein izan daitekeen adierazpide horren edukia. Negatiboa positiboaren aurkakoa da, baina batzuetan positiboa dena, agian, ez da positiboa izaten batzuentzat, baina bai beste batzuentzat. Eta alderantziz.

Nirea asmoa ez da, ezta ere, erlatibismo edo eklektizismo moral eta etiko, afektibo eta sentimentala –bere baitan edozer onartzeko gauza dena, baita txantajea eta indarkeria ere– lantzea. Ez. Inporta duena da eztabaidatzea halako hautapen batek izan ditzakeen ondorioei buruz.

Negatiboa dena bizitzaren diskurtso onbera lardaskatzen duena da. Bihotz-gogor eta duintasunik gabeko bihurtzen duena. Literatur pertsonaia askok hura modu argi eta irmoan irudikatzen dute. Beste batzuk, ordea, hortxe daude, positiboan eta negatiboan jokoan etikaren muga-mugan jolasean. Azken alor hori, daukan anbiguotasun moral delata eta, zailagoa da. Horregatik, analisietan bide bikoitza egiten dugu: lehenbizi berez negatiboa dena epaituz, eta bigarrenik gizabanakoarentzat eta kolektiboarentzat ere zorigaiztoko –edo bestelako– ondorioen arrazoi gisa.

«Edo bestelako» erantsi dugu zeren eta, batzuetan, gizartea etikaren klabean aurrera egiten baitu munstro edo astakirten batzuen existentziari esker. Are gehiago: soziologo batzuen esanetan, gaitzik existituko ez balitz, ez legoke inongo aurrerapen moralik. Gatazkarik gabe ere, ez dago ez aurrerapen moralik ez aurrerapen etikorik. Hori bezalako azterketa xeheetara iristen ez bagara ere, ez dugu etsi behar. Garrantzitsuena da pertsonaia bati aplikaturiko kontzeptu negatiboa zehaztea, esaten duenarengatik, egiten duenarengatik eta egokien jotzen duenarengatik ere.

2.4 Egoera sexistak juzgatzea

Sexismoa sexu desberdintasunean oinarrituriko arrazakeria mota bat da. Arrazakeria arrunta baino errazago toleratzen da, maizago gertatzen delako.

Kontzeptu horri buruz lehendik ikasleek dauzkaten ezagupenak berpiztu nahi badira, aurrera. Oso litekeena da irakurmenak alde guztietatik hobera egitea: itxaropenetan

eta gogoeten arloan. Bada hitz egin dezagun eskolan, familian eta koadrilan topatzen dugun sexismoaz.

Lehenbizi, egoera horiek testuan bilatuko ditugu, zeren eta oso litekeena baita pertsona batzuek normaltzat jotzea testuan kontatzen den egoera. Bigarrenik, egoera hori sexistatzat jotzeko zergatiak argudioekin azalduko dira. Hirugarrenik, bidezkoa bada, pertsonak sexistak izateko edo halakoen gisara jokatzeko dauzkaten arrazoiak aztertu beharko ditugu. Bada, oso litekeena da ikasle batzuek pentsatzea sexista izatea, gaiztoa izatea bezala, subjektuaren berezko gaiztakeriatik heldu dela. Esan nahi baita, subjektuak ezin saihestu dezakeen zerbait dela, munduko ahalegin guztiak eginda ere, bere izatean errotuta baitago.

Sekula huts egiten ez duen metodo bat da testu bat irakur dadin proposatzea, osagai sexista bat duela ohartarazita, eta ikasleei galdetzea zergatik den sexista.

Esate baterako, zein arrazoi direla-eta esanen dugu hurrengo testua sexista dela?

GIZON BATEN EMAKUMEA

Gizon baten ametsa
puta bat da urrezko hortzekin,
eta izterreko galtzari batekin,
perfumatua
bekain faltsuekin
errimela
belarritakoak
kulero arrosa argiak
salami-hatsa
takoi luzeak
galtzerdi are luzeagoak urratu arin-arin
batekin ezkerreko galtzerdiaren atzealdean,
apur bat lodia,
apur bat mozkorra,
apur bat ergela eta apur bat txorora
txiste zikinik kontatzen ez duena
eta bizkarrean 3 garatxo dauzkana
eta musika sinfonikoa
gustuko duelako itxurak egiten dituena
eta astebetetz egongo dena
astebetetz baino ez
eta sukaldatu eta harrikoa eta larrua jo
eta txupaka egingo duena
eta sukaldeko behegaina gogor igurtziz garbituko duena
eta erakutsiko ez duena seme-alabatxoan
ezelako argazkirik

.....

ezta hitz egin ere senar ohiaz edo senarraz
ezta esan ere zein eskolatan ibili zen edo non jaio zen
edo zergatik egon zen kartzelazuloan azken aldian
edo norekin dagoen maitemindurik,
astebetez baino egongo ez dena
astebetez baino ez
eta zera horiek guztiak eginda aldegingo duena
eta sekulan santan
itzuliko ez dena
komoda ispiludunaren gainean dagoen belarritako
bakar horrentzat.

Charles Bukowski, *Poema Antologia*, Josu Lartategiren itzulpen
eta apailaketa, Zarautz, Susa, 1997

2.5 Pertsonaia bati eskutitz bat idaztea

Kontua ez da edonolako eskutitz bat idaztea. Izan ere, eskutitza testua gutxi gora-behera ulertu eta ondoren idatzi beharko da, eta, horrenbestez, hartzaille gisa hautatu dugun pertsonaiaren egoera zehatzari erantzun beharko dio.

Mamuei buruzko ipuin txinatar batean, besteak beste, behera etorritako mamu baten egoera aipatzen da; hori guztia gutxi balitz, mamua ez da gauza ezta inor beldurrarazteko ere. Are okerrago: trufa ere egiten diote.

Mamuairen egoera eta gutako askoren egoera ez dira oso diferenteak izanen, batzuetan besteen arreta erakartzeko ahaleginak eginda ere, guztiz huts egiten baitugu. Mamuairen babesgabetasuna ez da inolaz ere desberdina horrelako egoera batean gaudenean sentitzen dugunetik. Hori dela eta, erraza izan daiteke idatzizko gutun bat bidaltzea elkar ulertzearen ikuspuntua erabiliz, betiere humorearen osagaia ahaztu gabe.

Guk aukeratu dugun ipuinak bi aldaera ditu, bata, Nafarroako Orbara herrian kontatzen dena, eta bestea, Afrikakoa, baina biek gauza bera kontatzen dute: eskura ditugun ametsak ez dira uste bezain eskuragarriak, eta harrapatzen saiatze horretan barregarri izaten ahal gara. Euskal ipuinean, beste euskal ipuin eta kanta askotan bezala, jangarria da desioaren sinboloa. Hona hemen ipuinak:



Iratiko ugaldean

Orbaran behin gizon multzo bat gango ugaldera ilargia harrapatzekotan hurbildu ze. Gortarako zubitik beiti dilindan xarri zire, erkali eskuak emanez.

Barrenean zenak, ezpaiztosten eskua ilargiraino luzatu, 'Ep -oihu egin zako goienekoari- laxa zak piska bat eskua nik gazta harrapatu ahal izateko. Gutu bat aski izain duk'.

Goienekoak bere eskua luzatu zue ta multso osoa urera eroriz, ilargia irriz irriz hurrundu zitzaien.

Martin Arotzarena. Orbara. *Supazterreko eleak*, Etxabarrengo Uskara Taldea, Iruña, Nafarroako Gobernua, 2003

Tximinoak eta Ilargia

Behin batean, oihan sakon eta trinko batean tximino talde bat bizi zen. Tximinoek, gau batean, oihaneko aintziran Ilargiaren isla ikusi zuten. Ilargia aintzirako uretara jausi zela iruditu eta handik nola atera pentsatzen hasi ziren. Tximino bat aintzira alderantz makurtu zen. Zuhaitz baten adarrari heldu zion, bigarrena haren buztanetik zintzilikatu zen eta hirugarrenak haren buztanari heldu zion, eta uretara heltzen zen katea osatu zuten. Baina adarrak ez zion pisuari eutsi eta azken tximinoa ura ukitu arte makurtu zen. Orduan uraren azala mugitu eta Ilargiaren irudia bat-batean desagertu zen.

Egoki.Hizkuntza eta Literatura. DBH 3, Zubia-Santillana

Eta hona hemen zenbait ikaslek igorritako gutunak:

Ilargi maitea:

Iratiko zubia naiz. Zer moduz? Ni oso ongi nago eta, egia esanda, zu ere ondo egotea espero dut.

Eskutitz hau idazteko arrazoia zera da, zuri eskertzea, gauero Iratiko ibaian agertzeagatik. Nire bizitza oso aspergarria zen; egun osoa jendea nire gainetik nola pasatzen zen begira eta gauean, berriz, bakar-bakarrik sentitzen nintzen.

Baina zu agertu zinenetik, hain ederra, Iratiko ibaian, ez naiz bakarrik sentitzen, zu nire ondoan zaudelako, dirdira eder bat ematen.

Gainera barre pila bat egin nuen hiru gizon kaiku haiek, zu gazta bat zinen uste-tan, harrapatzen saiatu, eta Iratiren gainean erori zirenean! Ez dut uste hiru haiek berriro ere etorriko direnik...

Berriro ere eskerrik asko nire bizitza hobera eramateagatik!

Espero dut gaur ere zu ikustea.

Musu bero-bero bat

Iratiko zubi zoriontsua.

Irantzu Lopez De Dicastillo, 14 urte.

Kaixo:

Zer moduz zaude? Hemen Txantreako festak pasatu dira eta gau batean Xabier, Mikel, Asier eta Eneko pixka bat mozkortu, Madalenako zubian ilargia ikusi, eta batek zubiari eskuz eutsi, behekoa oinetik hartu, behealdean ilargia ikusten zenez, eta ilargia hartu nahi zuten. Xabier azkena zenez eta ilargia harrapatzen ez zuenez, luzatu eta luzatu, eta gaixoak ezin zuenez, gehiago luzatu eta luzatu, eta ibaira erori ziren. Besteak ertzean geunden, eta ibaira bota ginen, eta denak Arga ibaian bainatu ginen, eta gau osoa bustita eman genuen. Etxera ailegatu, eskuetarako oihala hartu eta lehortu nintzen.

Joseba Pinzolas, 14 urte.

2.6 Pertsonaia bat errefusatzea

Norbait errefusatzeko, era askotako arrazoiak izan ditzakegu, batzuetan sendotasunik gabeak edo kontraesankorrak. Ez da ere erraza deskubritzea, eta are gutxiago onartzea, pertsona bat errefusatzeko dauzkagun arrazoiak, edo hura errefusatzeko ez bada bai gure asmo eta desioetan hura kontuan ez hartzeko dauzkagun arrazoiak.

Hemen komenigarria da errefusa eta errezeloa bereiztea.

Errefusa oinarriturik egon daiteke; litekeena da, aldiz, oinarririk ez izatea. Baina hura praktikatzen duenak badaki zer egiten duen, nahiz eta beti ez jakin zergatik egiten duen. Errezeloa besterik da. Errezeloa konfiantza gabezia orokor eta gehiegizkoa da. Errezelotsua dena, ikuspuntu psikologikotik, pertsonaia iluna da. Ez du inorengan konfiantzarik, ezta konfiantza merezi dutenengan ere. Errezeloak ez du zerikusirik zuhurtziarekin; zikoizkeria hutsa da.

Literatura leku aparta da, non modua izan dezakegun halako pertsona batzuk onartzeko edo errefusatzeko dauzkagun arrazoiak ezagutzeko; hain zuzen ere, estimatzen ditugun bertuteak eta, gure praktika pribatuetan tokia badute ere, jendaurrean errefusatzeko ditugun bizioak dituzten pertsoneri buruz ari gara.

Zergatik errefusatzeko dugu pertsonaia bat?

Arrazoiak kontzienteak nahiz inkontzienteak izan daitezke. Ez legoke gaizki gure ikasleek pertsonaia bat mespretxagarri eta doilortzat, eta horrenbestez, errefusatu beharrekotzat, jotzeko antzematen dituzten nolakotasun literarioak sentitzen hastea.

Errefusa honela formalizatu daiteke: «ez zait pertsonaia hori gustatzen honako arrazoi hauengatik». Arrazoiak, diogun bezala, heldu daitezke pertsonaia ikuspuntu literariotik edo daukan jokabidearen ikuspuntu etiko eta moraletik sinesgarria ez izatetik. Bi kasu horietan, argudioen zergatia exijitu beharko da.

2.7 Bereizkeriako egitateak aztertzea

Gaur egun boladan dago bereizkeria positiboaz eta negatiboaz hitz egitea. Hemen ez dugu izenondoa kontuan hartzen; substantiboa hartuko dugu kontuan. Bereizkeria egitea, hiztegiaren arabera, honako hau da: gauza batzuk beste batzuetatik aldentzea, bereiztea, desberdintzea. Eta bigarren esanahi batean: pertsona bati edo pertsona multzo bati arraza, erlijioa edo politika direla-eta gutxiagotasun tratua ematea.

Ariketa honetan, bigarren esanahia hartuko dugu aintzat. Hori egitean nire asmoa ez da lortzea ikaslea herritar kosmopolita, eta jende guztia errespetatzen eta toleratzen duena bihurtzea. Betiere, gaur egun hainbeste baloratzen diren bertute horietatik zer-bait ere ikasten badute, hobeki. Baina helburua ez da hori.

Lortu nahi duguna da ikasleak, eta irakurleak oro har, bazterkeriari berari erreparatzea, nola gertatzen den eta literaturaren ikuspuntutik nola artikulatzen den konturatzea. Izan ere, hainbestekoa da irakurlearen inkontzientzia, non oso gutxitan erreparatzen baitie testuaren eduki horiei. Hori bai: ez gara politikoki zuzena denaren gehiegikeria moralizatzaileetan hasiko, zeren eta horiek direla medio, gure senak beste konponbiderik jarri ezean, ezinezkoa izanen baitzaigu pentsatzen eta sentitzen duguna modu tolesgabean esatea.

Hurrengo kontakizunak garai bateko justiziaren bidegabekeria agertzen du:

VAILLANT ANARXIXTAREN GILLOTINATZEA

Iragan astelehen ihaut⁸ goizean moztu diote lephoa Vaillant zelako anarxixta tzar hari. Azken memento arte, beldur ziren oro, zerbeit izigarrikeria gertha zadin. Jadanik hiru edo lau egun eta gau bazituen holako ikhugarren ondotik dabil-tzanak, han gaindi zabiltzala presondegiaren inguruetan, arima salbu-ta zakhurrak hilkiaren usainera doazin bezala.

Oren fresko zenbeit hanxet iragan dituzte batzuek, gau osoak han, karrikaren erdian xutik; batzu multzoka elgarretara bilduak solasean; bertzeak harat-hunat ibilki, bi eskuak sakelan, zangoen berotzeko. Eta presondegia bethi hetsia...

Azkenean ideki da holetan. Astelehen-ihaut goizeko zazpi orenetan, argi urratzean⁹ jalgiazi dute Pariseko plaza baten erdira, jandarmez eta soldadoz alde orotarik inguratua, dohakabe zen bezalako hura, gillotinatzeko!

Ez omen zen han ikhulse eskasik!

Nola hil da?

Nola bizi, hala hil; alimale bat bezala bizi, eta halaber hil. Burua gora eta mintzoa azkar omen zituen presondegitik atheratzean. Bi eskuak bizkarrean este-katuak eta zangoak ere labur-laburra elgarri, lasterka ihes joan etzadingatik.

Burregoak eta haren bi lagunek gibeletik eta bi besoetarik atxikiz baitzeramaten, erraten zioten: «utz nezazue; ez dut atxikitzaile beharrik; ez naiz hiltzearen beldur».

- ⁸ Inauteri.

- ⁹ Egunsentian.

.....

Presondegitik hiltzeko tokira bide erditan gelditurik, oihu egin du: «*Vive l'anarchie! Mort à la société bourgeoise!*»... erran nahi baita: «Biba anarxistak! Leher egin dezatela aberats eta buruzagi guziek!».

Holakoak izan dire haren azken hitzak, ba eta naski azken gogoetak ere. Ezen ez du erakutsi den gutieneko urrikirik, ez gizoneri, ez Jainkoari buruz.

Hiltzerakoan aphezak galdatu dionean ea etzenez nahi barkhamenduskatu, ihardetsi dio: «ez jauna, ez dut gaizkirik egin, eta ez dut hiltzeko nehoren laguntzaren beharrik. Bizkitartean ori, jauna, letra hau emanen diozute ene izenean ene ahaideri; ez duzu bertze deus egiten ahal enetzat, eta ez dautzut deus galdatzen».

Dohakabea! Bi hilabete bortz egun guti eman ditu presondegian. Hogoi egun bazituen hiltzera kondenatua zela. Hogoi egun eta hogoi gau luze bizi izan da herioarekin buruz-buru.

Goiz guziez lotarik atzartzearekin bere begien aitzinera heldu zitzaion lepho mozteko tresna izigarri hura. Arrats guziez lotan sarthu baino lehen bere baithan erraten ahal zuen: «bihar.. bihar goizean gillotina!».

Gogoetarik ikharagarrienak egiten dituzte holakoak azken egunetan; eta bereziki gauaz, erdi lotarik nigarrez eta oihuka artzen dire.

Vaillant horrek ez du den gutieneko beldurrik, ez bihotz-minik erakutsi. Ongi jaten eta edaten ere omen zuen. Egunaz bethi irakurtzen edo izkribatzen ari zen; gauaz lo, harria bezala lo. Ez omen zuen iduri amets handirik egiten zuela. Arima salbu eta abere bat edo azinda¹⁰ bat ez da hiltzeko bezperan hura zen baino iduriz trankilago.

Azindek eta aberek hil aitzinean ez dakite zeri dauden; harek bazakien eta hale-re lo ongi egiten! Ez denez ikharagarri, gizona hortaratua ikhustea!

Vaillant eta Ravachol

Duela urthe bat eta erdi hil zen holaxet Vaillant horren iduriko bertze anarxista bat, Ravachol deithua.

Hori baino itsuskiago mintzatu zen hura hiltzerakoan. Irriz eta kantuz, oihuka eta juramentu arrailka, aphezari eta kurutzefikari thu eginez joan zen, bide guzian bere atheraldi ikharagarriez oro harrituak zauzalarik.

Oraiko Vaillant hunek ez du harek bezenbat ahapaldi itsusi eta harrenbertze oihu erabili; bainan etzen gutiago lazgarri haren ikhustea, begithartea zuri-zuria egina, bere begi zorrotzak alde orotaratzat itzulikatuz, oihu egin duenean: «*Vive l'anarchie!*».

Hobeki eginen zuen aphezaren oinetan belhaunikatzea, bere krima¹¹ handientzat barkhamendu ardiesteko. Bainan ez. Nahiago izan du bizi bezala hil. Ez ukhanik ere Ravacholek bezen mihi zikhina, harek bezenbat edo gehiago urgulu bazuen; urgulu bat gaitza!

Eta horra nolakoak izan diren harentzat urguluaren ondorioak.

Jan Hiriart Urruty, *Gontzatarik jalgiaziak*, Iñaki Caminoren edizioa, Donostia, Klasikoak, 1994

— ¹⁰ Azienda, abere.

— ¹¹ Heriotze.

2.8 Pertsonaia baten bihotzean azterka

Bihotza ehiztari bakarti bat da dio Carson McCullersen liburu baten izenburu ederrak. Gure afektibotasunaren tiki-taka erregistratzen duen punpa bat ere bada. Hartan azterka egitea halako baten gisara funtzionatzeko dauzkan arrazoiei buruz galdetzea da. Arrazoiak diogu, eta ez sentimenduak, zeren eta gure ustez bihotzak arrazonatzen baitu, adimenak sentitzen duen modu berean.

Batzuetan, bihotzaren arrazoiak edo adimenaren sentimenduak ez daude argi, eta neuronekin nahaspila bat egiten zaigu. Hori dela eta, agian, pertsonaiek, beren barneko joan-etorriekin, geu gauden kontraesanen itsasoan, argia eman ahal digute, nahiz eta, paradoxa bat izanik ere, liburuia itxi bezain laster irakurri aurretik geunden bezalaxe gelditu. Liburuetan dena modu miragarrian azaltzen da, bizitzan ez bezala. Eta bizitzan arazoak modu arrazoizkoan azaldu badaitezke ere, hori ez da askotan nahikoa kontso-lamendu izaten.

Nola sar gaitezke kontakizun bateko pertsonaien bihotzean? Bada, lehenbizi, nahitaez, sentimenduzko, maitasunezko kontakizun bat irakurriz. Bide batez, esan dezagun horrelako narrazioak izugarri gustatzen zaizkiela nerabeei. Ondoren, eskura dagoen metodo bakarra aplikatuko dugu, adimena, pertsonaia jakin baten sentimenduen profila egitera eta haiek argitzera eta zehaztera bideratua.

2.9 Gaiztoaren jokabidean balioak identifikatzea

Ongiari eta gaizkiari, onari eta txarrari buruzko gogoetak oso ohikoak izaten dira nerabeen diskurtsoetan. Nerabeak horri buruz dauzkan ideiak oso irmo eta dogmatikoak izaten dira. Horrek guztiak daukan alde txarra da ez dutela onartu nahi izaten besteek kontra egitea. Agian, adimeneko heldutasun faltak daukan sintometako bat horixe izaten da: kategoria etiko eta moralen defentsan malgutasunik ez erakustea.

Halere, abiapuntu gisa hartzen badugu inongo subjektuk ez duela bere izatearen aniztasun guztia egintzetako bakar batean agortzen, ados egonen gara esatean egiten duen guztia ezin dela katalogatu on gisa nahiz txar gisa modu eskusibo eta baztergarrian. Beti geratuko dira artistak, ongian nahiz gaizkian. Benetako egia arrakalarik erakusten ez duen bakarra da, konplexua izanda ere.

«Pieza bakarreko pertsonaiei» buruz hitz egiten bada ere —izugarria da hori benetan—, egia esan behar bada halako pertsonaiarik ez da existitzen. Inor ez dago hala sorturik. Guztiok, baita gaizkile doilorrenek ere, ontasun edo gozotasun uneren bat izaten dugu gure bizitzan, bereziki amarekiko edo zakurrarekiko harremanean.

Egia da gainerako jendea gustatu ohi zaigula gure antzekoa den neurrian edo desatsegin zaigula geu garena gogora ekartzen digun neurrian. Hori dela eta, zaila da proposa-

.....

tzen duguna: zakar, moralaren aurkako eta mespretxagarritzat jotzen den pertsonaiaren jokabidean balioak aurkitzea, halakorik badago, eta zergatik diren balioak arrazoitzea.

HERIOA ARRATSEAN

Aparkalekuan nagoela ezin dut autoa zehatz aurkitu. Galdu egin dut aparkatzeko txartela. Toreatzaile zaharra bezala sentitzen naiz, seguruenik toreatzaile zaharra baino dexente zaharragoa naiz.

Autoa aurkitu dut, sartu naiz. Abian jarri da.

Eguzkia etzatera doa.

Atera dut handik autoa, sekula baino etsiago eta alienatuago. Etxe oneko jendea alfer hutsa da eta gainerako guztiak ergelak.

Hegoaldera jo dut, Cherokee-z noa, argi gorriren aurrean gelditu naiz irudimenik eta aterperik gabeko 8 edo 9 hiritar harat-honat dabiltzala, ahituak, egur emanak. Argi berdea agertu zait, arrats epelean barrena noa, autopistara sartu eta segituan 3 umemokok gainelikatutako Chevy¹² bati erronka bota diot. Bada, barru-barruraino sakatu dut eta hor datoz orain nire atzetik, azpijale begiz, hatz luzearen imintzioa egiten didatela, bitartean arrats purtzila gau purtzil bihurtuz doala. Zortea izan dut. Auto-ilara handi batean murgildu dira. Nik barrualdeko bidea libre daukat eta jauzia egin dut 130era, 150era, gero atzerako ispiluari begiratu arina egin diot, eta bertan ikusi ditut umemokoak harrapatuak, eta handik gutxira San Pedron naiz.

Aurkitu egin dut neure betiko txokoa, garajerako bidetik sartu, aparkatu, kanpora irten...beste toreatzaile zahar bat sinpleki. Ordea, etxe barruan, atea zabaltzean, nire katu xuri begikoena, Jinx¹³, jauzi batez ene besoetara igo eta behingoa maitemindu naiz berri ere.

Charles Bukowski, *Poema Antologia*, Josu Lartategiren itzulpen eta apailaketa, Zarautz, Susa, 1997

2.10 Onaren jokabidean kontrabaliok identifikatzea

Jarduera honen xedea da aurreko ariketan proposatu dugunaren kontrakoa lortzea. Kontua da autorearen jakinduria narratiboari esker kontakizunaren pertsonaia ona –edo azkarrarena– denaren jokabideko ertz zorrotzak identifikatzea.

Bizitza honetan inor perfektua ez denez, ezta gaiztakeriak edo ekintza onak eginez ere, ez dugu asko beharko onaren izaeran xehetasun batere nobleak ez direnak aurkitzeko. Planteamendu honetan guztian zerbait zehaztu beharra dago: anbiguotasun moralaren ur uherretan mugitzen ari bagara ere, *Altxoraren Uharteko* John Silverrengan kritikari batzuek ederki islatuak ikusten duten jokabidearen marra ilun horretan, esan dezagun gure asmoa ez dela halako tipo konplexuen jokabidea aztertzea. Nahikoa dugu on itxurak dituen pertsonaia daukan kontakizun batekin.

– ¹² Chevrolet-en txikigarria.

– ¹³ *Jinx* hitzak, ingelesez, “iraxoa” zein “zorte txarra dakarrena” adierazten du. Neskentzako ponte-izena era bada.

Horrenbestez: behin kontakizunean zehar ontasun ildo bat utzi duen pertsonaiaren jokabidea aztertuta, haren alde ilunak aurkitzen saiatuko gara. Azken batean, guztiok daukagu sekreturen bat ongi gorderik. Oraingo kasuan, sekretu hori agertzera emateak beste guztien artean ahulago eta askatasun gutxiagoko agerraraziko du delako pertsonaia.

Emaztearen hilotza jasotzera joan zenean, eroetxeko zaintzaile batekin topatu zen Paulino.

- Ez, oraindik ez, autopsia egin behar diote eta.

- Autopsia?! Zertarako?!

- Zertaz hil zen zehatz eta mehatz jakin ahal izateko.

- Zertaz hil zen?! Ez al dago ba garbi?

- Ustez bai, baina...

- Ustez?! Hauxe mundua, eroa eroak zaintzen...!

Bigarren aldiz joan zenean, hilkutxan sartuta aurkitu zuen.

- Hilkutxa ordaintzeko dirurik ez dut...

- Lasai, zure kasuan Estatuak ordaintzen du eta –erantzun zion beste zaintzaile batek.

- Ez nuen uste gizon hori hain eskuzabala zenik...

Zaintzailearen eta hiru laguntzailearen artean eraman zuten katabuta Paulinoren zalgurdira, non Diego aurrealdeko jartokian eserita baitzegoen, mandoaren aho-uhalei eutsiz, aitaren zain.

- Goazen! –oihukatu zuen Paulinok, eta mandoa makilaz astinduta, Sotoviejorako bidean jarri zen.

Paulino liluratuta zegoen, amesgaizto baten sareetan harrapatuta, arrain bat bezala, bertatik ihes egin ezinik.

- Ai, Manuela, egurrezko etxe hori merkea atera zaigun behintzat.

Ez zekien barre egin ala negar.

- Hegan egin nahi huela esan zidanate, Sotoviejoko balkoiak beltzez jatzeko. Baina amets hori ere bete gabe joan behar izan dun mundu honetatik...

Diegok isil-isilik entzuten zion aitari.

- Zin egiten dinat aurrera aterako dudala gure mutila.

Gero, bere burua madarikatu zuen Manuelarekin behin baino gehiagotan gaizki portatu izanagatik, baina are gehiago madarikatu zituen Sotoviejoko herritarrek, don Narciso bereziki.

- Ez zigunate bizitzen uzten, Manuela.

Sotoviejora iritsi zenean bezero ohi batek geldiarazi zuen, doluminak emateko.

- Atsekabeen laguntzen diat.

- Hik egon beharko huke, hik, hilkutxan sartuta!

Kaleetan azaltzen ziren herritarrei begiratu ere egin gabe, herria zeharkatu eta herriaren bestaldean zegoen kanposantura iritsi zen.

Joan Mari Irigoien, *Consummatum est*, Donostia, Elkar, 1993

.....

2.11 Aldaketak proposatzea pertsonaien arteko harremanetan

Helburua da pertsonaien arteko harremanetan aldaketa batzuk proposatzea. Aldaketak sartzeko, noski, testua ongi ulertu beharko da, baina aldaketak egiteko asmo zehatzak ere argi eduki beharko ditugu.

Aldaketa-aukerak askotarikoak dira. Eragiten dituenaren psikologiaren arabekoak izanen dira aldaketak, bai eta eragileak kontakizunaren egitura menderatzen duen neurriaren arabekoak ere.

Pentsa dezagun pertsonaien arteko harremanek berekin dakartela kontakizuna ongi edo gaizki, egitura irekiarekin nahiz egitura itxiarekin amaitzea. Saia gaitzen ondoko kontakizunarekin:

GORPUTZA ZAILTZeko ARIKETA

Amonak sarritan jotzen gaitu; bere esku hezurtsuez, erratz batez edo zapi busti batez. Belarrietatik tira egiten digu; ileetatik heltzen.

Beste batzuek ere belarrondokoak eta ostikadak ematen dizkigute; guk ez dakigu zergatik.

Zartadek min ematen dute; negar eragiten digute.

Erortzeak, urratuak, ebakiak, lana, hotza eta beroa ere sofrikario dira.

Gorputza zailtzea erabakitzen dugu, oinazea negarrik egin gabe jasan ahal izateko.

Batak besteari belarrondokoak ematetik hasten gara; ukabilkadak gero. Gure aurpegi handituak ikustean, Amonak galdetzen du:

- Nork egin dizue hori?

- Geuk, Amona.

- Ezergatik ez, Amona. Ez zaitetz kezka; ariketa bat baino ez da.

- Ariketa bat? Zuek burutik eginda zaudete! Tira, gustuko baduzue...

Biluzik gaude. Gerriko batez jotzen dugu elkar. Zartada bakoitzarekin batera, esaten dugu:

- Ez du minik ematen.

Indar handiagoz jotzen dugu, gero eta indar handiagoz.

Sugar gainetik pasatzen ditugu eskuak. Ebakiak egiten ditugu labana batez izterretan, besoetan, paparrean; eta alkohola isurtzen dugu zaurietan. Aldi bakoitzean, esaten dugu:

- Ez du minik ematen.

Denbora bat igaro ondoren, halaxe da: ez dugu ezer sentitzen. Beste norbait da min duena; beste norbait errea, ebakia edo sofrimendua jasaten ari dena.

Ez dugu gehiago negarrik egiten.

Amona haserretu eta garrasika hasten denean, esaten diogu.

- Utzi garrasi egiteari, Amona; hobe duzu gu jotzea.

Jotzen gaituenean, esaten diogu:

- Segi, Amona! Begira, beste masaila eskaintzen dugu, Biblian dioen bezala. Jo beste masailan ere, Amona.

Berak, orduan:

- Deabruak eraman zaitzatela, zuen Biblia eta masailekin batera!

Agota Kristof, *Koaderno Handia*, Irun, Alberdania, 1998

2.12 Jokabidean aldaketak iradokitzea

Batzuetan pertsonaia baten jarrerak kate gisako erreakzioak sortzen ditu gainerakoek jokabidean. «Bai esateak» eta «ez esateak» era askotako ondorio narratiboak ekartzen ditu segidan. Etxe bateko atea irekitzeak edo ez irekitzeak ekintza batzuk ekartzen ditu berekin, guztiak sinesgaitzak. Proposamen bati baietz esateko erabakiak gauza bera.

Planteamendua ez da ulertzen zaila, subjektuaren esperientzia unibertsalaren mendean baitago. Segurua da guztiok, gure bizitzan behin, damutu izan garela baietz esan izanaz, eta ondoren gure buruan irudikatu ditugula ezetz esateak guretzat ekarriko zituen ondorioak. Baina bizitzan ez dago atzera egiteko aukerarik ekintza batzuetan. Damua beste aukerarik ez dugu.

Eta ekintzak diogunean, pentsamenduak eta burutapenak ere aipa genitzake.

Literaturak aukera ematen du jokaldia nahi dugun guztietan errepikatzeko, aldi bakoi-tzean piezak nahi dugun moduan mugituz, aldez aurretik jakinda aurrekoan zerk huts egin zuen, eta gauza batzuk aldatuz seguruena oso bestelako emaitzak lortzeko.

Hartara, bada, zein aldaketa proposatuko zenuke kontakizun honetako pertsonaia baten jokabidean? Aldez aurretik esan zer lortu nahi duzun aldaketa horiek.

HARRERA ONA

Garai batean, Hegoaldeko nekazari lurraldeetan, baziren pasadizoko edozein arrotzi mahaia jartzen zioten etxaldeak eta etxeoandreak. Eguerdian otordu bat gogoz jatera jartzen ziren sermolari, txorroskillero nahiz langile ibiltariei ongi etorria egiten zitzairen. Seguru aski horrelako etxeoandreak izango dira oraindik. Nire izeba, Jennings Carter andrea behintzat bai. Mary Ida Carter.

Haurra nintzela denboraldi luzeak ematen nituen bizitzen Carterarren etxaldean, orduan txikia baina gaur egun dexentea dena. Garai hartan etxea olio-krisailuz argitzen zen; ura putzu batetik atera eta garraiatzen zen, berotzeko lurreko suak eta estufak besterik ez zegoen, eta ikuskizunak, berriz, norberak antolatzen zituenak baizik ez. Arratsetan, afal ondoan, gogoak ematen zionean, Osaba Jenningsek, gizon eder, oso gizakia zenak, pianoa joko zuen bere emazte politak lagundurik, nire amaren ahizpa gazteenak, alegia.

.....

Langileak ziren oso, Cartertarrak, Jenningsek, uzta-bilketako langile gutxi batzuen laguntzarekin, zaldiz tiratutako goldeaz lantzen zuen lurra. Emazteak, berriz, eginbeharra hobeto zuen. Nik laguntzen nion haietako askotan: zerriei jana eman, behiak jeitzi, esnearekin gurina egin, artazuriketari, ilarrak eta pekanak aletzen...dena entretenigarria zen, eginbehar horietako bat kenduta, ematen zidatenean ihes egin ohi niona, eta behartzen nindutenean begiak itxita egiten nuena: oilaskoei lepoa bihurritzea. Nazka ematen zidan, nahiz eta gero mahaian ez nien muzin egiten.

Depresioaren garaian zen, baina bazen zer jana franko Mary Idaren mahaian eguneko otordu nagusirako: eguerdian ematen zen, eta kanpai handi batez aldarrikatzen zitzairen senar izerdituari eta bere laguntzaileei; ahaltso eta ongile sentiarazten ninduen.

Eguerdiko otordu horietara azaltzen ziren gonbidatuek, batzuetan espero zirenak eta beste batzuetan ez, ogi-txihortu beroa, arto-ogia, ezti-orrazeak, oilaskoa, katuarraina edo kattagorri frejitua eta babarrun gurinezkatuak eta ilar begi-beltzak izaten zituzten mahaian. 'Beno,' intziri egingo zuen Mary Idak Biblia-saltzaile oinminberaturen bat bidean hurbiltzen ikusten zuenean, 'ez dugu beste Bibliarik behar; baina hobe dugu beste plater bat jartzea'.

Jaten ematen genien haietatik guztietatik, badira hiru sekula ahaztuko ez zaizkidanak. Lehenik, misiolari presbiteriar bat, bere kristau eginbeharrak misio lurretan betetzeko herriz herri eskean ibiltzen zena. Ezin ziola dirurik eman, baina pozik emango ziola afaria esaten zuen Mary Idak. Gizajoa, premia ederra zeukan, itxuraren arabera. Traje beltz higatu, hautsez bete eta saretu batez pintxo-pintxo jantzirik, oinetan zapata beltz-beltz kirrinkari deseginak eta sonbrero beltz-berdexka buruan, azukre-kanaberaren zurtena bezain iharra zegoen. Zimurrez betetako lepo gorri luzea zeukan, eta bozioaren tamainako zintzur-hezur kulunkari bat. Ez dut sekula ikusi inor halako sakerik duenik; hiru zurrustadatan litro bat esne gurintsu edango zuen, esku bakarrak oilasko erretilukada bat irentsiko (edo bi eskuekin, biak erabiltzen baitzituen), eta gurin eta melazaz tantaka zeuden ogi-txihortuak, berriz, kontua galtzeko adina. Hala ere, irensketa-lan horrek ez zion galarazten lurralde arrisksuetako bere ekintza zirraragarrien berri ematerik. 'Gauza bat esango dizuet. Ikusi izan ditut gizajaleak gizon beltzak eta zuriak burduntzian erretzen –zerri bat erretzen den bezalaxe– eta mokadu bakoitza, behatzak, burmuinak, belarriak eta dena jaten. Gizajale horietako batek esan zidan jakirik onena haur jaioberria dela; arkumea bezalakoxea dela jateko. Hezurren ondoan mamirik ez dudalako ez ninduten jan, nik uste. Ikusi izan ditut gizonak orkatiletatik zintzilik odola belarrietatik ateratzen zitzairen arte. Behin bamba suge berde batek hozka egin zidan, munduko hozkadarik hilgarriena duen sugeak. Puxka batean alditxarturik egon nintzen, baina ez nintzen hil; hortaz, beltzek pentsatu zuten jainko bat nintzela eta leopardo larruz egindako beroki bat eman zidaten'.

Sermolari jatuna joan zenean, Mary Ida alditxartuta zegoen; bazekien hilabetez amets txarrak egingo zituela. Baina senarrak, lasaituz, esan zion: 'Maitea, ez zenuen sinetsiko esandako gezur pila hori, ezta? Gizon hori ez da ni baino

misiolariago. Basati gezurtero bat besterik ez da.'

Gero, beste batean, Alabamako Estatuaren Atmoreko espetxetik ihes egindako katibu-talde bateko preso bat izan genuen. Bistan da, guk ez genekien auskalo zenbat lapurretatik bizi arteko espetxe-zigorra zuen tipo arriskutsu bat zela. Gure atera azaldu zen, eta Mary Idari esan zion goseak zegoela eta ea jateko zerbait emango al zion. 'Begira, jauna,' erantzun zion, 'leku egokira etorri zara. Oraintxe ari naiz afaria mahaira ateratzen.' Nolabait, arropa-zabaltegiaren bati eraso egin, eta bere preso-janzkien ordezkari laneko galtza petodunak eta alkan-dora urdin higatu bat jantziak zituen. Atsegina iruditu zitzaidan, denoi iruditu zitzaigun; eskumuturrean lore baten tatuajea zeukan, begirada onbera, eta hizkera txukuna. Bancroft omen zuen izena (eta, gero jakin genuenez, horixe zuen benetako izena). Osaba Jenningsek galdetu zion: 'Zertan aritzen zara lanean, Bancroft jauna?'

'Ba,' esan zuen ahots lodiz. 'Zerbaiten bila nabil. Ia mundu guztia bezala. Trebe samarra naiz. Ia edozertarako balio dut. Ez al duzu zerbait niretzat?'

Jenningsek esan zion: 'Badut lana. Baina ezin ordaindu'.

'Ia musutruk lan egingo nuke'.

'Bai,' esan zuen Jenningsek. 'Baina horixe da nik dudana, ezer ez'. Ustekabean, zeren etxean gutxitan aipatzen zen gaia baitzen, krimen kontuan hasi ginen hizketan. Mary Ida kexu zen: 'Zer dabilta Pretty Boy Floyd, eta Dillinger hori? Jendea tiroka hiltzen bazterrik bazter. Bankuak lapurtzen'.

'Ah, ez dakit,' esan zuen Bancroft jaunak. 'Nik ez diet bankuei batere sinpatiarik. Eta Dillinger, berriz, benetan azkarra da, hori onartu behar zaio. Barregura ematen dit nola garbitzen dituen bankuak eta berearekin ateratzen den ikus-teak.' Gero, tabakoz belzutako hortzak erakutsiz, barre egin zuen.

'Beno,' kontra egin zion Mary Idak, 'hori aditzeak pixka bat harritzen nau, aizu'. Handik bi egunera Jennings gurdian joan zen hirira eta iltze potekada bat, irin zaku bat eta *Mobile Register* egunkaria aldean zituela itzuli zen. Lehendabiziko orrian Bancroft jaunaren argazki bat zegoen: "Bi kanoi"-Ban-Bancroft, agintariak lagunarteko hizkeran esaten zioten bezala, Evergreenen harrapatu zuten, handik hogeita hamar miliara. Mary Idak haren argazkia ikusi zuenean, aurpegia paperaz abanikatu zuen, konortea ez galtzeko bezala. 'Jainkoak lagun gaitzala', oihu egin zuen. 'Denok hiltzen ahal gintuen.'

Jenningsek erre esan zuen: 'Sari bat jarria zegoen. Eta guk huts egin. Horrek ateratzen nau nire onetik'.

Hurrena, Zilla Ryland izeneko neska bat izan genuen. Mary Idak bi urteko haurra bainatzen aurkitu zuen, muttiko kaxkagorri bat, etxearen atzeko aldeko basoetan sartzen zen ibai-adar batean. Mary Idak honela azaltzen du: 'Berak ni ikusi baino lehen ikusi nuen nik bera. Uretan larru gorritan zegoen...mutiko eder hori bainatzen. Ur ertzean kotoizko jantzi bat eta haurraren janzkiak zeuden, eta maleta zahar bat sokaz lotua. Haurra barrez ari zen, eta neska ere bai. Gero neskak ikusi ninduen, eta aztoratu egin zen. Izutu. Esan nion: «Egun ederra. Baina beroa. Ura ona egongo da». Baina berak haurra uretatik atera, eta errekatik alde egin zuen korrika. «Ez duzu beldurtu behar nirekin. Carter

.....

andrea naiz, hortxe haruntzaxeago bizi naiz. Zatoz pixka batean deskantsatzena». Orduan neska negarrez hasi zen; neska-koxkor bat zen, bera ere ia haur bat. «Zer duzu, maitea?» galdetu nion. Baina ez zuen erantzun. Ordurako jantzia soinean zuen, eta haurra ere jantzita zeukan. Esan nion agian lagunduko nizuke zer gertatzen zaizun esaten badidazu. Baina berak buruari eragin zion, eta esan zuen ez zitziola ezer gertatzen, eta nik esan nion, ez dakit, baina ezer gertatzen ez denean ez dugu negar egiten, ezta? Tira, etxeraino etorri nirekin, eta kontatuko didazu. Eta halaxe egin zuen'.

Bai, horratik.

Gorapeko kulunkagailuan nengoan *Saturday Evening Post* zahar bat irakurtzen, bidean gora etortzen ikusi nituenean, Mary Ida maleta hautsi bat eskuan eta neska oinuts hura haur bat besoetan hartuta.

Mary Idak aurkeztu ninduen: 'Hau da nire iloba, Buddy eta...'

'Barkatu, maitea, ez dut zure izena ongi aditu.'

'Zilla,' xuxurlatu zuen neskak, begiak beheraturik.

'Ederki,' esan zuen Mary Idak alai, 'benetan izen bitxia da.'

Zillak sorbaldak goratu zituen. 'Nire amak jarri zidan. Berak ere izen horixe zuen.'

Handik bi astera Zilla gurekin zen artean; bere izena bezain bitxia zela argi utzi zuen. Gurasoak hilak zituen, senarrak beste emakume batekin ihes egin zion. 'Emakume benetan gizona zen, eta gizon hari emakume gizenak gustatzen zitzaizkion, esaten zuen ni iharregia nintzela; eta hala, harekin joan zen eta Athensan, Georgian ezkondu ziren.' Zillak bizi zuen ahaide bakarra anaia bat zen: Jim James. 'Horregatik etorri nintzen hona, Alabamara. Azkena entzun nuen, hemen nonbait jarria zen bizitzen.' Osaba Jenningsek bere esku zegoen guttia egin zuen Jim Jamesen aztarnak bilatzeko. Arrazoi onik ez zuen falta, zeren, nahiz eta maite zuen Zillaren muttikoa, Jed, Zillari amorrua hartu baitzion: haren ahots meheak eta doinu gabeko lelo misterioitsuak erdi-kantatuz aritzeko ohiturak gaizkitu egiten zuten.

Jenningsek Mary Idari: 'Gure apopilo arraio horrek zenbat denbora gehiago egon behar du hemen?'

Mary Idak: 'Oh, Jennings. Ixxxo!, Zillak adituko dizu. Gaixoa. Ez du nora joanik'. Hala, Jenningsek bere lanak doblatu zituen. Xerifa sartu zuen tartean; herriko egunkarian iragarki bat pagatu zuen... eta hori asko egitea zen benetan. Baina inork ez zuen inguru haietan sekula izan Jim Jamesen berririk.

Azkenean Mary Idari, emakume argia baitzen, ideia bat bururatu zitzaion. Auzoko bat, Eldridge Smith, gonbidatuko zuen afaltzera, jeneralean seietan zerbitzatzen zen otordu arin bat. Ez dakit zergatik ez zitzaion hori lehenago bururatu. Smith jauna ez zen ezer asko itxura aldetik, baina berrogei urte inguruko nekazari alargundu berri bat zen, eskola-ume pare bat zuena.

Lehenbiziko afari haren ondoren Smith jauna ia arratsero azaltzen zen. Iluntzen zuenean Zilla eta Smith jauna bakarrik uzten genituen, eta gorapeko kulunkagailu kirrinkarian atzera-aurrera hizketan eta xurrunurruka egoten ziren biak elkarrekin. Jennings bere onetik ateratzen zuen horrek, zeren ez baitzuen Smith

jauna Zilla baino gustukoago; emazteak «Ixo, laztana» esanez erantzun zion berririo. 'Zaude lasai, eta ikusiko duzu,' aditzeak ez zuen ezer asko baretzen. Hilabete itxaron genuen. Eta azkenean gau batez Jenningsek Smith jauna berekin bazterrerera eraman, eta esan zion: 'Begira, Eldridge. Koplarik gabe, zein dira zure asmoak emakume gazte eder horri buruz?' Jenningsek hori esan zuen moduak mehatxu kutsu gehiago zeukan beste ezerena baino. Mary Idak pedalezko Singer josteko makinan egin zuen ezkontza-jantzia. Kotoi zurizkoa eta mahuka zabalekoa zen, eta Zillak ilean, egun hartarako bereziki kizkurto baitzuen, zetazko xerrenda batekin egindako begizta bat zeraman. Harrigarriro polita ematen zuen. Zeremonia iraileko arratsalde hotz batean egin zen masustondo baten itzalean, L.B. Persons Artzaina apaiz-lanetan zela. Gero kopa-pastelak eta pontxe frutaduna ardo goxoz bizkortua zerbitzatu zen denentzat. Ezkonberriak Smith jaunaren mandagurdian joan zirenean, Mary Idak gonaren ertza begiak igurzteko goratu zuen, baina Jenningsek, begiak sugezala bezain idor zituela, aldarrikatu zuen: 'Eskerrik asko, Jainko maitea. Eta zuk faboreak egiten dizkiguzun bitartean, nire soroek euri zerbait aprobetxatzen ahal dute'.

Truman Capote, *Kameleoiertzako musika*, Xabier Olarraren itzulpena, Iruña, Igela, 2000

2.13 Sentimendu jakin bat sorraraztea

la beti irakurketak sentimendu berezi bat sorrarazten digu, eta, agian, arruntzat hartzen diren testuak dira –horien barne direla best sellerrak eta antzekoak– irakurleari malko gehien isurarazten diotenak. Aitzitik, literaturari buruzko ideia «jasoagoa» dutenek esan ohi dute adimenaren ariketa bat dela, eta ariketa hori lortu denean, beren produkzio artistikoa «adimenaren ikuskizun» bat dela azaltzen dute. Adimena sentimenduetatik edo malkoetatik urrun dagoen zerbait dela uste omen dute.

Zer esan bereizkuntza horri buruz? Ezer ere ez orain arte ongi ez dakiguna; esate baterako: ez adimena ez sentimendua ez dira izaki kimikoki puruak. Haien hatsak subjektu irakurlearen ezagutza-ildoetan barna ibiltzen dira elkarrekin loturik. Sentitzeko ulertu egin behar da. Eta enpatikoki ulertzeko sentitu beharra dago.

Jarduera honetan egin behar dugun lehenbiziko gauza da jakin zein diren testuaren irakurketak gure subjektibotasunean iratzartzen dituen sentimenduk: poztasuna, tristezia, elkartasuna, bortxakeria, nazka, axolagabetasuna.

Bigarrena izanen da zehaztea testuan zein aldaketa egin daitezkeen bestelako helburu afektibo bat lortzeko. Horrek literaturaz gainetiko gogoeta bat egitea eskatuko du.

Noski, argudio-testu bat baldin bada, buelta eman dakioke. Hartara, baieztatzen badu, ezeztatu dezala; eta alderantziz.

.....

2.14 Testuan presente dauden jokabideak bizitako egoerekin lortzea

Hori subjektuak, inork horretara behartu gabe, *motu propio*, egiten duen zerbait da. Bereziki hurbileko erreferentziak dituzten testuetan. Hala ez bada, aipatu lotura ez da hain aise gertatuko, eta bizitakoa irakurritakoarekin lotzeko tresna psikologiko indartsuenetako bat galduko da.

Xedea da norberaren bizipenak irakurritako testuetan agertzen direnekin kontrastatzea. Zertarako? Ez norberaren psikologian, beharrezko alderaketa egin ondoren, batek topa ditzakeen laztasanak kentzeko. Noski, ezin izanen da saihestu bakarren batek horixe egitea, nahi badu.

Egiazki, garrantzitsuagoa da lortzea irakurleak antzeman dezan bere barneko mundua paperera eraman daitekeela narratiorako gai gisa. Eta harekin nahi duena eta bere kontzientzia narratiboak agintzen diona egin dezakeela.

Batzuetan, ia beti ez esateagatik, konformatu behar izaten dugu paperera eramanez bizitzan egiteko gai ez garen horixe. Hortixe heldu da jarduera honen interes ia morbosoa, betiere testuak baldintza hori betetzen duenean.

Azken batean, eskatzen dena da behin testu bat irakurrita pertsonaien, edo pertsonaia jakin baten jokabidea lotzea bizitako —edo ikusi, irakurri edo entzundako— egoera batekin.

2.15 Sentimenduetako analogiak aurkitzea

Deklarazio honek ez du esan nahi epigrafe honetan irakurritako testuek ezinbestez zerikusia eduki behar dutenik institutua, familia edo koadrila bezalakoekin. Testuak berekoikeriaz hitz egin dezake, esate baterako jeke arabiar baten kasuaz, gainerakoei esker lortutakoa banatzeko gauza ez denaz, edo txinatar baten desolazio sentimentalez, andregaiak uzten duenean. Hitz egin dezake, noski, mutil amerikar batek bere bizitzako lehenengo rugby partidari izandako porrotaz edo bere lehen itsas txakurra ehizatu duen haur eskimalaren poztasunaz.

Kontua da kontatzen diguten anekdotatik barnean duen kategoriaren abstrakzioa egitea. Eta hori ez da aisa egiten, zeren eta ez baita erraza elkarrekin lotura gutxi duten egitate batzuetatik haiei batasuna ematen dien unitatea zein den ondorioztatzea.

Horrenbestez, lehenbizi seinالاتu beharko da zein den testuak transmititzen duen egia sentimental; eta bigarrena, aipatu arloetan bizitako errealitatean txertatzea: familia, eskola, koadrila.

2.16 Testuak koloreekin elkartzea

Ez dugu ezer berririk deskubritu koloreen sinbolismoaz hitz egiterakoan. Litekeena da sinbolismo hori adar jotze hutsa izatea, baina praktikan, koloreekin daukagun erlazioak erakusten du delako sinbolismoa oso seriotan hartzen dugula. Litekeena da ez egotea lotura horretarako oinarri zientifikorik, gizartearen produktu bat baizik ez izatea.

Baina kontua da kolore beraren aurrean guztiok erreakzio berak ez izateak aukera ematen digula irakurtzen ditugun testuei buruz gogoeta egiteko.

Bilatsen duguna gogoeta da, baina ez dago arrazoirik gogoeta zientziaren ustezko inpartzialtasunari buruzko dekretu eztabaidaezinari egokitzeko. Aitzitik, geure begirada sentimentalaren joritasuna izanen da epaia emanen diguna.

Testu batek kolore urdinaren tonalitatea hartzeak soilik esan nahi du hura horrela antzematen duenak azaldu beharko duela zergatik hautatu zuen urdina eta ez marroia. Izan ere, modu gutxi-asko eztabaidaezinean, guztiok koloreak esleitzen dizkiegu konnotazio zehatz batzuei.

2.17 Pertsonaiak koloreekin identifikatzea

Batzuetan esaten dugu pertsonaia bat oso iluna dela, eta beste bat, berriz, oso gardena. Iluna beti konplexuaren, lausoaren sinonimoa da, tolesdura ugari dituenaren eta makurraren sinonimoa. Gardena, aldiz, argiaren, irekiaren sinonimoa da, tolesdurarik eta konplikaziorik gabe jokatu eta agertzearen sinonimoa.

Hori guztia arriskutsua eta okerra izan daiteke. Zeren eta irakurtzen duenak aztertzen duenaren zolitasunaren baitan baitaude argia eta iluna. Irakurle bati interpretatzeko izugarri ilun iruditzen zaionak beste batentzat inongo arazorik ez du.

Xehetasun horiek, eta bururatu ahal zaizkigun beste ugari, kontuan hartuta, funtsezkoena da pertsonaiak lotzea gauzei erreparatzeko gure modu subjektiboarekin bat datozen koloreekin, betiere ikuspegi psikologikoa erabiliz. Hori bai, irudimenari zuku pixka bat atera beharko diogu eta pertsonaia bat definitzeko hautaturiko konnotazio eta lotura kromatiko horiek modu sinesgarrian azaldu beharko ditugu.

2.18 Pertsonaien afektuak aurrez ikustea

Batzuetan, film baten hasieran edo haren erdian esaten dugu «ikusiko duzu, hori, azkenean, beste horrekin ezkonduko da». Esan beharrik ez dago batzuetan asmatzen dugula eta beste batzuetan inolaz ere ez dugula asmatzen. Baina, ulertuko duzun bezala, oraingo gure helburu behinena ez da kasuan kasuko ituaeren erdi-erdian jotzea. Jarduera

.....

honetan garrantzitsua eta interesgarria dena da ausartzea aurrez esaten pertsonaia batek kontaketa irekiaren bukaera sentituko duena; hori bai, testuak ematen dituen azarna jakin batzuetatik abiatuta.

Jarduera honek interes gehigarri bat dauka: jatorri estilistikoa edo –nondik begiratzen zaion– egiturazkoa duen xehetasun bati erreparatzea. Narratzailearen manipulatzeko trebetasunarekin zerkusua duen xehetasun bati. Izan ere, narratzaileak lor dezake irakurleari gauza bat sinestaraztea, konbentzimendu horretan mantentzea kontaketa guztian zehar, eta gero, amaierako bat-bateko gertaera batekin, guztiz kontrako ondorioa ateratzea. Sorpresa erako testuak dira, beren narrazio-xarma guztia amaierako esaldian dutenak.

2.19 Adieraztea zein sentimendu imitatu edo errefusatu nahiko zenukeen

Sentimenduen abanikoa izugarri handia da, unibertsa agian. Hori dela eta, erabilitako kontaerak modu askotakoak izan daitezke. Eta hori da, printzipioz, haiek hain erakarri egiten dituenak: gizakiok dauzkagun sentimenduei buruz hitz egiten dutela.

Jarduera hori egiteko, ongi heldu da ikasle bakoitzari galdetzea: Zein da bizitza honetan lantzea eta edukitzea gehien gustatuko litzaizukeen sentimendua? Bizitzan izan dituzun sentimenduetatik, zein dira beste inoiz izan nahi ez dituzunak?

Horrenbestez, galdera egokia, behin testua, narrazioa nahiz argudio erakoa, irakurritan, honakoa izanen da: hurrengo testuan erakutsitako edo iradokitako sentimenduetatik zein imitatu nahiko zenituzke eta zein nahiko zenuke mundu honetatik desagerraraztea?

2.20 Irudika dezagun abentura bat hautaturiko pertsonaia batekin

Abentura liburuen irakurle gisa denak elkarren antzekoak gara. Horrek esan nahi du irakurle guztiok ez dugula sari bera lortzen irakurketatik, baina bai identifikazio eta errefuserako tresna berak erabiltzen ditugula.

Psikologikoki denak ezberdinak gara kasuan kasuko identifikazioak gauzatzeko modu zehatz eta partikularretan, baino denok, ezberdintasunik gabe, egiten ditugu identitate-eragiketa horiek.

Seguruena, kontaktzen den abenturan parte hartzeko keinua, hartan esku-hartzeko joera, protagonistarentzako bide zoriontsu bat lantzeko eta beste desio gutxi-asko konziente batzuk hezurramitzeko, irakurle guztiok irakurtzerakoan izaten dugun inpulsoa da.

Oraingoan kontua ez da gure esku-hartzearekin heroia lagundu nahi izatea nozitzen dituen zailtasunak gaindi ditzan, baizik eta irudikatzea, eta horrenbestez, kontatzea harekin nolako abentura bizi nahiko zenukeen. Halere, bat-bateko jardunaren goitik beherako bide azkarrean amildu baino lehen, aintzat hartu beharko dugu «gure pertsonaia» nolako abenturaren protagonista izan daitekeen, gerta ez dadin irudimenean sortutako abentura bateraezina izatea haren izaera eta nortasunarekin.

2.21 Sentimendu bati buruz hitz egitea

Poztasuna eta tristezia ez dira pertsonaia baten aukera sentimental bakarrak. Beste batzuk ere badaude: gorrotoa, nazka, elkartasuna, malenkonia, tristezia, ziurgabetasuna, zalantza, itxaropena, nostalgia.

Pertsona bakoitzarengan berariazko tonu sentimental bat dago, beste guztien gainetik jartzen dena. Tonu hori bizitza oso baten emaitza da. Ez dut esanen, oso ohikoa den kontzeptuzko fatalismo bat erabiliz, norberak merezi duen tonu sentimentala daukala. Baina oso litekeena da, hotz-hotzean pentsatuta, bizitzan gutxi egin izana edo ezer ere egin ez izana geure burua norabide horretan hezteko. Joera izaten dugu pentsatzeko sentimenduak berez hezten direla, ezer egin gabe, kolpeak hartzearen poderioz edo topaketa gutxi-asko zorionsuen ondorioz. Errealitatean, ordea, sentimenduak, gizakia-ekin zerikusia duen gutziarekin gertatzen den bezala, hezi egin daitezke. Baina kontzientziarik ez badago, ez dago hezkuntzarik.

Horrexegatik, nerabezaroan jarduera hau ziragarria izaten da oso. Nerabe batek inolaz ere ez du uste izaten sentimendua hezi daitekeenik. Aitzitik, haren gainean determinismo soziologikoa ezartzen da halaberharrez, eta ahaztuta geratzen da gizabanakoak horri buruz zeresanik baduela. Askok diote, «halakoa naiz eta ezin dut saihestu». Inor ere ez da halakoa besterik gabe. Ez dut norberaren askatasunaren aldeko kantu miragarririk eginen, zeren eta bizitza gehienetan askatasuna iruzur hutsa izaten baita. Jarduteko, nahi duguna egiteko aukerarik ez dugun bitartean, askatasuna ez da ezer. Baina horrek ez du esan nahi bizitzan nolakoak izan nahi dugun erabakitzeke garaian esateko ezer ez dugunik. Edertasun edo itsusitasun fisikoa heredatzen ditugu, baina ez edertasun edo itsusitasun etikoak. Horiek nork bere aldetik eraikitzen ditu, besteekiko dialektikaren bitartez.

Azken batean, helburua da guztiok gogoeta egitea, testu bat irakurri ondoren, gure nortasunean nagusitzen den sentimenduari buruz. Seguru nago planteamendu hau harrigarri gertatuko dela, zeren eta subjektua, irakurlea izan nahiz ez izan, oso gutxitan geratzen baita horri buruz gogoeta egiteko.



.....

2.22 Egoera zuzengabeak kritikatzea

Irakurtzea baliagarri suertatzen da gudan testuak salatzen duenaren aurkako halako ezin-negon bat sorrarazteko. Hemen, gauza ia guztietan bezala, irakurgaiak hautatzean datza gakoa, hori, zalantzarik gabe, berez ekintza ideologiko bat baita. Inor ez dago horretatik libre. Irakurgaien halako corpus bat hautatzen dugun momentutik, agerian jartzen ari gara gure ideologiaren humusa. Pertsona tolesgabe batzuek uste izaten dute ideologikoki eunukoak direla. Baina horrelakorik ez dago. Gutxitan hautatuko dira testuak irizpide estetiko hutsak erabiliz. Estetikotasuna ez dago ideologiatik kanpo. Testu asko, autore faxistek bikain idatzitakoak, ez dira sekula ikasgeletan sartuko, bereziki autoreen konbikzioak gizaki orok merezi dituen duintasun eta errespetu oinarritzkoen aurkakoak badira. Eta ikasgeletan sartzen badira, haiek goitik behera laurdenkatzeko izanen da.


Hemen nik egoera zuzengabe deitzen ditudanak, agian, ez dira halakoak askorentzat eta, horrenbestez, eztabaida eta gogoeta ekarriko dute zalantzarik gabe. Horixe da kontua. Zehaztea zer den guk «egoera zuzengabe» esaten duguna. Ez legoke gaizki guztion artean horri buruz hitz egitea, hau da, ikasleei planteatzea ea era horretako egoerak ezagutzen dituzten, pairatu ote dituzten, edo haien hurbileko norbaitek nozitu ote dituen. Are gehiago, ikasgelan egoera zuzengaberik egoten al da? Nola ebatzi hori?

Testu askok, eta ez soilik narrazioek, sozialtzat jo ditzakegun eduki horiek planteatzen dituzte. Gure ikuspegia ez da hainbeste apostolu sozialaren papera betetzea; bai, ordea, saiatzeta irakurtzen duen subjektuak egoera horiei antzeman diezaien eta zuzengabeak zergatik diren gogoeta egin dezan. Norbaitek gai horretan urrunago edo hurbilago iritsi nahi izanez gero –egoera horien arrazoiak edo balizko soluzioak bilatuz– ez diogu guk, ez horixe, oztoporik jarriko.

2.23 Nolako izanen litzateke zuretzat istorio triste bat? Eta istorio alai bat?

Ariketa honek orain arte adierazi ditugun iradokizun ia guztiak batera biltzen ditu. Kontua da irakurleak gogoan hartzea istorio triste bat edo istorio alai bat irudikatzeak aukera. Horretarako, galdera honi erantzun beharko dio: zein osagai edukiko ditu kontagai horrek?

Ariketaren xedea litzateke ez irakurtzea, baizik eta idaztea. Ikuspegi horrek ez du inor ikaratu behar, zeren eta testuekin egindako ibilbidea egin eta ondoren, zerbait ere gertatuko zen irakurlearen buruan. Seguruena alderdi batzuk xehekatu beharko dira: erabilitako hitzen eremu semantikoak esanahiaren aldetik zama bat eramanen du hautaturiko sentimenduaren arabera (aditzak, substantiboak eta izenondoak); kontakizunaren egitura, egoerei dagokienean, batez ere amaierako egoerari dagokionean –irekia ala itxia izanen den–, kontu handiz landu beharko da; pertsonaia motak ongi aukeratu beharko dira...



3

SORMENA



Hezkuntzaren arloan –eta beste arlo batzuetan ere bai– harat-honat dabilzan topiko ugarien artean, hau da bat: sormena irakurriz lantzen da.

Horrela pentsatzen dutenak behin baino gehiagotan harrituko dira curriculumak direla-eta, pertsona ugari topatuko baitituzte beren planteamendu ideologiko eta narrati-boetan sormenik batere ez dutenak irakurle porrokatuak izanik ere.

Horrenbestez, esan dezagun irakurtzeak sormena lantzeko balioko duela baldin eta proposatzen ditugun jarduerak perfektionatze hori bilatzen badute. Zeren eta sormena ez baita besterik gabe lantzen edo garatzen; are gutxiago zerutikako zientziaz.

Sormena ez da hutsetik sortzen. Aurrena, memoria, asoziazioak egiteko gaitasuna, lan diziplinatua, seriotasun linguistikoa eta zorroztasunez eginiko jokoak astindu beharko dira. Jai du uste duenak sormena haurraren edo helduaren jatorrizko irudimenetik bat-batean sortzen den zerbait dela uste duenak. Zehazki, ahal den bezain laster baztertu behar dugu haurrek egiten duten guztia miragarria eta irudimenez betea dela uste dutenen aurreiritzia. Gezurra da.

Sormenak beti alde aurretiko ezagupenak eskatzen ditu, hain zuzen ere jardueran bertan lortzen joaten diren ezagupenak, Hori dela eta, hura probokatu eta akuilatu beharko da. Horri dagokionez, irakurtzea baliagarria izan daiteke.

Orrialde hauetan proposatzen diren jardueretarako, abiapuntu gisa, testua ulertzea eskatzen da. Testuak ulertu gabe, ezin da testuekin inolako sormenezko manipulazio edo eraldaketa lanik egin.

Sormena garatzeko, analogia- eta asoziazio-prozesu batzuk hartu behar dira kontuan; izan ere, horiek ezin dira praktikara eraman memoria landu gabe. Horrenbestez, sormenak ez du soilik exijitzen gaitasun intelektual batzuk edukitzea, baizik eta, baita ere, haiek nolabait ere piztea ulertzeko irakurketarekin lotura duten neurrian.

Sormena izateko ulertu egin behar da. Baina testuak ulertzeko bidean barna sormenari esker ibili ahalko gara, horretarako ahaleginak eginez gero. Horrenbestez, proposatzen ditugun jardueretan bi prozesu ezberdin baina elkarren osagarri garatuko ditugu.

Sormenak orientabide ludiko bat edukitzeak berekin ekarriko du ulertzeko jarduera, beti prozesu intelektualekin lotuta dagoena, alaitasun handiagoz gauzatzea, betiere zorroztasuna eta seriotasuna galdu gabe. Sormenaren jokoak, zentzua irabazi nahi badu, arau batzuk errespetatu beharko ditu. Orientazio horretaz baliatuko gara irakurriaren ulermena/gaitasuna garatzeko ez ezik, irakurlearen sormenezko begirada ere garatzeko. Ikuspegi horretatik, gure asmoa sormena garatzea bada, irakurtzeari begira jarritako helburuak mugagabeak suerta daitezke. Hartara multzo bat egingen dugu haiekin, betiere aintzat hartuz sormena eta testuen ulermena banaezinak direla.

3.1 Soinu efektuak bilatzea

Gutxitan –inoiz ez ez esatearren– erabiltzen ditugu ikasgeletan musika eta literatura batera biltzen dituzten jarduerak. Historian zehar, ordea, oso harreman estua eta probetxuzkoa izan dute bi arlo horiek. Literaturak eta musikak ikasgelan erabili beharko liritekeen gauza ugari dituzte komunean, zeren eta, gainera, musikak interes handia sortzen baitu nerabeen artean.

Proposatzen dugun jarduera oso erraz eta oinarrizkoa da, eta bestela dirudien arren, ez du probatzen ikasleek kortxeen eta abarren arloan dauzkaten ezagupenak, are gutxiago ikasleek dauzkatenak. Kontua da testu bat irakurtzea –edozein testuk balio du hemen, azaltzailea, narratiboa nahiz deskriptiboa– eta bost pertsonako taldetan hura imitatzea kasuko testuari egokitzen zaizkion musika soinuak erabiliz. Soinu ezaugarri horiek ahoz ongi artikulatutako soinuak edo, bestela, eskuz nahi dena joz lortutakoak izan ahalko dira. Hori bai, saihestu egin beharko da lortutako «musika» zarata jasanezina izatea.

Jarduerak bestelako soinu-bidea ere har lezake. Esate baterako, testua ahoskatzea xuxurlatutako melodia bat edo salmo bat balitz bezala. Hori guztia testuak dioenaren eta guk daukagun sormen-xedearen arabera izanen da. Eta, noski, testua irakurrita ulertu dugunaren arabera. Testuak poztasuna isurtzen badu, ez da oso egokia, esate baterako, hileta kantua edo miserere estiloa hautatzea.

3.2 Musika iradokizunak sortzea

Oraingoan ez dago musika asmatu beharrik. Hura ekarri edo gogoratu behar da. Helburua da irakurritako testua ongi dagokion edo egokitzen jotzen den melodia batekin lotzea.

Musikaren jatorria edozein izan daiteke: klasikoa edo guztiz modernoa. Rocka edo rapa. Flamenkoa edo jota. Boleroa edo pasodoblea. Gutxienekoa da hori. Kontua da loturak egiteko beldurra galtzea, ez baitugu halakoak egiteko ohiturarik. Agian, lehenbiziko esperientziaren emaitza izugarri txarra izanen da, baina, hala eta guztiz ere, ikasleek berriz saiatu nahi izanen dute. Eta bigarrenegiz egiten denean, bide egokiagoa topatuko dute, zalantzarik gabe.

Ohartarazpena: ariketa hori egiteko testu egokienak olerkiak izan ohi dira, baina, batzuetan, azalpen-testuek eta argudio-testuek ere egoera barregarriak sortzen dituzte, eta humorea, gaur den egunean, eskertzekoa izaten da.



.....

3.3 Testuko leku- nahiz denbora-kategoriak aldatzea

Narrazio-testuetan leku- eta denbora-kategoriak ez dira ezinbestekoak izaten. Alde batera utzi ahal dira testuak esanahiaren aldetik ezertxo ere galdu gabe. Hala eta guztiz ere, ipuin edo istorio gehienetan ia beti osagai horiek agertzen dira, eta, horrenbestez, pentsa dezakegu halakorik ez izateak nabarmentzeko moduko galera narratiboa ekarriko duela. Egia esan, hori guztia autoreak kategoriatan horiek erabiltzerakoan bere buruari ezarri dion asmo komunikatibo eta literarioaren baitan egonen da. Batzuetan gertatzen da, halere, delako kategoriak inongo helbururik gabe erabiltzen direla. Hartara, ipuin asko, haiek kendu eta ondoren, berdin txarrak edo onak izanen dira.

Galdera hau ez da alferrik: zer ekarpen egiten diote leku- eta denbora-kategoriek testu narratiboari? Ba al dute eraginik mezuan edo kontaeraren konposizio-antolamenduan? Baiezkoan, galdera konprometitua egin genezake: egitura horiek aldatuta, kontaeraren esanahia ere aldatuko ote da?

Gogora dezagun denboraz hitz egiten dugunean, denbora historikoaz ari garela, alegia, irakurtzen duguna noiz gertatua den. Ez gara ari kontaeraren denboraz edo historiaren denboraz, beren baitan manipulazio eta eraldaketa joko konplexuak biltzen dituztenak. Gauza bera diogu lekuari buruz, hau da, egintzak gertatzen direneko lekuari buruz: leku irekiak, itxiak, hiri girokoak, landa girokoak, itsaso girokoak. Halaber, geure buruari galde geniezaioke: berdin al da kontatutakoa hiri batean edo herri batean gertatzea? Leku itxian edo leku irekian? Xehetasun horiek noraino dute eragina narrazioaren semantikan eta sintaxian?

Kontua ez da kategoriatan horietakoren bat besterik gabe aldatzea, baizik eta hura asmo jakin batekin aldatzea: hain zuzen ere, aldatzean kontakizunak ere bere sakoneko egituraren aldatzea.

3.4 Pertsonaien izaera eraldatzea

Nola lortzen da pertsonaia baten karakterizazioa? Errazena da era guztietako izenondo kalifikatzaileak erabiltzea, pertsonaiaren gorputzari eta arimari buruzkoak. Eta, hartara, testuak esan ahalko digu norbait altua, sendoa, on-puska eta amore-emailea dela. Edo, bestela, baxua, gaiztoa, erasokorra, ankerra. Egia esan, horrelako karakterizazio batek datuen estatistika bat baizik ez digu ematen, baina ez digu subjektuaren egiazko erretratua egiten. Edo egiten badu, intentsitate literario baxuarekin egiten du, alegia, modu ez batere erakargarrian. Eman dezagun norbait inteligentea dela esaten dela. Zer ulertu behar digu pertsona inteligentetzat? Guk ulertzen duguna edo egileak ulertzen duena?

Gure iradokizuna da pertsonaia baten karakterizazio egokiena ez dela heldu egileak atxikitzen dizkion izenondoetatik; aitzitik, zeharka heldu zaio, hau da, bere egintzetatik

heldu zaio. Ez da nahikoa esatea norbait eskuzabala dela; demonstratu egin beharko da hori. Horixe da lengoaia literarioa.

Ariketak, horrenbestez, bi une izanen ditu.

- Lehenbizi, testu bat hautatuko dugu, non pertsonaiek ez duten izenondoen bitartezko inongo karakterizaziorik. Pertsonaien egintzak aztertuz eta baloratuz haien izae-ra ondorioztatuko dugu. Hortxe dago gakoa.

LI CHI-K SUGEA HIL ZUENEKOA

Yüeh izeneko lurraldean, bada mendikate bat Yung deritzana. Mendikate hone-tako tontor batzuk oso garaiak dira eta ipar-eguzki aldera bada kobazulo bat. Antzinan sugetzar handi bat bizi zen kobazulo horretan, hogeit hamar edo hogeitabost metro zituen luzeran, eta zabaleran, berriz, hamar zehe gutxienez. Inguruetakojendea beldurturik zuen eta hiruburuko jaun, epaile eta funtzionario asko janak zituen. Herritarrek eskainitako behi eta ardi guztiek ere ez zuten munstroaren gosea asetzen, eta gizonen ametsetan sartuz, hamabi-hamabi urtetako neskatxak esijitzen zituen jateko.

Etsiturik, gobernadore eta epaileek morroi eta gaizkileen alabak hartzen zituzten izendatutako egunaren zain. Urtero, zortzigarren hilabeteko egun batean, neskatxo bat utzi behar zuten munstroaren kobazulo aurrean, azken honek jan zezan. Egoera honek bederatziretez iraun zuen eta bederatzirezen hildako neskatxak.

Hamargarren urtean, funtzionarioak urte hartako neskaren bila hasi ziren, izendatutako egunean prest egon zedin. Chiang Lo herrian Li Tan izeneko gizon bat bizi zen, sei alaba zituen eta seme bat ere ez. Chik, alaba gazteenak, bere burua eskaini zien funtzionarioei. Gurasoek ez zuten onartu nahi baina berak zera esan zien:

- Aita, ama, ez duzue zainduko zaituztenik, sei alaba izan baitituzue, baina seme bat ere ez; familiarik izan ez bazenute bezala. Ez dakit nola zainduko zintuzketedan zahartzaroan, eta bakarrik balio dut janari eta jantzietan gastua emateko. Eta bizirik laguntzen ez zaituztedanez gero, zergatik ez hil piska bat lehenago? Zer gaitz dago nire salmentan zuen onerako baldin bada?

Gurasoek biziegi maite zuten alaba ideia hori onartzeko, baina berak ezkutuan alde egin zuen.

Li Chi neskato bolondresak ezpata zorrotz bat eta zakur suge-ehiztari bat eskatu zizkien agintariei. Zortzigarren hilabetean izendatutako eguna iritsi zenean, neskatxa tenplura joan zen, ezpata hartu eta zakurrarekin abiatu zen. Baina lehenago arroz eta azukre erreaz egindako albondiga batzuk hartu zituen eta sugearen kobazulo aurrean utzi.

Sugetzarra azaldu zen. Bere burua arroz kupel bat bezain handia zen eta begiek bi ispilu ziruditen. Arroz eta azukre erreaz egindako albondigak usaintzean, ahoa ireki zuen jateko. Orduan Li Chik libre utzi zuen zakur suge-ehiztaria horzka hasi zitzaion. Li Chi zakurraren atzetik abiatu zen eta zauri sakonak egin

.....

zizkion sugeari ezpata zorrotzaz. Zauri oso-oso mingarriak zirenez, munstroa kanpora irten zen eta hilik geratu.

Li Chik kobazulora sartuz hildako bederatzi neskatxoek buruezurrak hartu zituen. Gero, atera zituenean, zera esan zuen hasperenka:

- Zuen epeltasunak hil zaituzte. Hau tragedia handia!

Eta etxera bueltatu zen astiro-astiro.

Yüeh erregek gertatutakoaren berri izatean, Li Chi erregina egin zuen, bere aita epaile izendatu eta ama eta alaba zaharrenak aberastasun ugariz hornitu.

Harrez gero ez da munstrorik lurralde haietan.

Xabier Etxaniz Zazpi ahizpak. Txinako ipuinak, Iruña, Pamiela, 1992

- Bigarren, izaera hori aldatu nahi badugu, aipatu egintzak eraldatu beharko ditugu deskribatu nahi dugun temperamentuaren arabera. Eraldatzea berariaz egin daiteke –kontaerako protagonistak izenondoen bidez kalifikatuz– edo modu inplizituan –bestelako izaera eta sentimenduak iradokiko dizkiguten egintza batzuk txertatuz–.

3.5 Beste pertsonaia, egoera eta ideia batzuk gehitzea

Ariketa nahikoa erraza da. Xede bakarra du kasuan kasuko testu gehigarria egiten duenaren koherentzia egiaztatzea. Kontua ez da testua goitik behera eraldatzea, baizik eta ezaugarriren bat gehitzea.

Bikoteka egiteko oso egokia da jarduera hau. Bikote bakoitzak testu bat hartuko du. Testua azaltzailea, argudiozkoa edo narratiboa izan daiteke, baita poetikoa ere. Nahiago badu, irakasleak testu horiek eskuratu ahaliko dizkie ikasleei.

- Lehenbizi, komeni da testua arretaz irakurtzea, zeri buruzkoa den jakiteko.
- Bigarrenik, pentsatu beharko da zein pertsonaia, zein egoera edo zein ideia sar daitezkeen testu horretan.
- Hirugarrenik, testu gehigarria idatziko da.
- Laugarrenik, egindakoa besteei azalduko zaie, eta gainerako ikasleei eskatuko zaie asmatzeko zein den gehitutako testua eta zergatik gehitu den. Logikoa den bezala, taldekideek ez dute jakinen zein den ariketa egiteko erabili den oinarritzko testua, hain zuzen kasuko egoera, ideia edo pertsonaia gehitu aurretik zegoena.

3.6 Autoreak jaso ez dituen xehetasunak gehitzea

Oso litekeena da testuaren egileak uste izatea testua guztiz burututa dagoela, baina askotan gertatzen da bati iruditzen zaiola ipuin bat, kontakizun bat, testu azaltzaile bat edo argudio-testu bat edo baita olerki bat bera ere bukatu gabe dagoela. Betiere, aukera egonen da zerbait gehitzeko edo kentzeko. Halaber, testua betiko zirriborro bat

izanen bada, ez da inongo arrazoirik egonen erreparo hori ez aplikatzeko edozein idazleren lanari, izen handiko idazlea bada ere.

Antzinako maisuak lanean Bernharden aipu bat aurki daiteke, non esaten baitu edozein lan arretaz begiratzuz gero beti akatsen bat aurkituko dugula.

Gure helburua ez da akats sintagmatiko edo estilistikoak topatzea irakurgai ditugun testuetan, baizik eta xehetasunen bat falta ote duten egiaztatzea.

Batzuetan, irakurleak, ohar batzuk egin beharrean aurkitzen denean, egiazkoak ez diren akats edo xehetasunak aurkitu ohi ditu testuetan, baina gutxienezkoa da hori. Gutxienezkoa da zeren eta aukera ematen baitugu testuaren kontzeptu edo egitura batzuei buruz gogoeta egiteko, eta horixe da, azken batean, gure helburua. Agian, askoz errazagoa izanen da ariketa hau narrazio testuetan txertaturiko deskribapen sekuentziak erabiliz gero. Eta esandakoa: garrantzi handikoa da sinatzailea nor den ez begiratzea, zeren eta, esan den bezala, testu guztiak hobetu baitaitezke, esaldi batzuk gehituz nahiz beste batzuk kenduz.

Horrenbestez, zer gehituko zenioke ondoko testuari:

BAKANAK

Luigi Anselmi-ri

Bakanak dira gizon bikainak, eta eurotan berriz, banakeria onak. Isilik eta aspamendu barik ikusiko dituzu paseatzen beti bakarrik. Nekez egingo dizu adiskiderik honek, baina bera lako bat aurkitzen dizunean, ez dizute apenas hitzik egiten, yonkien antzera begirada hutsez aise ezagutzen baitute elkar, eta bide berbera mutu jarraitzen. Ez dituzu erraz aurkituko. Beharbada ilunabarrean, eguna amaitzean, hor argiak denok antzekotu egiten gaituen unean. Nekaturik ematen dute. Nik haurtzaroan, behin, bat ezagutu ote nuen sinestea nahi izango nuke. Esan zidan aitak eskutik helduta nideramalarik: begiratu egizu ondo, hor doan hori, gizon on bat da. Nor da? Galdetu nion. Ez zidan erantzun.

Jesus Etxezarraga, *Sugearen tristura*, Iruña, Pamiela, 2001

Esaterako, testua irakurritakoan, geure buruari galdetzen ahal diogu ea zorioneko gauza ala gauza txarra den gizon ona izatea, zeren bakardadea baita gizon bikainaren patua. Testuak gizon bikainak harrapatzeko argibideak ematen ditu, baina ez du esaten zer ote den gizon bikaina izatea. Hain bakanak badira gizon bikainak, besteak zer ote garen galdetzen ahal diogu geure buruari. Behin baino ez bide zuen idazleak gizon on bat ikusi. Beste gizon on bat sartzea bidezkoa da, testu sobera etsigarria baita bestela.

Gerta daiteke ikasleak edo irakaslea bera gauza ez sentitzea aipatu testu-zatian esaldi batzuk txertatzeko. Onuragarria izanen da, beraz, laguntza batzuk ematea. Hau da, testuari beldurra galtzea.

.....

3.7 Testuari ezer ere gehitzen ez dioten xehetasunak kentzea

Zenbaitetan, testuak xehetasunekin ito-itota ageri dira. Argitasunak eman beharrean, testua ilundu egiten dute xehetasun horiek. Mugatu beharrean, halako zabaltasun bat ematen diote irakurlearen begiradari, non galdu egiten baita. Xehetasunen gehiegizko zailtze hori testu narratiboetan ez ezik, argudio-testuetan eta azalpen-testuetan ere ageri da. Esate baterako, Sánchez Ferlosioren testuak horren froga argia dira, alegia, nola bidali daitekeen ideia bat pikutara xehetasunak neurri gabe erabiliz eta sintaxia behin eta berriz bihurtuz.

Testu askotan, sobran dauden datuak, baieztapenak eta deskribapenak ageri dira. Kontua horixe da. Haiek antzeman eta testutik kentzea. Eta egiaztatzea haien kenduta testua ongi ote dabilen komunikazio-helburuari dagokionez. Ohikoa izaten da kritikariek esatea halako eleberrian orrialde asko sobran daudela. Ez dute esaten, ordea, zein diren, baina badirudi askoren iritziz obra askok dezente irabaziko luketela kalitatean ehuneko 20 kenduz gero.

Ariketa honen xedea ez da gustatu ez zaien eleberri batean zein orrialde sobran dauden esaten jakinen duten kritikariak prestatzea, baizik eta, apaltasun handiagoarekin, gazteak soiltasunean eta zehaztasunean hezteak.

Ariketa hau egiten dugunean gure helburua ez da esatea testua, berez, ona edo txarra den. Pedanteria eta barrokismoa inteligentziarekin bat ere agertzen ahal dira. Erakusgai pedanteak edo barrokoak gure gustukoak ere izan daitezke, edo desatsegin gertatu ere bai. Baina kontua ez da une honetan eztabaida horretan sartzea.

Egin nahi dugun gauza bakarra da egiaztatu nola testu bati osagai batzuk kendu eta oraindik ere zentzuari eusten dion. Horrenbestez, zer kenduko zenioke hurrengo testuari?

NEGUAREN GORAZARREA

Negurekin batera datozen ohiturak atsegin ditut,
Telebistaz entzutea tenperaturak behera doazela
Eta bihar zero azpitik bost gradu izango dugula soilik,
Bost diamante izotzezko.

Eta hurrengo goizean kalera baino lehen
Berokia, txanoa, lepokoa, botak eta eskularruak
Poliki jantzi, erlijio zaharren errituak gogoratu.

Gero, zeruaren grisantza egiaztatu,
Eta haizearen zorrotza, eta parkearen biluzia,
Hotza sudurreratu birikien hondoetaraino
Eta dastatu droga ezagunaren zorabioak,
Ahotik ilkitzen diren arima zatiak mirestu
Eta ibili espektro beldurtien artean.

Herri guztien negu-jainkoei otoitz egin,
Lagun iezadazue, lagun iezadazue,
Antzigarra eta elurra gurtu,
Izotz burruntsiak eta ziztorrak ferekatu,
Inoiz izan ez den xamurraz elur zikinean soa galdu
Eta sekretuki mesprezatu besteen ele kexatiak.

Mendi lausoetaraino gogoia eraman,
Hiriak erakusten duen barrokotasunez gozatu
Eta barre egin ezkutuan automobileraz

Noizbehinka arkuperen batean hankak eta besoak astindu
Eta gero berriro aurpegian sentitu
Neguak amultsuki eskaintzen duen mila musu heze,
Non elur malutak bezalako maitaleak?

Entzu dut izozturik hiltzea oso ezti dela,
Loak hartzen zaitu pixkanaka, eta ametsetan
Jadanik, Neguaren Erregek gorte ororekin
Betirako eramaten zaitu Jauregi Zurira.

Ricardo Arregi Diaz de Heredia, *Kartografia*, Irun, Alberdania, 1998

Hona emaitza:
Neguarekin batera datozen ohiturak atsegin ditut,
tenperaturak behera eta bihar zero azpitik bost gradu,
Bost diamante izotzezko.

Berokia, txanoa, lepokoa, botak eta eskularruak,
erlijio zaharren errituak.

Gero, zeruaren grisantza, haizearen zorrotza, eta parkearen biluzia,
Eta ibili espektro beldurtien artean.

Antzigarra eta elurra gurtu,
Eta sekretuki mesprezatu besteen ele kexatiak.

.....

Non elur malutak bezalako maitaleak?

Entzun dut izozturik hiltzea oso ezti dela,
Loak hartzen zaitu pixkanaka, eta ametsetan
Jadanik, Neguaren Erregek betirako eramaten zaitu Jauregi Zurira.

3.8 Hasiera berriak, korapilo berriak, amaiera berriak asmatzea

Hautapen printzipioa bereziki testuaren hasieretan eta amaieretan eragina duen printzipio bat da. Ez dakigu oso ongi zergatik hautatzen diren hasiera eta amaiera batzuk. Ez dakigu ezertxo ere On Kixoteren haurtzaroari buruz; Tormesko Itsumutilaren haurtzaroari buruz bai, ordea. Zer esan nahi du horrek? On Kixotek egiten duena ez dagoela bere haurtzaroak edo bere aurrekoek baldintzatuta eta Itsumutilak egiten duena, berriz, behartsuaren zorigaitzoko haurtzaroak baldintzaturik dagoela? Eta liburu hasierei buruz esan duguna berdina aplika daiteke amaieretan. Zergatik bukatzen dira «ongi» eleberri edo kontakizun batzuk, beste batzuk gaizki eta beste asko, azkenik, ez ongi eta ez gaizki?

Ariketa honen gidalerroetako bat koherentziaren printzipioa da. Kontua ez da norberari bururatzen zaiona idaztea. Ez. Xedea da testua arretaz irakurtzea. Eta lehenbiziko irakurketa hori egin ondoren, hasieran nahiz bukaeran testu gehigarri bat eranstea.

Hau bera kontakizun askorekin egin izan da orain baino lehen; komenigarria litzateke azalpen- eta argudio-testuekin ere saiatzea.

Hori egiteko, ordea, lehenbizi testua zeri buruzkoa den jakin beharko da. Behin baldintza hori bete ondoren, errazago txertatuko dugu geuk landutako testu-zatiren bat.

Diruak lanak ematen ditu, bere mugitu- eta korritu-behar zoroak harrapatu zuenetik; dirua gobernatu egin behar da, ganadua bezalaxe: jai eta aste eman egin behar zaio biziko bada eta emango badu; azpiak berritu bankuetan edo bere etzauntza elektronikoetan, merkatuaren larrera atera batera eta bestera ibil dadin.

Aberatsek ez dute inor berek hil beharrik izaten jateko. Jendeari ematen diote lana, hala esaten dute. Ez dute berek egiten gaitzik. Pagatu. Haiei gustu emateko edozer gauza egiten da eta denak pozik oso. Haien andreak ederrak dira eta pobreenak, berriz, itsusiak. Mendez mende ondutako emaitza da, apaindurak kenduta ere. Andre eder politak, ongi janak, ongi garbituak. Bizitzak, hasi zenez geroztik, hori beste emaitzarik ez du sortu.

Eta gainerakoan, alferrik ariko gara eginahaletan, irristatu, limurtu, alkoholaren mendean erori, horrek bai hildakoak bai biziak kontserbatzen baititu, ez dugu besterik lortzen. Frogatuta dago. Eta hainbeste mende dira ja geure animaliak geure aurreantxe jaiotzen, neketan bizitzen eta akabatzen ikusten ditugula, haiei

ere ezer harrigarrik gertatzen ez zaiela, ezpada berriz eta berriz lehengo ezintasun margula hartzea berriro beste hainbeste animaliak utzi zuten tokian. Bagenuke, ba, ordu zer gertatzen den ulertzeko. Denboraren barrenetatik atergabe izaki olatu alferrekoak heldu zaizkigu minuturo geure aurrera hiltzera, eta halere hortxe gelditzen gara, zer edo zeren esperantzan...Herioz eginak garela pentsatzeko ere gauza ez garela.

Aberatsen andreak, berriz, ongi mantenduak, ongi gezurtatuak, ongi deskan-tsatuak, edertu egiten dira. Egia da hori. Aski da hori, akaso, ongi pentsatuta. Ezin igarri. Hori bederen existitzeko arrazoi bat balitzateke.

Louis-Ferdinand Céline, *Gauaren muturrerainoko bidaia*, Igela, 1992

Behar bezain begi-zolia izanen ote da irakurlea asmatzeko zer den jatorrizko testuari gehitu zaiona? Lehenbiziko zatia ala azkenekoa? Edo bigarrena ote da?

Ez diogu inori sufriarazi nahi. Lehendabiziko lerrokada Iñaki Seguiolak idatzia da, (*Gaur ere ez du hiltzeko eguraldirik egingo*, Alberdania, 2005). Ez da batere nabaritzen, ezta?

3.9 Testua beste kode bat erabiliz idaztea

Ikastalde gehienetan, berdintasun eta homogeneotasun iraunkorrak daude ezagutzak transmititzeko garaian. Berdintasun hori ikaskuntzaren eta irakaskuntzaren arloan diziplina arteko begiradarik ez egotearen ageriko erakusgarria da.

Ikasleak berak ere harritzen dira azterketa batean eskatzen zaienean adiskideren bati gutun bat bidaltzeko kontatuz eduki linguistiko, literario nahiz historiko batzuei buruz ikasi dutena. Badirudi azterketak ezin alda daitekeen formatu bat daukala.

Baina gauza bat da datua ezagutzea eta beste bat, oso ezberdina, hura eraldatzea. Ikastalde gehienetan ezagutza datuan geratzen da, baina ez barneraturiko datuan. Horixe da hemen bilatu nahi dena: irakurketa eraldatzailea, jarduteko bide gisa kodea aldatzea duena.

Ahalegin horretan, testu guztiak zaizkigu baliagarri. Denak beste zerbait bihur daitezke. Horretarako, honakoa beharko da:

- Lehenbizi, testuak dioena ulertzea.
- Bigarrenik, erabakitzea zein izanen den eraldaketarako formatu egokiena.
- Hirugarrenik, testurako hautatu dugun formatuari buruzko konbentzio batzuk errespetatzea. Errespetu horrek kode horiek gogoraraziko digu eta haien funtsezkoena geure egitea ekarriko du.
- Laugarrenik, eraldaketa hori gauzatzea.

.....

3.10 Testuan absurduak eta akatsak sartzea

Ezer baino lehen, komenigarria izanen litzateke zehaztea zein absurdu edo akats motari buruz ari garen. Oraingoan, jatorri sintaktiko eta semantikoa dutenei buruz ari gara: egindako baieztapen bati kontra egiten dioten esaldi edo hitzak; kontatzen denaren jatorriarekin bat ez datozen egitateak; testuaren testuinguru ideologikotik kanpo dauden ideiak; komuntadura akatsak; ezarritako premisei kontra egiten dioten ondorioak; kontatutakoaren planteamenduari eta garapenari erreparatuta logikoak ez diren amaierak.

Etzeko bereizkuntza hori eginik, gomendagarriena da irakurleek berek txertatzea testuan egokientzat jotzen dituzten absurduak edo akatsak. Gero, gainerako ikasleen gogoeta analitikoaren zain geratuko dira, absurdu edo akats horiek aurkitu beharko baitituzte.

Hurrengo testuan, osagai absurdu bat sartu dugu. Zein da?

POLAROID 3 (PARIS)

Sufreak deabrua bezala, pixak –urearen usain sarkorrak– hirietako gune marjinalu eta arriskutsuen hurbiltasuna adierazten du. Pariseko Barbès-Rochechouvenaten jaitsi nintzen, metroaren eta trenaren geltoki altxatuan. Segituan, kiratsa; laster, eskaileretan bertan, gazte alkoholizatu batzuk; geroroxe-ago, kalearekin berdintzen zen solairuan, beste bi talde lurrean erdi etzanda fumutzen, marihuana edo; izkina batean, bikote bat trafikatzeko; geltokia bera, hiri hain *mignon* honetan, erabat zarpaildua eta hondatua. Eta hor doa, sarre-rako errota gainetik jauzi eginda, ordaindu nahi izan ez duen gazte beltza; eta hor datoz Aljeriako edo Marokoko hiru langile beren zakutoekin; eta hor azaltzen zait, nire lerro-lerroan, eskua patrikan gordeta daraman yonki hemezortzi bat urtekoa. Horra beste *Maki Nabaja* bat dirurik gabeko atso pistola-dun baten bila ifernuko bidean.

Bernardo Atxaga, *Lekuak*, Iruña, Pamiela, 2005

Bukaerako esaldia guk erantsia da.

3.11 Gurutzegrama bihurtzea

Testu bat hartu. Arretaz irakurri. Hitzei adi-adi erreparatu. Zein dira gehien eta gutxien gustatzen zaizkigunak? Testutik atera eta hartan ageri diren bezalaxe idatziko ditugu.

Oso litekeena da irakurle askok zailtasun larriak izatea gurutzegrama zail bat osatzeko –ardatz bertikala eta ardatz horizontala–; haientzat, nahikoa da ardatz horizontala egitea.

Zeresanik ez dago: hiztegia erabiltzea ezinbestekoa izanen da.

Komeni da ikasgelara gurutzegrama batzuk eramatea, geuk ikasleen aurrean beteko ditugunak. Horren helburua ez da neska-mutilak zur eta lur uztea gure erudizio paregabearekin. Ez. Bilatzen duguna da haiek konturatzea nola definitzen edo nola deskribatzen den gurutzegrama batean, eta galderak ere nola egiten diren. Izan ere, jakina den bezala, gurutzegrama bat estilistika praktikoaren tratatu txiki baten antzekoa da: metaforekin jokatzeko da, metonimiekin, anagramekin, palindromoekin, asmakizunekin eta hizkuntzaren esanahiekin sorturiko joko pila batekin.

Gurutzegramaren eremu semantikoa ere muga daiteke. Eta hartara, testutik atera soilik izenondoak, izenak eta aditzak. Nahi duguna.

Ariketa hau, berez, oso zorrotza da, zeren eta exijitzen baitu gurutzegramarako hautaturiko hitz guztiak definitzea. Ez da, horrenbestez, hasieran eman lezakeen bezain kaltegabe edo xederik gabea.

Ez legoke gaizki hemen gogoratzea definizioak era askotako modalitateak har ditzakeela: *deskriptiboa* (metaforak, asmakizunak, anagramak, gregeriak, akrostikoak); *xedeari begirakoa* (betetzen duten xedearen arabera deskribatzen dira hitzak); *alderaketan oinarritua* (zerbait definitzen da antzekotasunen bat duen objekturen batekiko loturak ezarriz); *funtsaren arabera* (zerbait definitzen da berez denaren arabera; oso gauza konplexu eta zaila, ia ezinezkoa). Eta, noski, bakoitzak bere esku dauzkan baliabide literarioak erabiliz, aipatutakoez gainera.

Hartara, bada, egin dezagun gurutzegrama bat hurrengo testua erabiliz, hartatik gure sentimenduetan gehien eragin duten hitzak hautatuz.

LOA

Zenbat ordu lo egitea komeni den adierazteko, honako ipuin hau kontatu zuen: «Ba zen behin lapur-pare bat. Batak lanean ziharduelarik, bestea zelatan egon ohi zen. Egun batean, zelatan zenak bost minutuko loa egin zuen. Lo gehiegi egin zuen. Zortzi orduko tren-bidaia zuen beste batek, berriz, trenera sartu orduko esnagailua martxan jarri, eta lo lasai egin zuen, harik eta, jaitsi beharreko geltokirako bost minutu falta zirela, esnagailuak esnatu zuen arte. Gutxiegi lo egin zuen, espero zuena baizik ez baitzuen topatu herri hartan».

Joserra Garzia, *Egonean doazen geziak*, Irun, Alberdania, 2000

3.12 Letren zopa bihurtzea

Gogora dezagun kontua dela orrialdean letrak gurutzatzen direnean, horizontalean, bertikalean eta zeharka, geratzen diren zuriuneak erabiltzea.

Hasiera batean, ariketa honek erraza eta zailtasunik gabea ematen du. Hala izanen litzateke

.....

teke baldin eta proposamena mugatuko balitz, soilik, testutik nahi diren hitzak ateratzera, inongo irizpide edo xederik gabe.

Abiapuntuko premisa, ordea, da esanahiaren eraketan gakoak edo funtsezkoak diren hitzak hautatzea. Eta hori ez da hain erraza. Gogoeta egitea eta eztabaida egitea eskatzen du, zeren eta batzuentzat testuko hitz gakoak batzuk izanen baitira, eta beste batzuentzat beste batzuk. Hartara, galde dezagun: zein dira hitz garrantzitsuenak testuaren esanahi orokorrari erreparatuta? Ederki. Egin dezagun haiekin letren zopa bat.

BERGIZARTARATZEA

Pentsatzea ere delitu zen garaian, panfleto batzuk aldean zeramatzala eta, kartzelan sartu zuten.

Handik zortzi urtera kanporatu zutenean, lanbideren bat aurkitzeko ere larri ibili zen bolada batean, harik eta haren koinatu iturginak, errukiz, lana eskaini zion arte.

Etxe dotore antzeko batean ur-berogailu bat jartzea izan zuen preso ohiak bere lehen egitekoa. Artean iturgintzan trebatu gabea izanagatik ere, ahaleginak eta bost egin zituen zorioneko gailua eta ur-hodiak ahalik txukunen jartzen. Halako batean bere obra bukatutzat eman zuenean, etxeakoandreak, ikusirik gailua, hodiak eta enparauak zein bere aldera eta denak akerraren adarrak baino okerrago zeudela, honela esan zion, negar-zotinen artean oihuka:

- Baina, zer egin didazu? Ez al duzu ikusten den-dena oker dagoela?

Gure iturginak, berriz, duintasun osoz bere lanabesak bildu, maletatxoa itxi, eta kanpoko aterantz abiatu zen, etxeakoandreaki esaten ziolarik:

- Okerra! Zuzena! Kontzeptu burgesak!

Joseerra Garzia, *Egonean doazen geziak*, Irun, Alberdania, 2000

3.13 Puzzle bat egitea

Edozein testu hartu. Hura guraizeekin mozteko moduko kartoi gogor samar batean itsatsiko dugu gero. Guraizeekin, kartoia moztuko dugu, nahi dugun pieza kopurua eginez. Zenbat eta gehiago, orduan eta hobeki.

Jostailuak osatuta, ikasleek beren artean trukatu dituzte. Jakina den bezala, puzzle bat egiterakoan kontu bakarra ez da piezak simetrikoki elkarrekin lotzea: batez ere, testuaren oinarrituta, piezak testuaren koherentziaren arabera elkarrekin lotzea da xedea.

Hau da, jokoa ez da dirudien bezain gatzgabea. Askok huts egiten dute, hasieran besterik uste bazuten ere.

Puzlea osatzeko, testuak dioena ulertu beharrean suertatuko dira ikasleak, eta ezinbestean erreparatuko diete, esate baterako, ordura arte oharkabean pasatako esapideei.

Irakurriaren ulermenaren mailak era askotakoak direnez, ariketa hau oso ongi egokituko zaie testua osotasun semantiko baten moduan ulertzeko zailtasun larriak dituztenei. Izan ere, konprobatzea fitxa batek, esanahiaren aldetik, beste batzuekin loturak dituela lagungarri suertatuko da testuaren esanahia ulertzeko. Zati-tako bakoitzak zentzu orokorraren menpean dago, eta nahi gabe batek gaizki kokatzen badu pieza sintagmatiko bat, horren ondorioak pairatuko dituena testuaren ardatz paradigmatikoa izanen da, ezinbestean.

Hau da, testu batekin puzzle bat egitea ez da hain alferrekoa; ez du soilik balio tarte atsegin bat pasatzeko. Batzuek puzzleak erabiltzen dituzte baita irakurriaren ulermenari buruzko diagnosi eta ebaluazio frogak egiteko ere.

Ondoko testua baliagarria izan dakiguke puzzle bat egiteko.

Azkar-azkar, Charliek botoi bakoitzaren ondoan zegoena irakurtzeari ekin zion.
KAMAMELUZKO MEATEGIAK. 300 METROTAKO SAKONERA, zioen haie-tako batean.

KOKO-ESNE IZOZTUZ EGINIKO TXIRRISTA-BIDEAK, zioen beste batean.
Gero...FRUTA-ZUKUZ EGINIKO UR-PISTOLAK.

KARAMELUZKO SAGARRONDOAK ZEURE LORATEGIAN LANDATZE-KO.

NEURRI GUZTIAK.

KARAMELU LEHERGARRIAK ZEURE ETSAIENTZAT.

TXUPA-TXUP ARGIDUNAK GAUEZ OHEAN JAKETO.

MENDAZKO KARAMELUAK MAITASUNEAN DUZUN ARERIOARENT-ZAT. BEGIAK BERDETU EGITEN DIZKIZU HILABETE OSO BATEAN.

TXANTXARRAK BETETZEKO KARAMELUAK. EZ DENTISTA GEHIAGORIK.

GOMAZKO KARAMELU ITSASKORRAK GEHIEGI HITZ EGITEN DUTEN GURASOENTZAT.

IRENTSI ONDOREN, URDAILEAN MODU ZORAGARRIAK MUGITZEN DIREN KARAMELU DANTZARIAK.

TXOKOLATINA IKUSTEZINAK, IKASGELAN JATEKO.

KARAMELUZ BETETA DAUDEN LAPITZAK, MIAZKATZEKO.

LIMONADA GASEOSAZKO IGERITOKIAK.

TXOKOLATE MAGIKOA. ESKUAN EDUKIZ, AHOAN SENTITZEN DUZU.

OSTADAR-PILULAK. JATERAKOAN, ZAZPI KOLORE DESBERDINETAKO TXISTUA BOTA DAITEKE.

Roald Dahl, *Charlie eta txokolate-lantegia*, Itzulpena:
Agurtzane Ortiz de Landaluze. Madril, Alfaguara-Zubia, 1994

.....

3.14 Xedea aldatzea

Testuaren azpian dagoen xedea deskubritzea garrantzitsua eta aldi berean beharrezkoa izan daiteke. Eta hemen argitu beharreko bi aukera dauzkagu: xedea izatea autoreak transmititu nahi izan duena, edo, aldiz, irakurle gisa deskubritzeko gauza izan garen xedea. Batzuetan, biak batera gerta daitezke, baina beste batzuetan ez. Batzuetan, egia da, irakurlea ez da hurbiltzen, ez du urrundik ere asmatzen testuak transmititu nahi izan duena. Baina, lehenbiziko kasua nahiz bigarren kasua izan, ez luke axola izaneren. Kontua da xede bat zehaztea, testuarena nahiz irakurlearena, bat datozen ala ez begiratu gabe. Xedea ezarrita, helburua da gogoeta egitea eta xehetasunak ematea testuak edo autoreak hura transmititzeko erabili duen bideari buruz:

Eman dezagun testuaren berariazko asmoa alaitasuna, tristezia edo neutraltasun sentimental erabatekoa –hau da, sentimenduetan zero gradua– transmititzea dela. Bada, batek uste badu testuak tristeziaz bete duela, gogoeta egin dezala sentimendu hori sorrarazten dioten arrazoi estilistikoek buruz, eta saia dadila, beraz, haiek manipulatzeko kontrako efektua lortzeko: alaitasuna.

Argudio-testu batekin ari bagara, berriz, prozesu berari jarraituko diogu. Lehenbizi, saiatuko gara zehazten zein den transmititzen duen ideia. Behin hori ebatzi ondoren, ahal ditugun manipulazio guztiak eginen ditugu kontrakoa esan dezala lortzeko.

3.15 Testua luzatzea

Testu guztiak luza daitezke, guztiak bihur daitezke autobide, hau da, guztiak izan daitezke amaierarik gabeak. Kontua da zehaztasunez ezartzea zer den luzatu nahi gure keena: esaldiak, egoerak (hasiera, gatazka, amaiera); deskribapenak (pertsonaiak, lekuak, gauzak, animaliak); elkarrizketak, iritziak, egitateak.

Komenigarria da, halaber, jakitea zein lehengai daukagun eskura luzapen horiek egiteko: izenondoak txertatzea; esaldiak luzatzea dibagazioak sartuz, xehetasunek emanaz, argituz; esaldi hau edo beste hura, honako edo halako egoera azalduz; egoera bat halako modu batean luzatuz non amaierarik ez duela irudituko duen; soilik intsinuaturik dagoen deskribapen bat zabalduz; testuak, gure ustez, beharko lukeen elkarrizketa bat txertatuz...

Testu bateko edozein osagai handi daiteke. Zertarako? Demostratzeko testuaren koherentziari eusteko gaitasuna daukagula, hura inoiz arriskuan jarri gabe.

Behin zabaldu nahi dugun zatia hautatuta, komeni da erabakitzea zertarako zabaldu nahi dugun: parodiatzeko, ironia sartzeko, argitzeko, xehetasunak emateko, aberasteko. Hona hemen ederki luza litekeen testu bat:

Behin, Parisko lente fabrikatzaile batekin tratuak izan zituen, *lupa-edalontzia* deitzen zuena asmatu eta aberastuko zen esperantzan. Txoratzten zegoen bere burutazioarekin. Ez zuen sasoi hartan beste gairik izaten. Ideia burugabea zen, inondik ere: aumentodun kristalez osatu edalontziak fabrikatu nahi zituen, bertan isuritako ardoa –edo zena zelakoa– berez isuritakoa baino askoz ere gehiago zen itxura ematea zen helburua, ez dakit oso ondo zertarako; alkohola edaten zutenek gutxiago edan eta lehen edaten zuten isurkin kopuru bera edaten zutela uste izatea zen asmoa, hori bai, baina ez dut sekula jakin izan lorpen horren azken helburua edale neurrigabeen osasuna zaintzea, ala kontenplaziorik gabeko zio komertziala –gutxiago zerbitu, berdina kobratu– ote zen.

Beste behin, goizeko seietan Parisko *arrondissement* guztiak banan-bana inguraturaz hiria alderik alde motorrez zeharkatu bide zuen, ke-hodia aldatuta zeukan motor burrunbatsu batean, propio ahalik eta zarata gehien atereaz. Baina ez afizioz edo inor izorratzeagatik. Estatistika lan bat egiten ari zelako baizik. Pagatu egiten zidatek gainera, erantsi zuen gero, irribarrez.

Udaletxearen enkargua omen motor ibilaldi hura, trafiko saila hiriko zaratari buruz egiten ari zen ikerketen kariatara.

Nire atzetik lau babalore zetozean, auto baten barruan, nor bere libretatxoarekin, pasatzen nintzen kale bakoitzeko leihoetara begira: zenbat argi piztu eta zenbat jende esnatzen nuen zenbatu behar zitean, pentsa!

Harkaitz Cano, *Neguko Zirkua*, Zarautz, Susa, 2005

3.16 Ahal den guztian laburtu

Sistematik onena da beharrezkoak ez diren hitzak kentzea, testuari substantzia semantiko handirik ematen ez diotenak (izenondoak, aditzondoak). Gero begira dezagun ea errepikapenik baden. Haiek saihesteko, sistema linguistikoak lau bide eder eskaintzen dizkigu: pronominalizazioa, elipsia, erreferentzia metaforikoak eta sinonimoak.

Laburtzeko lana –laburpenak egitearekin hain lotura zehatza duena– ez da batere erraza. Begirada esentzial bat eskatzen du, eta halakorik ez dute pertsona guztiek, ezta heldu eskolatuek ere. Testu bat ahal den guztian laburtzeko, haren esanahiaren funtsa gordetzen saiatuz, heldutasun intelektual, linguistiko eta ideologiko nahiko handiak behar dira. Zailtasun hori gorabehera, ados egonen gara esanez gero, irakurtzeko gaitasunerako oso osasungarriak diren eraginak dituen ariketa bat izanik, onuragarria dela hura modu soil eta progresibo batez egitea. Hau da, testu laburrekin hastea, eta, pixkanaka ipuin edo artikulua osoak laburtzeari ekitea.

Hona hemen Raymon Queneau bere *Estilo-ariketak* liburuan hasierako testuari eginiko murrizketa poetikoa, gure eginkizuna argitzeko balio duena:

.....

OHARRAK

San, jendetza ibiltzen den ordu batean. Tipo bat, hogeita sei urte ingurukoa, feltrozko kapela buruan, kordoi bat duena xingola orde; lepo luzeegia, goitik tiratu baliote bezala. Jendea igo eta jaitsi dabil. Aldameneko batekin haserretu da gure tipoa. Baten bat pasatzen denean bultza egiten diola aurpegiatu dio. Tonu negarti antza, gaizto-kutsua eman nahi liokeena. Eserleku bat hutsik ikusi orduko, haraxe joan da harrapaka.

Handik bi ordura, Cour de Romen aurkitu dut berriro, Saint-Lazare geltokiaren aurrean. Adiskide batekin dago, eta hala diotsa hark: «Beste botoi bat jarri beharko hioke soingainekoari». Eta erakutsi dio non (paparrean) eta zergatik.

TANKA

Busa heldu da
Kapeladun bat igo.
To! Ukaldia
Saint-Lazare geltokian
Botoi kontuak.

Raymond Queneau, *Estilo-ariketak*, Iruñea, Igela, 2005. Xabier Olarraren itzulpena

Ariketa hau inausketaren oso antzekoa da. Eta egia esan, testu batzuk –bereziki olerkiak— askoz ere hobekiago gelditzen dira testu-higieneko teknika hau aplikatuta. Saia zaitetz hori lortzen.

AHOTS EPELAREN BILA

Kale zahar horretako lokutorioak
Itxura dotorerik ez badauka ere,
Ortzadarra ematen du ordu batzuetan,
Hara sartzen direnen larruazalen koloreengatik
Hara doazenen jantzien koloreengatik.
Eta pentsatzen dut
Are koloretsuagoak direla
Telefonoaren bestaldean dauden parajeak,
Eta gorriagoak ezpainak, eta urdinagoak zeruak;
Eta minutu batzuez behintzat,
Telefonoz bestaldeko ahotsak
Epeldu egingo die bihotz hotzitua.

Aurreko hirugarren pisuko gizonak
Mespretxuz begiratzen dio leihotik
Kale zahar horretako lokutoriotik
Sartu eta irten ohi den giza ortzadarrari,
Baina ez daki,
Edo ez du gogoratu nahi,

Bere aitak
Antzeko beste lokutorio batera
Jotzen zuela hilean behin edo birritan
Sorterriko parajeen berri izateko,
Baina, batez ere,
Giza ortzadarrak egiten zuen bezala,
Bihotz hotzituaz laztanduko zion ahots epelaren bila.

Paddy Rekalde, Euskal Poesiaren ataria. <http://www.basquepoetry.net/poemak/> 2000

3.17 Aditzak aldatzea

Idazterakoan pertsona asko hondoratzen dira denboraren ardatza ez menperatzeagatik. Testua orainaldian hasten dute; inongo arrazoirik gabe iraganaldi burutugabea erabiliz jarraitzen dute, eta iraganaldi burutuarekin bukatzen dute. Hori guztia arreta faltari zor zaio: irakurtzerakoan eta idazterakoan eginiko hutsa.

Aditzaren kategoriari buruz eta testuaren esanahiaren osaketan duen balio estilistikoari buruz berriazko irakaskuntza eta ikaskuntzarik egon ez izanari ere zor zaio hutsa.

Testuak irakurtzea alderdi horri erreparatuz oso garrantzitsua da, zeren eta aditza testuaren semantikaren gakoa baita, eta, bereziki, haren dimentsio estetikoaren gakoa.

Batzuen arabera, gauza hauek irakurtzen automatikoki ikasten dira, baina aurrejuzku hori ez da zuzena. Ezer ere ez da automatikoki ikasten. Modu kontzientean ikasi behar da.

Zehaztu dezagun. Lehenbiziko ariketa izanen da testu batean dauden aditzak seinalatzea, bai forma pertsonalak, bai forma ez-pertsonalak. Behin bereizkuntza hori egin ondoren, komenigarria izanen da zehaztea zer aldatu nahi dugun aditz horietan. Horretan, bi irizpide argi daude: lehenbizikoa, ikuspuntu gramatikaletik, alegia, moduaren, denboraren, aspektuaren, pertsonaren ikuspuntutik; bigarrena, ikuspuntu semantikotik –sinonimoak, antonimoak, paronimoak, aliterazioak– edo ekintza edo pentsamendua adierazten duten aditzen bitartez.

Behar diren aldaketak egin ondoren, emaitzak komentatuko ditugu.

3.18 Jakin nola idatzita dagoen

Edozein testu idazten denean, autoreak, kontzienteki nahiz inkontzienteki, hura idazteko behar diren materialak hautatzen ditu. Batzuk hautatzen ditu eta beste batzuk alde batera uzten ditu. Esaldiak eratzeko ordenari dagokionez, beste hainbeste ger-

.....

tatzen da. Ardatz sintagmatikoa hitz bat hautatzen den neurrian eraikitzen joaten da, alde batera utziz ardatz paradigmaticoari dagozkion milaka hitz.

Hierarkiaren printzipioari erreparatzen badiogu, kontuan hartu behar dugu idazten duenean autoreak, bere idazkeraz kontzientea bada, saiaturko dela irakurleak errepara diezaion erreparatzea nahi duen horrexeri. Horretarako, haren arreta deitu beharko du, eremu semantiko jakin bat, errepikapenak, hiztegi berezia eta abar erabiliz.

Bi dira proposatzen ditugun jarduerak. Lehenbizikoa, gure begirada jartzea testuen hasieretan eta bukaeretan. Konturatzea zer esaten duten eta nola esaten duten. Gero, kontrastatzea ea haien artean inongo lotura logikorik baduten. Testuaren hasierak iragartzten zuena amaierarekin bat datorren modu batean ixten ote den, eta alderantziz. Bigarrena, hierarkiaren printzipioan erreparatzea, hau da, begiratzea ea autoreak inongo lehenespenean egiten ote duen hitzen, adierazpideen edo esaldiak ordenatzeko forma sintaktikoen erabileran.

3.19 Testuak dioena ukatzea

Testuek duten alderdi ona da batek nahi duena egiteko bidea uzten dutela. Ez dut uste jarduera horretan ari denak horregatik askatasunaren izateari buruzko nozio barnekoago eta sakonagoak ikasiko dituenik, zeren eta, azken batean, manipulazio eta testuen eraldaketako ariketa hutsa baita. Jokoan jartzen dena da hura praktikan jartzen duenaren abilezia linguistiko eta erretorikoa.

Oraingo kasuan, mugimendua bikoitza da:

- Lehen: testuak baieztatzen duena deskubritzea. Baieztatzeko moduak era askotakoa dira, baina ia beti bitara mugatzen dira: maila latente edo inplizitu bat eta maila esplizitu edo patente bat. Azalpen-testuetan, argudio-testuetan eta jarraibideak emateko testuetan, baieztapenek edo ezeztapenek, oro har, maila esplizitu argi bat hartzen dute. Narrazio-testuetan, berriz, besterik da. Baieztapen eta ezeztapen mailak ilunagoak, kriptikoagoak izaten dira. Batzuetan, deduzitu ere egin behar izaten dira, ekintzak eta haietan gertatzen diren gatazkei emandako konponbideak erkatuz.

Horrenbestez, kontzentrazio handia eta analisi ezberdinak eskatzen dituen jarduera baten aurrean gaude.

- Bigarrena: testuak baieztatzen duena ukatzea modu askotara egin daiteke. Errazena eta gordinena da partikula negatiboak sartzea baieztatzen den horretan. Zailena, eta era askotako zolitasunez beterik egon daitekeena da ironia eta humorea sartzea da: badirudi baieztatzen ari garena baina hain zuzen ere kontrakoa egiten ari gara.

Nola lortu testu batek baieztan ezan esaten duenaren kontrakoa? Zer tresna linguistiko edo erretoriko erabili behar dira hori azken burura eramateko? Zer egin, esate bate-

rako, testu baten ikasbidea edo mezua testutik itxura batean deduzitzen denaren kontrakoa izan dadin? Ez da nahikoa norbaitek baieztatzen duena ukatzea, edo norbaitek ukatzen duena baieztatzea. Testuaren elementu batzuk ukitu egin beharko dira.

3.20 Testuaren tonua identifikatzea

Zaila izaten da testu baten tonua neurtzea. Altua, bitartekoa, baxua? Nola deskubritu azalpen-testu batek edo narrazio-testu batek eduki behar duten tonua? Badakigu, jakin, tonua zer den. Ikasleei azaltzeko gauza ere bagara, baina irakurtzen ditugun testuetako orrialdeetan ezkututzen den tonua modu praktikoan asmatzea besterik da.

Nola jakin zein tonutan hitz egiten digun musu aurrean daukagun testuak? Inori ere, guk dakigula, ez zaio gustatzen oihuka hitz egin diezaiozun, norbaitek hitz egiten dionean. Hala eta guztiz ere, oso litekeena da irakurtzen ditugun testu askok horixe egiten egotea: guri oihuka egin hurbileko inguruneko akustikaren parametroek exijitzen dutenaz goragoko tonuan.

Hori guztia gora behera, sentiberatasun ezberdinak daude —ez dakit denak bikainak diren— xuxurlaka egiten duten testuei buruz hitz egiten dutenak, bihotzari hitz egiten diotenak, sakonenari zuzentzen zaizkionak, melodia suabe eta intimoak bezalakoak diren tonuekin. Nola da hori posible, ikuspuntu estilistikotik? Zerikusirik izanen al du erabilitako hiztegiarekin, sintaxi motarekin, testuaren antolaketaarekin? Aditz motarekin?

Kontua da hori asmatzea eta abian jartzea Rosenblatten esanetan irakurketa estetiko dena.

3.21 Testuaren edertasuna epaitzea

Edertasuna termino gisa, kontzeptu gisa eta teoria gisa azter daiteke. Saiatzen garenean ikasleei gogoeta eginarazten testuaren edertasunari buruz, oso litekeena da gutako inork ere ez jakitea azaltzen oso ongi hitz horrek zer esan nahi duen. Oso litekeena da, era berean, hari buruzko nozio argirik ere ez izatea, ez termino gisa, ez kontzeptu gisa, ez teoria gisa ere¹⁴.

Segurua dena da gutako bakoitzak dakien gauza bakarra dela testu bat ederra dela edo ez dela. Baina zergatik sentitzen dugu testua hala dela? Oso gutxitan iristen gara termino hori kontzeptualizatzerara. Ba al liteke edertasunaren terminoa eta haren konnotazio subjektiboak elkarrengandik bereizi eta hura objektibotasunaren oinarrien gainean eraikitzea?

¹⁴ Ikus Tatariewicz, *Historia de seis ideas*, Tecnos argitaletxea, Madril, 1995.

.....

Azken batez: testu baten edertasuna, non dago? Testuan bertan ala testua irakurri eta hartan edertasunari buruz ulertzen duena edo sentitzen duena aplikatzen duenarengan? Edertasuna berezko propietatea da ala kanpotikoa? Kategoria estetiko gisa, noski, produktu sozial bat da, garaian garaiko gustuekin dialektika etengabea dagoena.

Bi maila horiek deslotzea posiblea denez –gutxitan esanen dugu berez, hasiera batetik ederra den testu bat ez zaigula gustatzen–, ona izanen litzateke ikasleari laguntzea testuei ederrak izatearen kategoria estetiko ematen dieten elementu objektiboetako batzuk mugarrizten.

Lehenbiziko jarduera izanen litzateke guk edertzat jotzen dugun testu bat irakurri eta ikasleei galdetzea ea ederra iruditzen zaien.

Bigarrena, guztion artean gogoeta egitea testua ederra izateko arrazoiei buruz.

3.22 Estiloa imitatzea edo atzerakotzea

Irakurtzen ditugun istorio, anekdota, ipuin edo kondaira askok beste batzuetan entzun ditugun istorio edo kondaira batzuk ekartzen dizkigute gogora. Are gehiago, istorio edo ipuin horietako askok guk geuk edo beste ahaide edo lagun batzuek bizitako egiteak ekartzen dizkigute gogora.

Testuen artekotasunaren gaia gutxi ustiatuta dago ikasgeletan. Literatura obrek elkarren artean errespetuz –eta batzuetan erreberentziak eginez ere bai– trukaturiko ahotsen elkar trukatzeko bat da: Bajtinek polifonia deitutakoa da.

Irakurtzen ditugun testu gehienen jatortasuna zalantzarria izan daiteke oso, narrazio-testuak nahiz argudio-testuak izan. Inongo idazle ez dago libre hilik dauden edo bizirik dauden egileen aipamenak hartzetik. Egia da testuen artekotasunean batzuek neurria gaintu egiten dutela eta inongo lotsarik gabe beste batzuen testuak kopiaitzen dituztela, horregatik batera gorritu gabe. Eta, hartara, kopiaitzen dutela esan beharrean, «testuen artekotasunaz» baliatzen direla esaten dute.

Iradoki nahi dudana da imitatzeko joera, manipulazioaz nahiz eraldaketaz baliatu, konstante bat dela, eta irakurtzeko zaletasunaren pizgarri egokia: irakurri imitatzeko.

Genettek dioen bezala, «objektu oro eralda daiteke, modu oro imitatu daiteke; horrenbestez, ez dago berez deribazioaren alderdi horietatik libre dagoen arterik»¹⁵.

Genettek eraldaketarako eta imitaziorako bi mekanismo ezberdin aipatzen ditu. Haren azterketen arabera, eraldaketak testu bat bere egin eta hertsapen formal jakin baten

¹⁵ G. Genette: *Palimpsestos. Literatura en segundo grado*. Taurus. Madril. 1989.

arabera eraldatzen du, edo asmo semantiko jakin batekin, edo hura modu uniformean edo mekanikoki beste estilo batera bihurtzen du.

Imitazioan, ordea, aurreuposamendu bat badago, alegia, egileak beretzat hartzen dituela testu baten ezaugarri estilistiko eta tematikoak beste testu bat sortzeko.

Esan liteke, beraz, eraldaketak testuak manipulatzeko dituela eta imitazioak, berriz, generoak.

Horrexegatik, imitazio horren termino zehatzak zehaztu behar dira. Imitatzea zer? Tonua? Izenondoak? Egitura? Narratzailearen ikuspuntua?

Hala bada, zehaztu beharko dugu nola garatzen dituen egileak aipatu berri ditugun elementu horietako batzuk, behin hori bukatuz imitazioa gauzatu ahal izan dezagun.

Ondoren datozen adibideak, Batxilergoko 2. mailako ikasleek eginikoak, bat datoz azaldu berri dugun planteamenduetan:

LAS VEGASEKO ARGIAK

Argitxo, argiak

Las Vegaseko erdikoak

EEBBetako argitasuna

Ez ote nahikoa

Ni izutzeko, axolakabe biribilak?

Casino handi baten

Goreneko gailurrera

Etorri zarete xuxen

Bidea argitzera:

Hemendik eta handik

Bide guztiak dituzue azaleratzen.

Apostu batekin, dirua

Mahaien gainera

Ez zarete zuek makalak;

Apostu handirik gabe

Banator behera, ez

Diruaren orde, zorrak jasotzera.

Erruletan bainago

Patuaren jabe,

Zer egin hoberik

Muinak urtu gabe

Zerbait, apostatzeko, gogo-jolas baizik?

.....

Fitxak lauso dira,
Zoriaren
Antzo, ezkutuan
Giroaren harira
Izurrak egitean
Argiek begiratzen gaituzte, pareten bazterretan.

Egoitz Sanchez, Batxilergoko 2. mailakoa, Lizardiren estiloa imitatuz

ZAPATA ZAHARTXO BAT

Zapata zahartxo bat dut
Nik nire laguna.
Horrela ibiltzen da
Zapatari euskalduna.
Egun batean pobre,
Besteetan jauna,
Josten pasatzen det
Nik beti eguna.

Nahiz dela Italia,
Orobat Frantzia,
Bietan bilatu dut
Mila malizia;
Korritzen badut ere
Nik mundu guztia,
Maitatuko dut beti
Oinen ibilia.

Jaunak ematen badit
Niri osasuna,
Oraindik izango dut
Lanbide bat ona;
Nahi badut oihala,
Goretresa duena,
Baina nik nahiago dut
Ezer ez duena.


Adios Euskal Herria,
Baina ez betiko,
Bost-sei urte honetan
Ez det ikusiko!
Jaunari eskatzen diot
Larru ona emateko
Nire zapata maiteetan
Kalitatea bilatzeko.


Itziar Casado, Batxilergoko 2. mailakoa, Iparragirren estiloa imitatuz

Irakurle trebe bat prestatzeak berekin dakartzan probema ugari eta korapilatsuak ez dira edozein teknika edo estrategia erabiliz konpontzen. Esperientziaz dakigu irakurtzearen egintza ez dela zenbait gogo konduktistak uste izaten duten bezain sinplea eta lineala.

Halataere, segur gaude irakasleak gehiago ohartuko balira zergatik eta zertarako agintzen dieten ikasleei irakurtzeko, ikasgelako irakurtze praktikak aberasgarriagoak izango liratekeela intelektualki eta afektiboki, bai irakasle bai ikasleentzat.

Egin zuenak badaki.









sorta **Urdina**

sorta **Berdea**

sorta **Horia**

sorta **Gorria**

sorta **Laranja**

Blitz
Hezkuntza
Departamentuan

Blitz
Eskolan

Blitz
irakurtearen alde

Blitz
idaztearen alde

Blitz
ahozko
adierazmenaren alde

1. Nafarroako eskoletako liburutegien azterketa: hurbiltze saioa Hobetzeko gakoak
2. Eskolako liburutegia nola antolatu Alderdi tekniko eta pedagogikoak
3. Saillapen Hamartar Unibertsala Eskola Curriculumentan Unibertsitatekoak ez diren eskoletako liburutegietan fondoak gaiztatu antolatzeko jarraibideak
4. Eskola liburutegiaren informatizazioa. ABIES 2.0 programa

1. MARIANO CORONAS Eskolako liburutegia Irakurtzeko, idazteko eta ikasteko gunea
2. VÍCTOR MORENO Irakurketa, liburuak eta irakurtzera bultzatzea Hausnarketak eta proposamenak
3. VILLAR ARELLANO YANGUAS Liburutegia eta ikaskuntza autonomia Baliabide dokumentalak aurkitzeko, ulertzeko eta baliatzeko gida didaktikoa
4. M^a JESÚS ILLESCAS Eskolako liburutegian nola ikasi eta ikertu Erabiltzaileak iprestatzen

1. Ulermenezko irakurketa eskola curriculumean Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
2. JESÚS AMADO MOYA Hizkera zientifikoa eta ulermenezko irakurketa zientzien arloan
3. ÁNGEL SANZ MORENO Ulermenezko irakurketa eta DBH-KO eskola testuak
4. VÍCTOR MORENO Zertarako irakurri? Ulertzeko
5. ÁNGEL SANZ MORENO Irakurmena lantzeko jarduerak nola prestatu Lehen Hezkuntzako 3. Zikloa eta DBHko 1. Zikloa
6. Nola prestatu ulermenezko irakurketa plana DBH-ko institutu batean Bi adibide praktikoa
7. NATIVIDAD IRAIZOZ SANZOL FERMIN M.^a GONZÁLEZ GARCÍA El mapa conceptual: un instrumento apropiado para comprender textos expositivos
8. VÍCTOR MORENO Ikasleak irakurzaletzen ahotsa, sentimendua eta sormena erabiliz
9. LUIS IZA DORRONSORO Irakurketa plana Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan
10. Modelo de fondo bibliográfico para una biblioteca escolar de E. Secundaria

1. PEDRO JIMENO Idazmenaren irakaskuntza arlo guztietan

1. ANA MARTÍNEZ MONGAY Nola prestatu ahozko azalpen bat bigarren hezkuntzako arlo guztietan

BLITZ

Liburutegiko sagua

ESKOLAKO LIBURUTEGIKO BILDUMA

